



Ugarte eta Garitano, Arrasaten. | A.A.

"Aldaketa fiskala behar da"

Garitanok Arrasaten aurrekontuak aurkeztu ditu | 4

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN
Osasuna eta hirugarren adina | 17



Berdintasunaz hausnartzeko
hitzorduak Aretxabaletan | 25



Gabonetan botako dute Bergaran
Mariaren Lagundiko 'eraikin berria' | 15

Izaskun Murgia elkarte
lirikoko kideak,
eguaztenean egindako
entsegu orokorrean.



'La revoltosa' zarzuela Arrasaten

Urteroko hitzordua iritsi da eta dena prest dute Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideek gaurko estreinaldirako: Amaia antzokian izango da, 20:00etan; bihar eta datorren asteburuan ere antzeztuko dute | 32

ARANTZAZU EZKIBEL

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK 2011

Gorteak aukeratzera deituta daude 51.156 debagoiendar

Espainiako hauteskundeak dira etzi, domeka | 2

"Berlusconiren eskandaluek arreta desbideratu dute"

Marco Micciche |
Kazetari italiarra | 6



Bigarren eskuko azoka egingo dute etzi Eskoriatzan

Plazan egingo dute
11:30etik
14:00etara | 26

Realak eta Prainsa Zaragozak, lagunartekoa

Mondrako nesken
urteurrena ospatuko
dute bihar | 31

SINADURAK

	RUFINA OLASAGASTI 8
	8 IBAN ARANTZABAL
	AITZIBER AZKONDO 15
	27 ANTONIO DEOGRACIAS
	MIKEL IRIZAR 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 6 |
IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 30 | KULTURA 32 |
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 |
ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

HAUTESKUNDEAK

GOIENA PAPER | HAUTESKUNDEEN GAINEKO INFORMAZIOA
Astelehenean, egunkari saltokietan
edo egin zaitez harpidedun: 943 25 05 05.

GOIENA.NET | UNEOROKO JARRAIPENA
Azaroak 20, 19:45

TWITTER | UNEOROKO JARRAIPENA
Jarraitu @goiena erabiltzailea.

ESPAINIAKO
GORTEETARAKO
HAUTESKUNDEAK
2011

goiena

SEAT EXEO ST

120 ZP
2000 TDI
23.000 eurotik aurrera



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Ailegatu da hauteskunde aurretik zalantzak argitzeko unea

- Hego Euskal Herriak 23 diputatu aukeratuko ditu
- Bi ontzi egongo dira: Kongresurako eta Senaturako

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Etziko hauteskundeetan, Espainiako legebiltzarra osatzen duten bi ganberetako kideak aukeratuko ditugu. Hego Euskal Herriak 23 diputatu izango ditu Kongresuan, eta 16 kide Senatuan.

Espainiako botere legebileak eratzeko

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak dira azaroaren 20koak. Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatzen dituzte Gorteak, eta Espainiako botere legebileak dira. Gorteei dagozkie honako eginbeharrak: aurrekontuak onartu, Espainiako Gobernua kontrolatu eta Espainiako Konstituzioak ematen dizkien beste hainbat betebeharrak. Gorteen bozkatzeko dute Espainiako Gobernuaren presidentea.

Espainiako lehenengo Gorteak 1977an aukeratu ziren eta 1978ko Konstituzioa egin zuten. Konstituzioa onartu zenetik 10. hauteskundeak dira hauek.

Kongresuko eta Senatuaren kide berriak abenduaren 13an egingo dute eraketa-batzarra.

Sei diputatu aukeratuko ditugu

Kongresuak 350 diputatu ditu. Hego Euskal Herriko eta Espainiako lurraldeen artean, honela banatzen dira: lurralde edo probintzia bakoitzak, gutxienez, bi diputatu izan behar ditu; Zeutak eta Melillak bana aukeratzen dute, eta gainerako 248 diputatuak lurralde edo probintzia guztien artean banatzen dira, probintzia bakoitzaren populazioaren arabera. Hauteskundeak deitzen dituen Errege-Dekretu berak zehazten du lurralde bakoitzak zenbat diputatu aukeratuko dituen. Hala, Gipuzkoak sei diputatu aukeratuko ditu oraingoan.

DATUAK

10

ALDERDI

Bailaran, 10 alderdi politikoren artean aukeratu dezakegu.

11

DEBAGOIENDAR

EAEko zerrendetan, denetara, 11 hautagai debagoiendar daude.

710

PERTSONA GUTXIAGO

Debagoiengan, 2008an baino 710 lagun gutxiago daude errolan; orduan, 51.866 hautesle zeuden.

Senatuak ez du kide kopuru finkorik

Espainiako lurralde-ordezkaritzarako ganbera da Senatuak. Bere funtzio batzuk hauek dira: legeak onartzeko zein Estatuko aurrekontu orokorrak onartzeko prozesuetan parte hartzea, Estatuko aurrekontu orokorren onarpenean ere parte hartzea, Gobernuaren kontrol politikoa egitea eta denon intereserako gaien inguruan informatzea eta ikertzea.

Senatuak ez du kide kopuru finkorik. 2008-2011 legealdian, 264 senatari izan ziren, eta hurrengo legealdian, 266 izango dira.

Bi modutara aukeratzen dira senatariak, eta 208 dira domekan aukeratzen direnak: Hego Euskal Herrian, lurralde bakoitzeko lau senatari. Kongresurako hauteskundeetan ez bezala, norbanakoen alde bozkatzeko da kasu honetan, eta norberak hautagai bat, bi edo hiru aukera ditzake.

Beste 58 senatari erkidegoetako legebiltzarrek aukeratzen dituzte: bat erkidego bakoitzeko, eta beste bat erkidego horrek duen milioi biztanle bakoitzeko.

Botoak askotariko 'balioak' izan ditzake

Kongresuko eserlekuak D'Hondt Arauaren arabera banatzen dira. Horrek nahastea sortzen du jende askorengan; araua korapilatsua da eta itxuran harrigarriak diren proportzioak sor ditzake.

Honela funtzionatzen du D'Hondt arauak: lehenengo, zirkunskripzio edo barruti bakoitzeko emandako baliozko botoen %3 baino gutxiago jaso dituzten hautagaiek baztertu egiten dira; gero, handitik txikira, zutabe baten jartzen dira gainerako alderdiek lortu dituzten boto kopuruak; segidan, hautagai edo alderdi bakoitzak lortu duen boto kopurua zatitzen joaten da (1, 2, 3...), eta zatitzaile handiena barruti horri dagozkion jesarleku kopurua izango da. Bukatzeko, zatidura handiena lortu duen alderdiari jesarleku bat ematen zaio; bigarren zatidura handiena lortu duenari, beste bat; hirugarren zatidura handiena lortu duenari, beste bat...denak banatu arte.

D'Hondt Araua edo Metodoa Victor d'Hondt legelari belgikarrak asmatu zuen XIX. mendean. Herrialde askotan erabiltzen da. Hego Euskal Herrian eta Espainian, lurralde edo probintzia bakoitzeko emaitzei aplikatzen zaie, nahiz eta lurralde horretatik kanpo ere aurkezten diren alderdiak izan tartean.



Bergarako hautesleku baten bozkatzeko, 2008ko hauteskundeetan. | JOSETXO ARANTZABAL

tik kanpo ere aurkezten diren alderdiak izan tartean.

Biztanle kopuruaren arabera, ez da gauza bera lurralde txiki baten edo handi baten bozkatzeko: Madril, 100.000 boto inguru beharko dira Kongresuan jesarleku bat lortzeko, baina lurralde txiki baten, 19.000 botoekin nahikoa da. Horregatik, Espainia osoan aurkezten diren alderdiendako oso garrantzitsuak izaten dira gutxi populatutako probintzietan emaitza onak lortzea.

Baina, horregatik, gutxi populatutako probintzia baten errazagoa da norberak emandako botoak eraginik ez izatea: izan ere, boto gutxiago egongo direnez, arrisku handiagoa dago norbere botoa boto baliodunen %3aren azpitik geratzeko. EAEan, alderdi batek botoen %18 edo %20 inguru behar du jesarleku bat lortzeko.

Boto zuriak, alderdi handien onerako

Boto zuria ere baliozko botoa da. Zuriz bozkatzeko, hautesontzian gutunazal itxia hutsik sartu behar da.

Boto zuria asko jasoko balira, alderdi politikoei arreta-deia izango litzateke. Baina hori gertatzeko moduko kopururik ez da inoiz egon. Hala, D'Hondt araua aplikatuz gero, alderdi bozkatuenek aukera handiagoak dituzte jesarlekua lortzeko, eta alderdi txikiak, aukera txikiagoak.

Norberak sartuko ditu botoak ontzietan

Hauteslekuak 09:00etan irekiko dituzte jendearendako. Norberak dagokion hauteslekuan eta mahaian bozkatu behar du.

Hautesleak banan-banan aurkeztu behar dira mahai aurrean eta mahaiko presidenteari izen-abizenak esan behar dizkio. Bokalek eta interbentoreek haren izen-abizenak eta bozkatzeko eskubidea egiaztatuko dute. Hautesleak presidenteari gutunazal edo gutunazalak emango dizkio, eta presidentek ozen esango du hauteslearen izen-abizena eta "Bozkatzeko du" gaineratu. Orduan, gutunazalak itzuli behar dizkio hautesleari, eta berak bere eskuz sartuko ditu ontzian edo ontzietan.

BOZKATZEKO 84 MAHAI DEBAGOIENEAN

HERRIA	BOZKATZEKO ESKUBIDEAZ	HAUTESLEKUAK	HAUTES-MAHAIK
Antzuola	1.745	1	2
Aramaio	1.195	1	2
Aretxabaleta	5.331	1	7
Arrasate	17.856	6	32
Bergara	11.871	5	19
Elgeta	927	1	1
Eskoriatza	3.214	1	4
Leintz Gatz.	199	1	1
Oñati	8.818	5	16



Zer proposatzen du bakoitzak ekonomia suspertzeko?

MAITE ARISTEGI | AMAIURREN HAUTAGAIA KONGRESURAKO

"Burujabe izan behar dugu krisitik irteteko"

"Euskal herritarron hitza Madrilera eman eta haren bozgorailua izan nahi dugu. Besteak beste, arlo ekonomikoan burujabe izan nahi dugu, krisi egoera honetan behar diren neurriak hartzeko tresnak izateko. Gure iritziz, krisi honetara eredu zehatz batek eraman



gaitu, eta eredu hori zeharo aldatu behar dugu: langileen aldeko eredu egin, aberastasuna banatzea, parekidetasunean eta Amalurrarenganako errespetuan... Burujabetza behar dugu lan-harremanak, gizarte-prestazioak, dena hemen arautzeko".

ENEKO ANDUEZA | PSE-REN HAUTAGAIA KONGRESURAKO

"Beste inork ez du langabeen alde jardungo"

"Egoera oso txarra da, 5 milioi langabe daukagu Espainian. Gure aldetik, lana eskaintzen dugu. Gure lehen-tasuna enplegua sortzea da, batez ere gazteendako. Erreforma fiskal handi bat egin nahi dugu, gehien dutenek gehiago ipintzeko; eta enplegua sor-



tzeko, enpresa txiki eta ertainei abantaila fiskalak ematea eta kontratazioa merkatu. Ez da gauza bera Moncloan alderdi bat edo beste bat egotea. Langabezia gure jendea dago, eta guk baino inork ez du egingo beharra eurak krisitik ateratzeko".

LORE LEANIZBARRUTIA | EAJ-REN HAUTAGAIA SENATURAKO

"Gazteendako lana ekarri behar dugu Madrildik"

"Madrilen jokatzendiren proiektuetatik, Gipuzkoarendako garrantzitsuenalana da; gazteendako lana. Gipuzkoak kualifikatutako gazte asko dauzka, eta proiektu zientifiko, teknologiko eta berritzaileak han jokatzendira. Guk hori ekarri



behar dugu, horregatik ekarri genuen I+G+i eskumena. Bestalde, ekonomia sozialaren, kooperatiben alde tinko egon gara orain arte; kooperatibetatik erretiratu direnen egoera hobetu egin dugu".

JUANA BENGOTXEA | PP-REN HAUTAGAIA KONGRESURAKO

"Kontratatzeak erraztasunak emango ditugu"

"Administrazioak asko argaldu behar dira. Bere momentuan egoiak ziren baina orain eutsi ez diren gastu asko dago. Hortik murriztu nahi dugu; baina pentsioak, hezkuntza eta osasuna ez ditugu ukituko. Horiek ziur-



tatzeko enplegua sortu nahi dugu: gauzak erraztuz autonomoendako eta enpresa txiki eta ertainei kontratatzeak erraztasunak emanez. Kaleratzea erraztu barik, kontratazioa erraztuko dugu eta fiskaltasuna hobetuko dugu".

MIKEL IZAGIRRE | EZKER ANITZAREN HAUTAGAIA SENATURAKO

"Banka eta enpresa publikoak dira gure apustua"

"Diru publikoa ezin da inolaz ere erabili indar ekonomikoen eta entitate finantzarioen alde, esanez horiek gero merkaturaregulatuko dutela. Gure apustua da banku publikoa, non kreditua erabiliko den enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzeko. Herrita-



rrendako ere banka publikoa zegoen, eta desegin egin zuten. Enpresa publiko asko pribatizatu egin ziren, eta berriz publiko egin behar dira, gizarteak dituen baliabide handienak eta beharrezkoak mozkinen mende ipintzen dituztelako".

JUNKAL ARRUTI | EQUOREN HAUTAGAIA KONGRESURAKO

"Ekonomia iraunkorra proposatzen dugu"

"Politika eta ekonomia errotik aldaketu behar dira, iraunkortasuna gainetik jarrita. Proposatzen dugu enplegu berdeak sortzea; ordaindu bako lanen birbanaketa-adibidez, emakume askok egiten dituzten zainketa lanak-, horrela jende gehiagok lan egin dezan



eta bakoitzak lan gutxiago egin dezan; erreforma fiskala, enpresa handiei eta aberatsei zergak handituz; gizarte murrizketak kentzea, eta Estatuaren diru-sarrerak handitzea; eta oinarritzko gizarte-errenta ipintzea diru-sarrerarik ez dutenentzat".

Bailarakoak EAEko hiru lurraldeetan

Debagoieneko 11 lagun daude Amaiur, EAJ, PSE, PP, Ezker Anitza eta Equo alderdien zerrendetan. Gehienak Gipuzkoako zerrendetan daude: Amaiurren zerrenda-burua, Kongresurako, Maite Aristegi bergararra da; Esther Larrañaga eta Joseba Ugalde arrasatearrak 1. ordezkaria eta 3.a dira, hurrenez hurren. EAJtik, Senaturako, Lorea Leanizbarrutia aretxabaletarra zerrenda-burua da, eta Arrasateko zinegotzi Juan Karlos Garitano, Senaturako 2. hautagaiaren ordezkaria. Ezker Anitza alderdian bi debagoiendar daude Kongresurako zerrendan: Isabel Salud bergararra 3.a da, eta Juan Luis Merino eskoriatzarra, 6.a. PSE-EEk Senaturako 3. hautagai moduan du Blanca Roncal.

Araban, Izaskun Moiaña oñatiarra EAJren 3. hautagaia da Senaturako, eta Itziar Lamarain arrasatearra, PPren Senaturako lehenengo hautagaiaren 2. ordezkaria. Bizkaian, Junkal Arruti bergararra Equoko zerrenda-burua da.

Australian, derrigorrez bozkatu behar dute

Herrialde batzuetan, ofizialki derrigorrezkoa da botoa ematea, baina, praktikan, ez da zigorrik ipintzen: adibidez, Frantzian, Italian edo Grezian.

Beste herrialde askotan, ordea, praktikara eramaten da derrigortasun hori eta diru-zigorak, kartzela-zigorak edo bestelako zigorrak (ordezko zerbitzu sozialak egitea, adibidez) ezartzen dituzte: hori gertatzen da Australian, Argentinan, Txilen, Ekuadorren, Brasilen, Luxenburgon eta beste batzuetan.

3. FASEA

SAN LORENTZO AUZOA

B E R G A R A

Logela **bateko** etxebizitza

139.000 €-tik aurrera
23.127.654 pta

Bi logelako etxebizitza

168.000 €-tik aurrera
27.952.848 pta

Hiru logelako etxebizitza

216.000 €-tik aurrera
35.939.376 pta

- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen
BEZ-a %8

Orain
Etxebizitza berria
BEZ-a %4

Etxebizitza
bukaera
2012

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzaila



Argibidea
eta Salmenta

943 424 430
www.ormak.es



Ezkerretik eskumara, Ruiz de Larrinaga, Ugarte, Garitano, Rodriguez eta Arantzabal, eguaztenean Kulturaten. | A. ALKORTA

Martin Garitano: "Doikuntza garaian aldaketa fiskal sakona proposatzen dugu"

- Aurreko Aldundiak 700 milioi euroko zorra utzi duela esan dute
- 'Gipuzkoa aurrera' egitasmoa bertan behera geratuko da abenduaren 31n

ASIER ALKORTA | ARRASATE

2012ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuek "politika berri bat eta politika egiteko modu berri bat" erakutsiko dutela esan du Martin Garitano Gipuzkoako ahalzun nagusiak. Aurrekontu parte-hartzaileak egin nahian, Garitano, beste batzarkide batzuekin batera, Arrasaten izan zen eguaztenean eta herriko eragileen eta norbanakoen iradokizunak eta galderak entzun zituen. Besteak beste, bizi kalitatea hobetzeko gizarte gastuak eta Udalen Foru Kutxan diru gehiago inbertituko duela esan zuen Garitanok, "nahiz eta doikuntza -ajuste-garaian egon". Aldaketa fiskal sakona ere iragarri zuen.

Garitanorekin batera Idoia Arantzabal Bilduko batzarkidea, Gizarte Politikako diputatu Ander Rodriguez, Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatua eta Arantxa Ruiz de Larrinaga Herriarren Partaidetzarako zuzendaria egon

ziren Kulturateko areto nagusian.

Ahalzun nagusiaren esanetan, Aldundiaren egoera ez da batere ona. "20 urterako zorrak ditu eta guk ez duguna nahi da gehiago zorpetzea". Ugartek esan zuen aurreko Aldundiak 700 milioi euroko zorra utzi duela. "Ezin dugu nahi duguna egin, egoera den modukoa delako. Horregatik, egoerari aurre egiteko, aldaketa fiskal sakona bultzatuko dugu".

Behin azaleko egoera zein den azaldu eta gero, Aldundira sartu zirenean aurkitu zuten panorama deskribatu zuen Garitanok. "Aurrekoek zergen bidezko diru-iturriak jaisten zuten bitartean gastua igo egin zuten. Aukeren gainetik bizi ziren. Nola? Zorpetzen eta neurri fiskalik ez eskatzen".

Hartutako erabakiak

Egoera horren aurrean, neurriak berehala hartzeko erabakia hartu zutela esan zuen. Erabaki horien artean dago Gipuzkoa aurrera

egitasmoa desagerrarazteko neurria. Egitasmoak zorrak utzi dituela eta, abenduaren 31n bertan behera utziko dutela iragarri zuen.

Baina aurrekontuak doitzeko proposamenak ez dira horrekin amaitzen. "Diru sarrerak administrazio desberdinen artean nola banatzen diren ikusita, aldaketa bat proposatzen dugu. Batetik, Jaurilaritzari ematen diogun diru

kopurua jaitsi egin nahi dugu, baita Espainiari ematen diogun kupoaren portzentajea ere".

Garitanok Aldundiaren egoera zein den eta aurrekontuak nola itxi dituzten azalduaz batera, Larraitz Ugartek Aldundiaren azken urteetako bilakaerari errepasoa eman zion. Ondoren, herritarren txanda izan zen. Horretan, herritar batek aurrekontu horiek aurrera ateratzeko gutxiengoa dutela gogorarazi zien agintariei.

Bada, Garitanok honela erantzun zuen: "Gutxiengoa? EAJk ere Bizkaian 22 diputatu ditu eta egoera bereberean gaude gu. Gainera, diru gutxi dagoenean, ez dago non eztabaidatu. Eztabaida diru asko dagoenean sortzen da. Diru gutxiarekin, aldiz, proposamenak errazago onartzen dira".

Aurreko ereduaren "porrota"

Emakumearen, osasunaren, zabor bilketaren eta kulturaren alorrean zer egiteko asmoa duten ere galdetu zieten herritarrek Garitanori eta haren taldekideei. "Zabor bilketan, esaterako, erraustegirik ez dugu nahi. 400 milioi euro kostatzen da eta 14 lanpostu bakarrik sortuko lituzke. Atez ateko sistemak, aldiz, 400 lanpostu finiko sortuko lituzke".

Orokorrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak orain arte jarraitutako "eredu neoliberalak" kale egin duela esan zuen Garitanok. "Dena hankaz gora dago. Hori kontuan hartu behar dugu. Arazoa sustrietan dagoela uste dugu eta egoerari buelta emateko sakon sakoneko aldeketak egin beharko ditugu". Proiektu handiak egiteko aukerak ere murriztak direla gaineratu zuten.

Bilerara joan zirenen artean Eskoriatzako, Elgetako, Antzuolako, Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko alkateak zeuden, beste elkarte eta eragile askotako kideekin batera.

746 milioi euroko aurrekontua

Aldundiak proposamen hori eramango du mahai gainera eta, aurreikuspenak betetzen badira, abenduaren 23an onartuko dute. 2011n izan dugunarekin alderatuta, %13ko jaitziera dakar kopuru horrek.

2007a ezkerro, zergen bidezko sarrerak erori dira; gastua, mantendu edo handitu; zorpetze maila, igo -2006an 270 milioi euro eta 2011n, berriz 568,2 milioi euro-. Altxortegiko soberakinak ere nabarmen jaitsi direla esan dute.

Orokorrean, bi ezaugarri nagusi izango ditu 2012ko egitekoak: zorpetzea kontrolatzea eta gastuaren doikuntza.

JOSE RAMON KORTABARRIA
ESKUALDEKO
LAB-EKO
ORDEZKARIA



"Interes handia neukan jakiteko nola osatu dituzten aurrekontuak. Orokorrean, aurrekontuak herritarren aurrean azaltzeko formatuarekin oso pozik irten naiz. Argi ikusten dena da aurrekontuak egoerari lotuta daudela eta egoera honekin baldintzatuta egon direla".

AITOR ARANTZABAL
BERGARARRA



"Ni herritar moduan etorri naiz eta izugarri positiboa ikusten dut euren asmoa zein den esateko herritarren aurrean egin duten agerraldi hau egin izana. Lan filosofia egokia erakutsi dute eta aurkezpena txukun egin dute. Esan duten gauza guztien artean, gastu soziala igotzea oso pauso ausarta iruditzen zait".

BEÑAT HERCE
ESKORIATZAKO
ALKATEA



"Dezenteko esfortzua egin dute Aldundikoek komunikazio lan hau egiten. Guztion eskubidea da aurrekontu hauek ezagutzea eta zergatiak ezagutzea. Inork ez luke nahi horrelako egoera baten aurrean aurrekontuak egin, baina posible da diru barik ere gauza asko egitea. Egoera ekonomikoa gogorra da, eta ulertzen dugu".

ENEKO BARBERENA
TXATXILIPURDIKO
KIDEA



"Oso positiboa da lehen eskutik egoera zein den jakitea. Askotan, umeak izango bagina bezala tratatzen gaituzte eta ez digute datu askorik ematen. Oraingoan, aldiz, kontrakoa izan da. Guztiontzako da ona modu honetan hitz egiteko eta galderak egiteko aukera".

Bergarako ume bat bahitzen saiatu direla salatu dute

Gertaera Zornotzan izan zen eta umearen gurasoek Ertzaintzan jarri dute salaketa

A. ALKORTA | BERGARA

Bergarako sei urteko ume bat bahitzen saiatu ziren ezezagun batzuk Zornotzan. Ezustekoa horretan geratu bada ere, gurasoek

gertatutakoa Ertzaintzaren aurrean salatu dute. "Ez dugu alarma soziala piztu nahi baina bai esan beste gurasoei kontuz

ibiltzeko, horrelakoak gertatu egiten dira eta", dio umearen amak.

Gertaera barikuan gertatu zen, Zornotzan. 18:45ak bueltan 6 urteko umea eta bere ama autoa aparkatuta zegoen lekurantz abiatu ziren, etxerantz joateko asmoarekin. "Autoranzko bidean beti jolasten joaten gara; bera alde batetik eta ni bestetik", dio amak. Auto batetik besterako tartean amak umea ikusten zuen baina momentu baten umea desagertu egin zen. "Umea non sartu zen

ikusteko gerturatu nintzenean, emakume bat ikusi nuen, nire alabari heltzen". Momentuan horretan amaren erreakzioa emakumeari muturreko bat ematea izan zen. "Ez dakit ondo egin nuen edo ez, baina horrela atera zitzaidan".

"Dena azkar pasatu zen"

Emakumeak atzera egin, odoletan hasi eta k orrika ihes egin zuen, errepiderantz. "Gizonezko batek gidatzen zuen auto urdin baten sartu zen eta ziztu bizian alde

egin zuten. Nik umea autora sartu eta Udaltzaingorengana abiatu nintzen".

Dena azkar pasatu zela dio. "Bat-batekoa izan zen dena". Umea bahitzen saiatu zen emakumeari emandako kolpearen ondorioz umearen amak eskumuturrean min hartu zuen.

Hurrengo egunean gurasoek Ertzaintzan salaketa jarri zuten. "Orain lasai nago, umea etxean daukagulako. Baina kontziente izan behar gara horrelakoak gertatzeko arriskua dagoela".



Elortza alkatea eta Ugalde –Jakiundeko kidea– eguaztenean. | A.T.

Jakiunde Bergarara joatea "oso pozgarria" da Udalarendako

Zientzien eta Letren Akademiak Olaso dorrean izango du egoitza eta egokitze lanak hasita daude

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Jakiundek, Euskal Herriko Zientzien eta Letren Akademiak, egoitza berria Bergaran izango duela eta, pozik azaldu da Jesus Elortza Bergarako alkatea, asteen, Jesus Ugalde Jakiundeko kidea-rekin batera egindako prentsaurrekoan: "Eskerrik asko, Berga-

rara etortzeagatik", esan zion Ugalderi. "Halako erakunde batek egoitza Bergaran izatea oso garrantzitsua eta pozgarria da eta Jakiunderi transmititu nahi diot hona etortzeak herrian sortu duen poza".

Izan ere, jakintsuen akademiak Olaso dorrean izango du egoitza

berria datorren urtetik aurrera, Olaso Dorrea Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari esker, Ugaldek azaldu zuen moduan.

Dagoeneko lanak hasita daude, martxa onean doaz, eta, Ugaldek gehitu zuenez, uste dute apirileko batzar orokorra Olason egingo dutela.

Ugalde ere pozik azaldu zen akademiaren izenean egoitza berriarekin, eta haxe gehitu zuen: "Guretako egoitza hori oso ona eta egokia da eta eskerrak eman nahi dizkiegu alkateari eta herriari agertutako prestutasunagatik eta emandako erraztasunengatik. Orain guk geuk, Jakiundekook, dugu erronka hori herriari bueltatzeko, guk egin dezakegun moduan, alegia, gure lana ondo eginez".

Horren harira, Jakiunderen hausnarketarako gune eta jardunaldietarako egoitza izango dela esan zuen. Hori horrela, akademikoak Bergarara joango direla azpimarratu zuen: "Guztiak prest daude Udalarekin hitzartuta behar diren beste eta ezein ekintza egiteko, akademikoak herriari hurbiltzeko helburuarekin".

ESK, Eusko Jaurlaritzak gizarte zerbitzuetan egitekoa asmoa duen murrizketen kontra

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

2012rako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan gizarte laguntzek %7ko murrizketa izango dute. 54.000 familiak jasotzen dute laguntza. Horietatik 20.000 pentsionistak dira eta 14.000 lan

prekarioa dutenak. Alegia, gutxieneko soldatarak heltzen ez direnak. Hori guztiori salatzeak kanpaina egiten dihardu ESK sindikatuak. Gizartea sentsibilizatu gura dute, eta, horretarako, informazioa banatu dute asteen Arrasaten eta Bergaran. Gaur, Oñatiko plazan egongo dira.

"Pobreenak errudun"

ESK-k dio PSE-EE eta PPrendako pobreenak direla egungo krisiaren errudun: "Gizarte laguntzak kentzen badituzte, pobreak pobrea izango dira. Euren egoera asko zailduko da, muturreraino".

Aurrerantzean hiru urteko errola beharko da gizarte laguntzak kobratzeko –orain arte urtebetekoa zen–. "Neurri horrekin milaka gazte eta immigrante sistematik kanpo geratuko dira. Gainera, edozein lan prekario onartu beharko dute", esan du ESK sindikatuko Felix Irizarrek.



Felix Irizar, prentsaurrekoan. | M.B.



Abenduan datorrena!

Skunkfunkeko materiala lortzeko aukera

Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

goienakluba



Egibar eta Agirretxea eguaztenean Bergaran. | GOIENA

Lore Leanizbarrutia: "Beti egin dugu lan herri honen alde"

Euzko Alderdi Jeltzaleko hautagaiak bailarako lau herritan eskatu du botoa asteen

M.B. | ARRASATE

EAJ alderdiak asteen egin ditu kanpainako ekitaldi nagusiak gurean. Astelehenean Garaia Berrikuntza Gunean izan ziren Kongresurako eta Senaturako

Gipuzkoako hautagaiak. Testuiguru horretan, Kongresurako hautagai Arantxa Tapiak azpimarratu zuen jeltzaleen ekonomia ereduak ezagutza eta bikaintasuna bilatzen dituela: "Gure

enpresek aurrera egin dezaten". Joseba Egibar GBBko buruak ere hartu zuen hitza eta PPK eta PSE-EEK "hemendik ateratzen duten guztia Madrilera eramaten" dutela esan zuen, "ez dutelako proiekturik Euskadirendako". Ezker abertzaleaz esan zuen "zaharkitutako eredu" duela, "epikan eta emozioetan oinarritutakoa".

Eguaztenean gehiago

Eguazten iluntzean Senaturako Gipuzkoako buru Lore Leanizbarrutia Aretxabaletako batzokian izan zen. Besteak beste, haxe esan zuen: "Ezagutzen gaituz; beti egin dugu lan herri honen alde. Ez dugu gezurrik esaten eta ekintzetan oinarritutako programa daramagu Madrilera, besteek ez bezala".

Eguazten iluntzean, baita ere, Joseba Agirretxea Kongresurako hautagaia eta Joseba Egibar propaganda banatzen ibili ziren Bergaran. Horrez gain, azken 35 urteetako gertaera politikoak eta EAJren Madrilgo Gorteetako ibilbidea jasotzen duen autobusa Bergaran izan zen.

Amaiurrek ekitaldiak egingo ditu hiru herritan gaur

M.B. | BERGARA

Hauteskunde kanpainari amaiera emateko, Amaiur koalizioak Debagoieneko hiru herritan beste horrenbeste ekitaldi egingo ditu gaur, egubakoitza.

Oñatin Herriko Plazan egin dute deialdia, 18:30ean. Elgetan ere Herriko Plazan egin dute hitzordua, 19:30ean, eta ekitaldia musikarekin, trikitilariarekin eta gaztaina-erreekin alaituko dutela aurreratu dute.

Aretxabaletan ere gaur, egubakoitza, kanpaina amaierako ekitaldia egingo du Amaiurrek. 18:30ean izango da, Durana kalean. Eguen goizean egitekoak zirena, berriz, bertan behera geratu zen.

Arrosak banatuko ditu Arrasaten Blanca Roncal sozialistak gaur

Hauteskunde kanpainako azken txanpan, atzo, eguna, Bergaran izan zen arrosak banatzen Jose Luis Valles Senaturako PSE-EEren zerrendaburua Bergarako ordezkariarekin batera. Gaur, Blanca Roncalek, Senaturako hiru garrenak, Arrasaten banatuko ditu, 11:30ean.

Banku publikoa sortzea proposatu du Ezker Anitzak

Ezker Anitzak Arrasaten egin zuen egun iluntzean kanpainako ekitaldia. *Bankari bat jan, txorizo bat jan* izeneko antzezlan egin zuten, banke-teen bitartez herria xahutzen ari diren kontrako haserrea irudikatzeko. Aurrezki kutxak banku publiko bihurtzeko lan egingo dutela azaldu zuten.

Marco Micciche | Kazetari italiarra

"Silvio Berlusconi eskandaluek arreta desbideratu dute gertatzen ari zenetik"

- Berlusconi zapatuan aurkeztu zuen dimisioa, egoera ekonomikoak horretara bultzatuta
- Gaur onar dezake Parlamentuak Mario Montik diseinatutako gobernu berria

TXOMIN MADINA | OÑATI

Azken urteotan Oñatin bizi den arren, jatorriz Siziliako Catania hirikoa da Marco Micciche kazetaria. Gertutik jarraitu ditu azkenaldian bere herrialdean, Italian, izan diren gorabehera politiko eta ekonomikoak, eta horietaz eta etorkizunaz berba egin dugu harekin.

Egun berezia izan zen zapatua Italiarendako, Silvio Berlusconi dimisioa aurkeztu zuen eguna. Nola bizi izan zenuen egun hura?

Esperotako eguna zen, ez gintuen ezustean harrapatu. Baziren zortzi hilabete zalanza, zailtasun eta ziurgabetasun egoeran bizi gine-la. Eta bai, lasaitasuna izan zen lehen sentazioa; lehenengo sentazioa, pentsatzen jarri gabe, lasaitasunezkoa izan zen. Batzuek poztasun handiz hartu zuten; beste batzuek oraindik ez dute sines-ten; eta beste askorentzat, urte askoan Berlusconi botoa eman zietenentzat tristura handiko uneak dira. Izan ere, horrelako gehien-go izanda, ibilbidea horrelako era, esango nuke, patetikoa amaitzea: botazioa irabaziz, baina abstenitu zirenak Berlusconi azken legearen aldeko botoak baino gehiago izanda...

Berlusconi bezalako pertsona batendako, Italiaren historiara pasa gura zuen pertsona batendako, egon zitekeen amaierarik txarrena da. Historiara pasako da, bai, baina seguru epaia gehiago dela negatiboa positiboa baino. Dena den, pertsonalki albiste ona izan zen. Baina orain ikusi egin beharko da zer gertatzen den. Ez gaude denak konbentziturik *berlusconismo*-a amaitu denik; hark hor jarraitzen du, ez dakigu zer egingo duen, haren hurrengo urratsen zain gaude.

Berlusconi korruptzioarekin eta eskandalu sexualekin lotua izan da urte hauetan guztietan. Deigarria da, baina, ekonomia izan dela boteretik kendu duena...

Oñatiko lagunek galdetzen didatenean Italian gertatzen denaren gainean, nik esaten diedana da Italian, duela hamazazpi urtetik hona, italiarrak *acto de fe* baten arabera batzen direla: Berlusconi aldekoak eta kontrakoak. Nork bere istorioa kontatu eta sinesten du. Arazoa da epaiak egon aurretik, justiziak bere lana egin aurretik dena egunkarietan agertu dela: erdiek egunkari batzuek ziotena sinistu dute eta beste erdiek, beste egunkari batzuek ziotena. Emaita izan da gobernuak hor jarraitu duela gehiengo garbiarekin. Parlamen-

tuan ez dira hauteskundeak galtzen kontrako titullarrak daudelako; galtzen dira azkenean ekonomiak agintzen duelako. Normala da erabakigarriagoa izatea herrialde bat krisian egotea, ia kiebran, ustezko eskandaluak baino. Nire ustez, ez dira hain ustezkoak; baina epaiketa asko ez dira amaitu eta askoren ustez Berlusconi epaileen biktima bat da.


Zein da Berlusconi sekretua, eskandaluak eskandalu, hainbeste jende erakartzeko, hauteskundeak irabazteko?

Italia beti izan da nahiko herrialde polemikoa. 1992an lehenengo errepublika erori zenean, Italiak bi gobernu tekniko izan zituen. Nahasketa handiko garaiak izan ziren, partidu handiak eskandalu handien ondorioz erori ziren eta orduan Berlusconi agertu zen: dena irabazi duen enpresaburua, bere burua eraiki duena. Eskandaluak gero etorri ziren, baina orduan enpresaburu garrantzitsua bakarrik zen, berritzailea. Aurreko alderdiak erori ostean, kontserbadoreen gehiengoak beste alderdi bat bilatzen zuen, eta alderdi hori Berlusconiaren Forza Italia izan zen.

Jendeak interesen arabera ematen du botoa, ez Berlusconi egon den prostituten kopuruaren arabera. Adibide garbiena Eliza Katolikoarena da: ez dago Berlusconi baino katoliko inkoherenteagorik. Baina, era berean, hura izan da bakarra homosexualen eskubideak oztopatu dituen, baita koma atzeraezinean dagoen pertsona baten bizia etetea erregulatuko lituzketen legeak ere. Izan da gizon bat, katoliko guztiz inkoherentea izanda, Elizaren pribilegioak bermatu dituen. Baina, interes askorentzat, hobe inkoherentea izan arren interes horiek bermatzea, koherentea izan eta enpresaburuaren edo elizaren interesak ez bermatzea baino.

Berlusconi Italiako klase politikoa- ren irudiari egin dion kaltea azpimarratzen dute askok. Nola ikusten dituzte italiarrek politikariak?

Italiarrak futbol entrenatzaile onak dira, tabernan politikari onak dira, eta politikariak gorroto dituzte. Politikariak beti izan dute oso balorazio kaskarra; orain, okerragoa. Jende askok esan dit, eta horrek arduratu egiten nau, hobe izango litzatekeela Parla-mentua itxi eta arazoak konpontzeko ardura teknikari bati ematea. Klase politikoa errespetua oso txikia da, Berlusconi horretan lagundu du.



Marco Micciche, Oñatiko Antixena parkean. | TXOMIN MADINA

"Interesen arabera eman zaio botoa Berlusconi; Eliza da adibide garbiena"

"Beldur handia dago Italian; ekonomia uste baino okerrago dago"

"Askok kostako da italiararen mentalitatea aldatzea"

Italiaren arazo ekonomikoak izan dira gauzak aldatzea ekarri dutenak. Nola bizi dute krisia?

Italia erdialdetik iparraldera doan eremuan, ia Alemaniak bezalako ekoizpen erritmoa duen eremuan, duela urte eta erditik hona krisi ekonomiko garrantzitsua dago eta jendea arduratuta dago: EREak, kaleratzeak... Konfiantza falta handia dago, ez dakite-eta nora doan herrialdea. Hegoaldean beti izan dituzte arazo asko, baina ongizate gizarte informala dute: familia, harremanak... Hor krisia gutxiago ari da eragiten; baina ospitaleetan edo pentsioetan mozketa datozenean, orduan arazo garrantzitsuak etorriko dira.

Momentu honetan beldur handia dago. Izan ere, Espainia okerrago zegoela uste zuten, ez Italia Espainia baino okerrago zegoenik. Eta orain okerrago daudela ikusi da. Langabezia aldetik ez, baina bestela bai. Iratzartzea izan da, iratzartze garrantza. Datu batzuk

bagenekizkien: dugun zor publikoa Espainiaren bikoitza da, %120az ari gara. Datuak hor zeuden, baina galderak ziren ea Berlusconi deabrua edo santua zen, eta horrek arreta desbideratzen zuen gertatzen ari zenetik. Eta orain esnatu egin dira.

Mario Montirena da gobernu berria antolatzeke ardura. Uste duzu momentu honetan Italiak behar duena dela?

Teorian gaur, ostirala, konfiantzazko boto bila joango da. Lortzen badu izango dugu gobernu bat Montik esan duenaren arabera, ez dena bi hilabeterako bakarrik izango, 2013ra artekoa baizik. Ez dakit irtengo den, baina nik neuk espero dut ezetz.

Egin ditzatela bi hilabete egin beharrekoak eta gero egon daitezela hauteskundeak; jendeak proiektu bat ordezkatzeko duen beste proiektu baten alde. Horrek dauka ona demokraziak, proiektu politiko baten edo bestearen alde egitea. Baina ez dadila etorri Monti bezalako bat, gizon zintzoa, baina era berean Goldman Sachs-eko langilea, Europara krisia ekarri duen enpresetako bat. Profesional handia izan arren, ekonomialari handia, zalanztak ditut.

Ze etorkizun espero dezake Italiak? Irtengo da honetatik?

Italiaren etorkizuna Europako gainerako estatuei lotuta dago. Italia saia daiteke irteten gastua murriztuta, edo probintziak kenduta. Ez naiz ekonomialaria, baina, nire ustez, arazo horiek konponduta ere, ez dakit Italia bera bakarrik gai izango litzatekeen Txina bezalako herrialde batekin lehartzeko. Hemendik denak batera irteten gara, edo ez gara irtengo. Nire ustez, Europa solidarioa-goa behar da, gauzak orain egiten ari direna baino hobeto egiteko.

Gertatu den guztiak izango du eraginik italiarrengan? Nolakoa?

Ni neu ezkor samarra naiz. Italia oso herrialde kontserbadorea da, gehiengo kontserbadorea duena, baina kontserbadorismo hori arlo publikoan aplikatu eta arlo pribatuan nahi duena eginaz. Mentalitatean zerbait aldatzea asko kostako da. *Berlusconismo*-a kendu dugu gainetik, baina ez zen Berlusconi bakarrik izan *berlusconismo*-a eraiki zuena, jende asko zegoen halako zerbaiten zain. Kultura horrek jarraitu egiten du, ez da amaitu. Zentzu horretan, ez naiz oso bai-korra.



Zuhurrenen aurrezkia



**EDREDOI
NORDIKOA
PRIVATA**

1.200 €
epea:urtebete
U.T.B.: %1,97

Zuk ere heldu bere etxeaz gozatzen dutenen interesari.

Badator hotzaren eta euriaren garaia; badator etxeko epeltasunaz, etxeko otorduez, erosotasunik handienaz gozatzeko garaia... eta zure aurrezkiei egunero etekinik handiena ateratzeko unea.

Aukera ezazu gogokoena ohiko bulegoan, Telekutzako 901 333 555 telefonora deituz, kutxa.net-en edo **kutxa**ren kutxazainetan.



kutxa
zugandik zugana

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
http://goiena.net/iritzia/



Loturak askatu

Euskal Herrian 202.600 langabe dira, 186.862 Hegoaldean eta 15.738 Iparzraldean. Hegoaldeko langabeen %36,5ek ez dute inolako laguntzarik jasotzen eta datuek adierazten dute hauen proportzioa igotzen ari dela. Iparraldearen kasuan, ez dakigu zenbatek jasotzen duten laguntzaren bat; administrazio ezberdinetan zatituta egotearen ondorioa da hori.

Langabe hauen sufrimendua ikusten dugu egunerokotasunean, eta hau honela bada gure artean, askoz egoera larriagoan bizi dira aspaldian krisian murgilduta dauden herrialdeetako milioika pertsona: gosetea, gerrak, erbesteratzea... Eta guk ere badugu zerikusia egoera horren sorreran eta iraupenean.

Berriro ere ikusi dugu irabaziak lortzen dituzten bitartean munduan agintzen duten kapitalistei bost axola zaiela jendea miserian bizitzera behartzea, baita hiltzea ere. Dirudun eta bankariek euren burua ezkutatzan dute Merkatuak agintzen duela esanez; baita haien esanera dauden politikariek ere.

Halako porrota ekarri diguten agintarien esku utzi behar al dugu geure eta munduaren etorkizuna? Norbaitek pentsa dezake honelako arazoei irtenbidea aurkitzeko ez garela nahiko adituak: egia da bakarka gauza handirik ez garela, baina talde lanean biderkatu egiten da bakoitzaren ekarpena.

Frankismo garaian ere antzeko egoera bizi izan genuen, batzuen ustez ezin zen ezer egin, baina Euskal Herria biziberritu duten bide berriak asmatu ziren, aspaldiko tresna batez baliatuz: auzolana. Auzolanean egin ziren ikastolak, landu zen euskal kantagintza eta kultura, eratu zen erakunde eta alderdietatik independentea den sindikalgintza autonomia, sortu ziren euskara elkarteak, indartu zen bertsolaritza, eta beste hainbat proiektu. Oraindik ere hauetako proiektu ugari eta beste askok auzolanean funtzionatzen dute.

Gauza ote gara geure burua loturetatik libratuz askatasunez erantzun berriak aurkitzeko? Ba ote dugu ausardiarik horrelako proiektuak aurrera eramateko?

"Auzolanean egin ziren ikastolak, landu zen euskal kantagintza..."

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com

Biba, Belen Esteban?

Aspertu samar naukate krisi-soinuek. Eta aspertu baino gehiago, arduratu egin beharko nindukete, baina sarriegi-tan entzuten den kantuarekin gertatzen zaidan gauza bera gertatzen zait: as-per-tu! Telebista jeneralistek itsutu dituzte jubilatutak (eta gaituzte...), esaterako. Hori ikusita, gogoratzen naiz lagun batek esaten duenaz: "Amari *Sálvame* eta *La Noria* ez ikusteko esaten pasatzen ditut egunak, eta orain, informatiboak ikusten hasi ostean esaten dit ez diotela jubilazioa ordainduko laster, seme-alabak langabeziara joango direla...". Esan berri dio Belen Estebanez arduratzeko! Ez Esteban eta ez Berlusconi, badaukagu gertuagoko konturik arduratzeko, ez?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Antxon Ezeiza, ahobilorik gabeko gizona

Mikel Garcia

http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Antxon Ezeiza (Donostia, 1935) zendu da.

Duela aste pare bat deitu nion telefonoz, osasunaz galdetzeko.

Bi ebakuntzaren ostean, sendatze bidea gogorra egiten ari zitzaion, baina beti bezain sakon eta ozen mantentzen zuen ahotsa.

Itzulingururik gabe mintzatzen zen, zuzen.

Horregatik, iaz ezagutu nuenean ahobilorik gabe hitz egin zidan euskal zinemaz: hainbat zinemagile biltzen dituen *Zeluloidezko begiradak* libururako elkarrizketatzera gerturatu nintzen ni, eta nik berari adina galdera luzatu zizkidan berak niri.

Ezbairik gabe, elkarrizketetatik baino gehiago ikasten da norberaren usteak zalantzan jartzeko eta gogoetatzeko bide ematen duten horrelako solasaldietatik. Azken finean, euskal zinemari buruz luze eta zabal hausnartutako gizona zen, teoria hori guztia

batez ere bi proiektutan islatu zuelarik: *Ikuska* saila eta *Ke arteko egunak* filma. Obra handiak, biak ere.

[...] 1980ko hamarkadako lehen urteetako artxibo lan bikaina da *Ikuska* saila (zehazki, 1978 eta 1985 artean filmaturiko 20 dokumental), sasoiko euskal gizartearen errealtatearen berri ematen duena.

Ezeizaz gain, beste hainbat zuzendarik ere hartu zuten parte Antxonek gidaturiko proiektuan, tartean Xabier Elorriagak, Montxo Armendarizek, Juanba Berasategik, Imanol Uribek edota Koldo Izagirrek. Euskararekin eta euskal gizartearekin zerikusia duten gaiek hornitu zuten *Ikuska*, eta honako hitzekin agurtu zuen saila azken dokumentaleko off ahotsak: "*Ikuska*-k etorkizuneko zinemagintzari euskararen lekukoa ematen dio. Hasi genuenean lehenengo *Ikuska*, Euskal Herri lainotuarekin hasi genuen, eta Euskal Herriko arazo eta borroken lainoan, zinemarena pixka bat kentzea dagokigu guri. Arazo eta borroka berean jarraitzen dugu, baina hori bai, laino gutxiagorekin".

Ke arteko egunak (1989) lanak berriz, Donostiako

Zinemaldiko Donostia Saria eskuratu zuen eta Urrezko Maskorra lortzeko lehiatu den euskarazko lehen pelikula izan zen. Kritikari askok, dena den, ez zion barkatu obrak zuen kutsu ezkertiar abertzalea. Filmean, Pedro Sansinenea Euskal Herrira bueltatu da herri-minak bultzatuta, hoguei urte Mexikon igaro ostean.

Giza harremanez mintzo da *Ke arteko egunak*, maitasunaz, familiaraz, desiraz... eta sufrimenduaz, sufrimendu pertsonala eta sufrimendu politikoa, testuinguru mugitua bizi baitu Euskal Herriak, manifestazioetako ke arteko egunak dira, eta bere gordinean ageri da gatazka.

Pelikulak errodatzeaz gain, idatzien bitartez Euskal Zinema Nazionalaren bere ideia zehazten joan zen 70eko hamarkada bukaeraren eta 80ko hasieraren artean.

Euskal zinemaren oinarriez egin zuen gogoeta, hiru adar nagusiri tiraka: hizkuntza, estetika eta edukia. Handik urte askora, 2003an bere herriko Zinemaldiaren eskuetatik Ama Lur saria hunkituta jaso zuenean, koherente eskertu zuen garaikurra: zinema euskalduna, euskaraz eta askea aldarrikatu zuen. Ahobilorik gabe.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseminua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOTITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaleta Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

TORRA+PORTELLA

Zure buruan dena antolatua dago. Marrak, koloreak, moduluak, angeluak... Gauza bakoitzak funtzio bat bete behar du, alderdi estetikoak baztertu gabe. Horregatik Kibuc-en altzari-proposamen ugari aurkituko dituzu, egia bihurtzeko zure ideiak eta zure mundua. Zuk egiten duzu Kibuc.

ZU zara arrazoia



gutxieneko prezioa bermatuta



910 €

(75.83 x12 hilabete interesik gabe)



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Nuit programa. Oheak (150x190ko koltxoarentzat), oheburukoak eta gau-mahaitxoek osatutako multzoa. Akaberak: haritza errauts kolorean eta zerbinoak. Neurria: 320 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. * Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

Aintzane Oiarbideri

Jose Mari Iturbe Leceta
Antzuola

Aurreko asteko zure idatziaren azken berbak: "Flandesen gu baino zorrotzagoak izan dira ingurumena zaintzen". Arrazoa daukazu, baina ez duzu urrun joan beharrik buelta emateko; etorri Antzuolara eta entzunak, susmoak eta asmatutakoak zehaztu, bazterrak usaindu eta ondoren Bergarako Komenio kaleko lurpekoekin konparatu.

Zaborra hondakinen zati bat da eta hondakin mota desberdinak sailkatzea oso garrantzitsua da, eta hemen dago atez atekoaren abantaila nabarmenetako bat.

Hondakin kopurua jaistea ere ona, posiblea eta beharrezkoa dugu; horretarako, zure susmoetatik aparte, Antzuolan 150 familiak auto-konposta egiten dute, herritarrok kontzientzia eta ardura handiagoa ere hartu dugu sistema berriarekin. Organikoa (hondakinen %50) da beste klabea. Antzuolan 2.000 biztanlerekin atez ate 12.000 kilo batzen ditugu; bosgarren kontenedorearekin, Aretxabaletan 6.000 biztanlerekin 7.000 kilo eta Azkoitian 10.000 biztanlerekin 14.000 kilo. Gu ez gara beste batzuk baino hobeak edo txarragoak, sistema eraginkorragoa dugu.

Nire aldetik, ahalegin handixeagoarekin ondo egiten saiatzen diren antzuolar asko animatu nahi ditut, beraiekin aurrera egingo baitugu, eta ez zabor turistak justifikatuz.

Zaborren ipuinaren beste bertsioa

Andoni Agirre eta Haizea Agirre
(Oñati Zero Zabor)
Oñati

Oñati Zero Zabor ez dago ados Aintzane Oiarbidek azaroaren 11ko GOIENAN idatzi zuen artikuluearekin. Eta puntuz puntu erantzutea erabaki dugu:

-"(Antzuolan) zaborren kopurua *bat-batean* %50era jaitsi da. Antzuolako zenbait herritar ikusten omen dituzte Bergarako edukiontzietan zaborrak botatzen...". Jaitsi den %50 hori Bergaran proportzioan igo da? Atez ateko sistemak zaborraren inguruko ardura, kontzientziазioa, eragiten du eta horren ondorioz zaborra murriztu egiten da. Atez atekoa martxan jarri den toki guztietan gertatu da hori.

-“Herri guztietarako balio du (atez atekoak)?". Bai, zalantzarik gabe; milaka adibide daude: San Frantzisko, Antzuola, Milan, Hernani...

-“Gure etxe azpian zabor potoak eta zabor kiratsa egun osoz edukitzeko prest gaude?“. Hori ez da horrela. Honen

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxe: 943 25 05 13

harira aipatzekoa da Usurbilen atez atekoa jarri eta hilabete gutxira zintzilikarioak etxe atarira gerturatzeko makina bat eskari egon zirela usainik botatzen ez zuelako. Bestalde, zaborrak kalean egungo sistemarekin baino askoz denbora gutxiago egiten du.

-“Zenbateko igoera suposatzen dio herritarrari zabor zergetan sistema hau aukeratzeak?”. Eta zenbateko gastua suposatzen dio herritarrari errauskailuaren eraikuntzan diru publikoarekin egin behar den inbertsioak? Atez ateko "bilketa" izan garestiagoa da. Baina birziklatzen dena saldu egiten denez kostu totala txikiagoa da; hala adierazten dute Usurbilen burutu diren azterketek ere. Beraz, zerga igoera erraustegia eraikita baino txikiagoa izan beharko litzateke.

-“Errauskailuari ezetz esatea jarrera politiko bat besterik ez den susmoa daukat“. Orduan baietz esatea ere hala izango da, ezta?

-“(Errauskailuaz aparte) Beste alternatibarik ez dago oraingoz“. Bai, badago, atez ateko bilketa da, munduan zehar leku askotan martxan dagoena eta zabaltzen ari dena, gainera.

-“Flandesen... 10 errauskailu dituzte eta gu baino zorrotzagoak izan dira ingurumena zaintzen“. Badirudi Flandes proposatzen duela Aintzanek eredu bezala. Jakin beharko luke Flandesen martxan dagoen "zabor bilketa sistema" atez atekoa dela. Flandesko erraustegietan atez ateko bilketa egin ondoren birziklatu ezin daitekeena bakarrik erretzen dute. Beraz, Zero Zabor taldeak eta Aintzane ados gaude, Flandesko eredia jarraituz atez atekoa bultzatu behar da. Eztabaidagarria litzateke errefusarekin (zati birziklaezina) egin beharrekoa.

Kritika administrazioei, Deba ibaian gertatutakoagatik

Josu Garitaonandia
Bergara

1-Bigarren aldiz ibaia hiltzen laga dutelako.

2-Etsenplu txarra eman dute: Epelen ur fekalak isurtzeagatik,

depuratu gabe. Lantegiei presioa egiten ibili dira urtetan isurketak behar bezala egiteko, eta orain, beraiek lasai asko isurtzen dituzte depuratu gabeko urak ia bi urtetan.

3-Lehen ahateak hil zirenetik bi hilabete beteko dira eta ez dakigu ze neurri hartu behar dituzten berriz halakorik ez gertatzeko, ibaia hirugarren aldiz ez hiltzeko.

Argumentuak: Ibaian gora, Arrasate aldera itxura bikaina dauka; Epelen isurtzen diren ur fekalen ondoren, berriz, ibaia hilik dago, kirats galantarekin; eta Soraluzen arrainak daude. Nire ondorioa da Epeleko isurketa horrek ibaiaren hilketan zerikusia duela.

Administrazioek bazeukaten nahiko diru Epeleko depuradora bukatzeko, baina beste preferentzia batzuk dauzkate: AHT, autobideak, goi tentsioko kableak, gasaren Y... Proiektu erraldoiok Bergarakoei bereziki tokatu zaie sufritzea, baina, administrazioen ustez, sufrimendu hori ez da nahikoa izan eta 2010eko uda ezkero kirats galanta usaindu behar izan dute bergarar askok, eta orain, ibaiaren faunaren hilketarekin, Bergarakoak gehiago izorratzerik ez dago. Baina diru faltaren kontu honetan... erabili duten diru berdina zergatik ez dute beste era logiko batean erabili? Hau da, logikoagoa iruditzen zait Epeleko depuradora martxan ipintzea lehenago Mekolaldekoa baino. Ibaian behera dagoen depuradora martxan ipini eta ibaian gorago ur zikin guztiak isurtzen ibili, negozio ederra egiten dugu!

Administrazioak eman du honen erantzuna. Mekolaldeko depuradora eraikitzea Eusko Jaurlaritzaren ardura zen, baina Epeleko depuradoraren obren arduraduna Espainiako Estatua da. Bere garaian, Epeleko depuradora "interes orokorrekoa" ei zen, eta Eusko Jaurlaritzak enkajatu egin zion Espainiako Estatuari beraien arteko negoziazioetan Epeleko depuradora eraikitzearen ardura.

Epeleko depuradoraren kasuan, faltan sumatu dut ekologiarekiko interesa; administrazioek, eta denak aipatzen ditut, Diputazioak, Mankomunitateak, udalek... denek egin zezaketen zerbait gehiago ibaiaren hilketa saihesteko.

Hiru hilabete barru Epeleko depuradora %100eko errendimenduan egongo da; beraz, ur fekalen arazorik ez da egongo, baina administrazioak emandako "ur gutxi" egotearen arazoa eman dezake etorkizunean. Horrentzako ze plan daukate administrazioek? Nire proposamena: Urretxuko depuradora dela eta, Legazpitik Urretxurako tartean uda aldean ur gutxi egoten da ibaian; beraz, instalazioa daukate Urretxun depuratutako urak jasotzeko Legazpi aldera, ibaian urik falta ez dadin. Hortaz, begi-bistakoa da Epelen depuratutako urak (espero dut datorren urtean martxan egotea) Eskoriatza aldera altxatzeko instalazioa egin beharko litzatekeela...

Administrazioen gestio txarrak kontuan hartuz, ez litzaidake harrituko beste lantegi batzuek aprobetxatzea aukera isurketa kutsagarriak egiteko, baina hau suposizio hutsa da. Nik dakidana da Mekolalden bizi direnak urriaren 2an esnatu zirela aspaldiko usain berezi batekin, ehungintza-lantegien garaietan botatzen zuten usaina; baina orain ez dago ehungintza-lantegirik Bergaran! Mamuak izango ziren?

Misterioa argitzeko, Asier Altuna *Kixi* zinemagileari eskatuko nioke film bat egin dezan! *Aupa Etxebeste*-ren bigarren zatia Bergaran hutsik dagoen lantegiren baten, baten bat gelditu delakoan nago; beharbada, filma administrazioaren erreakzioa baino lehenago etorriko da.

Elkartasuna zinegotziei

Joseba Beñat Elortondo
(Oñatiko Udal Langileen Komitea)
Oñati

Oñatiko Udal Langileen Komiteak haxe azaldu nahi du Bildu koalizioko zinegotziak jasaten ari diren mehatxuen aurrean:

1-Udal Langileen Komiteak, udal langileen izenean, gogor salatu nahi ditu Bildu koalizioko udal zinegotzien aurkako kanpaina eta mehatxuak.

2-Udal zinegotziak herritarren gertuko ordezkariak direnez, herritarrok eta udal langileok babes jarrera tinkoa adierazten dugu.

3-Mehatxatzaileek jarrera

honekin ez dituzte zinegotziak bakarrik mehatxatu; zinegotziak herritarren ordezkariak direnez, Oñatiko herri osoari ere bota diote mehatxua.

4-Egoera latz honetan, udal langileen gertutasuna erabatekoa da.

Sexu jazarpenari stop, ekin alternatibari!

Ana Sebal Agirregabiria
(LAB sindikatua)
Bergara

Azaroaren 25ean Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, emakumeok gure bizitzako eremu guztietan pairatzen dugun indarkeria salatzera behartuta gaude beste urte batez.

Emakumeon kontrako indarkeria patriarka-sistemaren ondorioa da, sistema honek gizonen eta emakumeon artean ezartzen dituen botere harremanetan oinarritzen baita. Gizonekoei dominazio papera aitortzen zaie, emakumeoi menpekotasunarena egokitzen diguten bitartean.

Lan eremuan, patriarka-sistemak sexuaren araberako lan banaketa ezartzen du, eta honek emakumeon prekarietatea areagotu eta indarkeria sexista iraunarazten du; sexu jazarpena da adierazgarri larriena.

Emakumeon kontrako indarkeria orori, sexu jazarpenari barne, aurre egin nahi badiogu, prebentzioaz hitz egin behar da; finean, jendartearen ardura ere bada gisa honetako gertakizunak berriz ere ez izatea. Bada, LAB sindikatuak aspaldi aldarrikatzen du lan munduan parekidetasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzea enpresetan. Helburu honi jarraituz, 2008an ezagutaraztera eman genuen sexu jazarpenaren prebentziorako eta kasuen kudeaketarako protokoloa. Geroztik, protokolo hau lantokietan ezartzea izan da gure lana.

Hala ere, ez da nahikoa lan munduan LAB sindikatua horretan aritzea, jendarte osoaren eta, batez ere, botere politiko eta instituzioen inplikazio zuzenik ez badago. Izan ere, egun ez dago borondate politikorik hau aldatzeko. Beharrezkoak diren neurri integralak eta lege hauen jarraipena egiteko mekanismorik ezartzen ez den bitartean.

Hori guztia salatzeko, LAB sindikatuak azaroaren 25ean goizeko 11etan Bergarako plazan egingo den kontzentrazioan parte hartzeko dei egiten du. Ez lan munduan ez inon, emakumeon aurkako indarkeriari stop!

HERRIAK

ELGETA

Armagile baten soinu-banda

Jose Antonio Retolatzak urteak daramatza musikaren munduan pausoak ematen

ASIER ALKORTA | ELGETA

Armak eta musika. Hasiera baten, harreman handirik ez duten hitzak dira, baina elgetar baten bizitzari oso lotuta daude. Armagile izatetik musikari izatera pasatu den herritar bat. Musika bere zainetan daramana. Musika abesteaz gain, egin ere egiten duena. Artista da, hark, horrela deituta, lotsa sentitu edo ukatu egiten badu ere. Egiten duena ez da gutxi, eta dena belarriari esker. Jose Antonio Retolatzak *Altube*-k bere bizitzaren zertzelada batzuk eman eta gero, ez dago beste hitzik gaur egun bera dena deskribatzeko: gizon ona, lagunena laguna eta artista.

1943ko urriaren 31n jaio zen Retolatzak. Txiki-txikia zenetik musikak beti erakarri izan duela dio. "Ganadua zaintzera joaten ginenean aho-soinua jotzen nuen". Musikarekiko zuen interes hori On Juan Arretxe Elgetako abade eta orduko koruko zuzendariak bizitu zion. "Hark lagundu zidan musikan gehiago sakontzen". 8 urte zituenerako koruan abesten zuen. Hasierak izan ziren haiek.

Bizitza profesionala, aldiz, beste bide batzuetatik eraman zuen Retolatzak: "Armak egitea zen nire lana". Baina, tarteka-marteka, beti izaten zuen denbora musikaz arduratzeko.

Eta bai garatu ere. Urteek aurrera egin ahala, koruan egin duen ibilbidea luzatzen joan da. Geroz eta barnerago sartu da. Eta orain, gaur egun, Elgetako koruko zuzendaria da.

Dena belarriaz egin duela dio. "Ez dut musikarik ikasi, baina denborarekin gauzak barneratzen eta ikasten joan naiz".

Bere historia kontatzen duen bitartean ez du momentu bakar baten ere irribarrea ahotik kentzen. Eta atzean utzitako oroi-



Jose Antonio Retolatzak, Elgetako elkartearen kidea, bere abestiak bilduten liburua esku artean duela. | ASIER ALKORTA

tzapenak gogora ekartzean ere begiek dir-dir egiten diote.

Azken urteetako pausoak

Urte askoan abesten eta ahoko soinuarekin ibili eta gero, orain, duela urte gutxi, abestiak egiten ere hasi da Retolatzak: "Azken sei urteetan, gitarra hartu eta abestiak egin ditut. Baina horretarako denbora behar izaten dut. Negua izaten da abestiak egiteko garairik onena. Orduan, eguraldi txarrarekin, etxean, lasai-lasai, notak banan-banan ateratzen joaten naiz". Dena dela, hasieran, gitarra eskuetan hartu zuenean, atzamarrak soka artean ezin kokatuta ibiltzen zela dio.

Inork inoiz bere gitarra kontzertu bat ez duela entzungo badio

Retolatzaren abestiak liburuan bilduta

Abesti asko egin ditu Retolatzak orain arteko ibilbidean. Baina zirriborro modura Larrañagari pasatzen dizkion orri solteek forma hartu dute azkenaldian. Horrela, bere abesti batzuk hartuta, esku artean hartu eta irakurri edota interpreta daitekeen liburua du orain. Musikari askok eta askok bezalaxe.

Liburu osoa berezia bada ere, azken orriak benetan bereziak direla esan du: "Larrañagari eskainitako abestia dago jasota azken orrialde horietan. Abesti hori berezia da niretzako, baita Larrañagarentzako ere". Liburuaz harro dagoela dio, eta, bigarren edizio bat izango duen edo ez galdetuta, ez du ezezkorik esan.



Letrak eta partiturak liburuan. | A. ALKORTA

ESANAK

"Negua gitarra jotzeko urtaro proposa da niretzako"

J. A. RETOLATZA | MUSIKARIA

ere, bere abestiak lau haizetara zabaltzen dira. Izan ere, egin dituen abestiak Elgetako mezetan aire-ratu dira. Estreinakoz urriaren 31n, bere urtebetetze egunean, egin zioten opari hori. Eta pozik dago lorpen horrekin: "Pozgarria da nik egindako abestiak herriko jendeak mezan abestea".

Bada, musikan emandako aurrerapauso guztietan, Lorea Larrañaga Elgetako musika irakaslea beti izan du presente Retolatzak: "Lorea pertsona berezia da niretzat. Asko egin du nigatik eta biziki eskertzen diot egindako guztia".

Musikarekiko zaletasuna betidanik eduki badu ere, Larrañagak zaletasun hori garatzeko bultzadak behin eta berriz eman izan dizkiola aitortzen du. "Lorea beti egon da hor, laguntzeko eta ni animatzeko prest. Hari gauza asko zor dizkiot".

Ahotik, bihotzetik, begietatik

Musikak guztiz asetzen duela dio. "Gauean, lo hartu aurretik, beti entzuten dut musika".

Erreportaje xume hau egiteko oroitzapen asko ekarri ditu gogora Retolatzak. Eta, tarteka, isilik ere geratzen zen, urteak atzera egindakoa gogora ekartzeko. Bere begirada, aldiz, ez da isiltzen: bihotzetik eta ahotik musika irteten zaion neurrian, begietatik ere musika isurtzen du.

UNED

BERGARA

GIZARTE-LAGUNTZAN PRESTAKUNTZA

UDAZKENEKO IKASTAROAK

Osasun Mentalaren Psikologia

Iraupena: 20 ordu.

Matrikula epea: urriaren 1etik azaroaren 15era arte.

Komunikatzeko jarraibideak eta

gizarte-trebetasunak

Iraupena: 20 ordu.

Matrikula epea: : azaroaren 1etik 30era arte.

Oinarrizko masaje teknikak

ohean dauden pertsonentzat

Iraupena: 15 ordu.

Matrikula epea: azaroaren 1etik 30era.

Informazioa eta Matrikula

UNED-Bergara • San Martín Agirre plaza 4 • 20570 Bergara
Tel.: 943 76 90 33 • csoriano@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara ("gure ikastaroak" atala)



Urteko azken baserritarren azoka izango da biharkoa

Abendukoa, Santamasetako egitarauaren barruan; 2012ari begira baserritarren iritzia beharko du Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatuan egiten den baserritarren azokaren urteko azkena egingo da bihar. Azarokoa ere Seber Altube plazan egingo da, bihar, 09:00etatik 14:00etara. 11 postu egongo dira, eta postu horietan guztietan baserriko produktuak erosteko aukera egongo da. Baserritar guztiak ez dira arrasatearrak; Tolosako, Aretxabaletako eta Bergarako postu bana egongo da bihar.

Enplegu eta Garapen Ekonomiko Zerbitzuaren teknikari Marga Garmendiaren arabera, aurreko azoketan horren erantzun ona izan duen pintxo ekologikoen dastatzea ere egongo da, erosketak egiterakoan trukean emango zaion txartela erabilita. Erosketarik egin gura ez duenak pintxoak erosteko aukera ere izango du, noski.

Okela ekologikoa ere bai

Pintxo horietan produktu begitez gain, biharkoan okela ekologikoa egindako pintxoak ere dastatu ahalko dira. Aretxabaletako Mendibitzu baserriko okela ekologikoarekin prestatuko ditu pintxoak Jesus Romero sukaldariak: "Oraingoan usaina ezberdina izango da eta pintxo beroak dastatzeko aukera egongo da". Pintxoak nola prestatzen dituen ikusteko aukera egongo da, ber-



2011ko azken azoka egingo da bihar Seber Altuben (09:00-14:00). | ARTXIBOA

tatik bertara, eta errezetak eskatzeko eta zalantzak argitzeko aukera ere izango dute azokara doazenek. Eta noski, azokako bezeroen artean ortuko produktuekin betetako otarrearen zozketa ere ez da faltako.

2012rako, aurrekontuetan

2011ko ekitaldiaren balorazioa egiteko goizegi da oraindik. Balorazio hori egiteko ezinbestekoa da baserritarren iritzia, eta azaro amaieran edo abendu hasieran bilera egin ohi dute azokan parte hartzen duten baserritarrek eta Udaleko ordezkariak.

Bilera horretan, urteak eman duenaren balorazioa egiteaz gain, datorren urteari begira aurreikusten diren nobedade eta ekimen berrien gainean ere egingo dute berba. Garmendiak esan duenez, Udalak 2012rako aurrekontuen barruan aurreikusi du azoka, baina aurrera egingo duen erabaki aurretik baserritarren iritzia jaso behar dute.

DATUA

11

BASERRITAR POSTU AZOKAN

Arrasateko gain, Tolosa, Bergara eta Aretxabaletako baserritarrek egongo dira.

MINGAINARI TIRAKA



Mikel Oteiza, lanean. | MIKEL OTEIZA

Mikel Oteiza | Denetarikoa konponketak

"Mantentze-lana aurrezte da komunitateetan, eta lan hori merke egiten dugu"

Ostalaritzan, merkataritzan eta etxebizitzetan konponketa lan txikiak egiten ditu Oteitzak

J.B. | ARRASATE

Ostalaritzan esperientzia handikoa, lan arlo berriak ezagutzeko erabakia hartu zuen Mikel Oteitzak duela zenbait urte. Denetarikoa konponketak egiten ditu; San Andres auzoan duen Urmai kafetegian azaldu digu zertan dabilen.

Denetarikoa konponketak egiten dituzu. Noiz eta nola hasi zinen arlo horretan lanean?

Hiru edo lau urte daramatzat denetarikoa konponketak egiten. Ostalaritzan ere egiten dut lan eta tabernetan, adibidez, hamaka konponketa egin behar izaten dira.

Nire kasuan nik egiten ditut konponketak, baina beste askok ez dakite nora joan. Hutsunea ikusi nuelako eta hutsune hori betetzeko asmoz hasi nintzen arlo horretan lanean.

Zer-nolako enpresa da zurea?

Mantentze-lanez arduratzen den enpresa da, ostalaritzan, merkataritzan eta etxebizitzetan. Orain, gainera, erroka berriekin ari gara, bizilagunen komunitateetan, hain justu.

Komunitateon mantentze-lana kontratatzea aurrezte da epe luzera, ez gastu gehigarria. Horrela ulertzen dugu guk, eta

prezio ekonomiko bat ordainduta urte osoko mantenua egiten dugu. Eta ez mantentze-lanak bakarrik, erreforma osoak egiteko gai gara, baita erreforma horiek aurreikusi eta irudikatzen ere.

Nola egiten duzue lan?

Arazoak 48 ordutan konpontzen ditugu eta ordura egiten dugu lan. Ez dugu esku-hartze bakoitzeko kobratzen.

Hau da, gremio ezberdinetako arazo txikiak –esaterako, iturgintza edota elektrizitateari dagozkienak–, esku-hartze bakarrean konpon ditzakegu eta beraz, irteera eta beste hainbat gastu aurrezteko aukera ematen dugu.

Hau da, hiru arazo konpondu behar badira, hiru irteera, hiru ordu eta hiru ordainketa dakartzaz bezeroarendako. Gurekin ez da hori gertatzen (699 60 97 08).

"Esku-hartze bakarrean hainbat arazo konpon ditzakegu"

OHARRAK

1936AN JAIOTAKO EMAKUMEAK

Urte hartan jaiotako emakumeek bazkaria egingo dute bihar batzokian. Joan gura dutenek batzokian bertan eman behar dute izena, aurrez 10 euro ordainduta.

1976AN JAIOTAKOAK

Bihar, hilak 19, egingo dute ospakizuna. Herriko Plazan batuko dira, 12:30ean. Poteoa, bazkaria eta goatekea egingo dute.

Maskulinitutako lanetan emakumeen presentzia indartu gura du Udalak

Lanbideren enplegu sustapenaren barruan atera diren lanpostuetan emakumei deialdi berezia egin gura die Udalak. Maskulinitutako postuetara animatu gura dituzte emakumeak, puntuazio berezia emanda. Laguntza horren kanpoan geratzen dira dokumentalista, kale hezitzaile eta web diseinatzaileen postuak.

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74



Lehen mailako nesken partidua
Azaroaren 19an, larunbatean,
16:00etan, Mojategin (Arrasate)

Real Sociedad-Prainsa Zaragoza

Zuen zain gaude Mondrako nesken
25. urteurrena ospatzeko.
Anima zaitetz!

Azaroaren 22an, asteartean,
18:00etan, Mojategin (Arrasate)

Mondragon CF-Euskal Selektzioa

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Euskarak Osakidetzan duen egoeraz berba egingo dute eguaztenean

AEDk eta Behatokiak bailarako osasun zerbitzu publikoa euskalduntzeko neurriak exijituko dituzte

ASIER ALKORTA | ARRASATE
Arrasateko AED elkarteak *Duintasunaren bidea-Euskararen egoera Osakidetzan* izeneko ekitaldia antolatu du datorren eguaztene-rako. Hitzordua 18:30erako dago jarrita, Kultureteko Jokin Zaitegi aretoan.

Osakidetzan izaten diren hizkuntza-eskubideen urraketak partekatze eta arazo horri aurre egiteko Behatokiak abian jarritako ekimena izango da hizpide eguaztenean. Kepa Elortza oñatarrak bere garaian egindako salaketa azalduko dute eta aztergai izango dira salaketa horrek eragin dituen erreakzioak ere. "Elortzaren esperientzia lazgarria abiapuntutzat hartuz, ikus-entzunezko lan bat ere egin zen eta horrek oihartzun zabala lortu du; Eusko Legebiltzarreraino iritsi da".

Hala eta guztiz ere, AEDren eta Behatokiaren esanetan, Elortza ez da, tamalez, Osakidetzan hizkuntza-eskubideen urraketa sufritu duen bakarra. "Behatokiak urterik urte ondorioztatzen du,

herritarrek helarazitako kexak direla medio, osasungintzaren arloa dela euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez diren eremu nagusietako bat".

Horrekin guztiarekin, Behatokiak eragite-dinamika bat jarri zuen abian, eta, euskaldunen artean jarrera aktiboak bultzatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun zerbitzu publikoaren jokatibidea aldarazteko konpromisoa hartu zuen.

Orain, aldiz, egindako lanak eta izandako lorpenak eta erantzunak mahairatuko dira, bertan.

Dei zabala bailara osora
Ekitaldia Arrasaten bada ere, parte hartzeko deia bailara osora zabaldu du AEDk. "Keparen esperientziatik abiatuta, guztion egitekoa da bailarako osasun zerbitzu publikoa euskalduntzeko mugitzea eta neurriak exijitzea".

Ekitaldian, Kepa Elortza eta Garbiñe Petriati Behatokiko zuzendaria egongo dira.

Emakumeen jantzi eta janzkeren gaineko hitzaldia eguaztenean

A. ALKORTA | ARRASATE
Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteak *Emakumearen jantzi eta janzkera tradizionalak azken 100 urteetan, atontzeran garrantzia: tailer teoriko-praktikoa* hitzaldi-tailerra antolatu du azaroaren 23rako. Hitzordua 18:00etan dago jarrita, Kulturaten.

Ane Albisu Iriarte izango da hizlaria. 35 urtean jantzi tradizionalaren gaineko ikerketa eta ekimenetan parte hartu eta gero, Albisuk Arrasatera ekarriko ditu jasotako ondorioak.

Albisuk *Atundu, XXI. menderako proposamena* liburua argitaratu zuen 2006an eta gaur egun, Donostiako San Telmo museoko jantzi eta ehun ondarea aztertzen dabil.



Zapiak ere izango dira aztergai. | G.

Horrez gain, diseinu arloan ere hainbat lan egindakoa da.

Bada, hitzaldi-tailerrera joaten direnek, teoria ezagutzeaz gain, teoria hori praktikara eramateko aukera ere izango dute.

Jose Maria Arizmendiari buruzko mahai ingurua egingo dute astelehenean Kulturaten

Astelehenean Jose Maria Arizmendiarieta Mondragon Corporacion Cooperativa (MCC) kooperatibaren sortzaileari buruzko berbaldia egingo dute Kultureteko areto nagusian, 19:00etan. Arizmendiarietaren heriotzaren 35. urteurrenaren harira egingo dute hitzaldia eta Arrasateko eta Bergarako artzapezgoak eta Arizmendiarietaren Lagunak elkarteak antolatuta dago. Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaina eta Jose Maria Ormaetxea Arizmendiarietaren laguntzailea egongo dira bertan.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Iluna-Fidel&Discipulo	2-6
Dublin-Abokajarro	7-4
Lasagabaster-Dribling	2-5
AT. Betrayer-Aston Birra	6-4
Mcawen-Sonografos	6-4
Aldatz-Iritzu	3-3
Iluntz-Ekaltz	5-1
Portaboleiros	Atsedena

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Dublin	6	2
2 Fidel & Discipulos	6	2
3 Dribling	6	2
4 Aldatz	4	2
5 Mcawen	3	2
6 AT. Betrayer	3	2
7 Sonografos	3	2
8 Iluntz	3	2
9 Ekaltz	3	2
10 Abokajarro	3	2
11 Iritzu	1	2
12 Lasagabaster	0	2
13 Iluna	0	1
14 Portaboleiros 2.0	0	1
15 Aston Birra	0	2

PARTIDUAK

Azaroak 19, zapatua
10:30 Aldatz-Iluntz / Iritzu
11:30 AT Betrayer-Iritzu / Iluntz
12:30 Dublin-Aston Birra / AT Betrayer
16:00 Iluna-Dribling / Sonografos
17:00 Lasaga-Sonografos / Dribling
Azaroak 20, domeka
11:30 Portaboleiros-Abokajarro / Ekaltz
12:30 Mcawen-Ekaltz / Portaboleiros

Topasex GAI EZBERIDNEN FOROA

Zure gogoa interesatzen zaigu
Puntu bakoitzaren

TOPASEX

Zatoz bai zatoz!

Sexologia zerbitzua

Zure gogoa

Zatoz bai zatoz!

TOPASEX

SEXUALITATEAREN INGURUKO TOPAGUNEA

FOROA MARTXAN

Zure gogoa interesatzen zaigu
Zure jakinmina ezagutu nahi dugu

Desioa, masturbazioa, erotika, jolasa,
beldurrak, kezkak, ereduak...

www.sexologiazerbitzua.com

Udalaren egoera ekonomikoa: delikatua, baina ez dramatikoa

EAJk eskatuta, egoera ekonomikoaren gaineko osoko bilkura monografikoa izan zen astelehenean

EDU MENDIBIL | BERGARA

EAJko udal taldeak eskatuta, Udalaren egoera ekonomikoari buruzko osoko bilkura monografikoa izan zen astelehenean. Zifra asko ibili ziren dantzan ordu eta erdi luzez. Aitor Iturriaga kontu-hartzaileak adierazi zuenez, halako egoera ekonomiko larriarik ez du ezagutu. Haren arabera, administrazioaren egoera delikatua da, baina ez dramatikoa. Gauza bera esan daiteke Bergarako Udalaren gainean: "Horrenbeste zantzaz sortzen da egun batetik bestera makroekonomian... Euroa desagertu egingo dela, BEZa puntu bat edo bi puntu igoko dela, Raxoiren gobernuak lege ekonomiko zorrotzak jarriko dituela dirudi... Gure menpe ez dauden inkognitak dira, baina marjina bat dugu oraindik etorkizunari lasaitasun apur batez aurre egiteko. Ekonomia kontuetan serioak izan gara Euskal Herrian, ekonomia legeak beste inon baino hobeto errespetatu direlako. Baina epe ertainean gauzak okertu egin daitezke neurriak hartzen ez badira. Emaizta baikorrik ez dut urteetan espero".



Bergarako udaletxea. | EDU MENDIBIL

Zorpetze maila

Udalaren zorpetze mailari dago-kionez, bankuekiko zorra jaitsi egin dela adierazi zuen Udaleko kontu-hartzaileak: bankuekin 10 milioi euroko zorra eta Diputazioarekin 1.370.000 eurokoa izango du Udalak urte amaieran. Azken urteetan Udalak mailegurik eskatu ez duenez, bankuekiko zorra

behera egin duela esan zuen kontu-hartzaileak. Etorkizunari begira, gastu arrunta kontrolatzeko garrantzia azpimarratu zuen; hau da, pertsonal gastuak, erosketak (azpi-kontratazioak tartean) eta Debagoieneko Mankomunitateko kuota eta dirulaguntzen kontrola eraman beharko ditu Udalak. Batzordeetan gastu arrunta kon-

trolatzeko neurriak lantzeko premia azpimarratu zuen Iturriagak. Adibide moduan, Tolosa eta Gabiriako udalen kasua aipatu zuen: argiteriarekin aurrezteko neurri eragingarriak hartu dituzte han.

EAJren kezka

Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak haxe adierazi zuen: "Udalaren egoera ekonomikoa ez dago gastuak gehitzeko. EAJko udal taldeak etorkizuna kezkaz ikusten du. Gobernuak hemendik aurrera hartzen dituen erabakiek Udalari urte askotarako eragina egin diezaiokete. Zuhurtziaz jokatzeko garaia da eta inbertsioak erakartzea ezinbestekoa da. Gure apustua herriko industriaren, komertzioaren eta zerbitzuen sustatzea ezinbestekoa da". Udalaren Plan Estrategikoa dela eta, Udalaren erabakiak noren esku egongo diren galde-tu zuen Oiarbidek. Haren ustez, erabakiak hartzeko ardura gobernuarena da, ez herritarrena. Jesus Elortza alkateak haxe erantzun zion: "Dudarik ez. Gobernuak hartu beharko ditu eraba-

kiak, baina herrien nahien arabera jokatu dugu". Lauri Askargorta Ogasun batzordeko buruak esandakoaren arabera, egoera ez da hain txarra, gastuak ahal den neurrian mantenduko dituzte eta Plan Estrategikoaren ondorioen zain daude.

Juan Jesus Alberdi EAJko zinegotziaren ustez, presio fiskal handia da Udalaren ezaugarrietako bat. "Bergarako bakoitzak 700 euro eta piku ordaintzen ditu, beste udaletan baino 300 bat euro gehiago". Maileguak eskatzeko orduan inolako mugarik ote dagoen galdetuta, oraindik maileguak eskatzeko kapacitate handia dagoela esan zuen Iturriagak. Presio fiskalari dago-kionez, inspektzio fiskal propioa izateagatik kobrantza beste hainbat herritan baino zorrotzagoa dela eta Bergarak beste udalen tributu antzerakoak dituela adierazi zuen.

DATUA

11,3

MILIOI EURO

Zorra urte amaieran:
10 milioi bankuekin;
1,3 Diputazioarekin.
Aspaldian mailegurik
eskatu ez, eta bankuekiko
zorra txikitu egin da.

OHARRAK

SAN JOXEPEKOAK LIZARRARA EGUENEAN

Azaroaren 24an Lizarrara joateko irteera antolatu dute erretiratuak. Egun osoko irteera izango da eta autobusa 08:30ean irtengo da autobus geltokitik. Irache Hotelean bazkalduko dute. Izen-ematea eta argibideak erretiratu-tan: 943 76 21 40.

AUTOBUSA KANTUTXAPELKETA- KO FINALERA JOATEKO

Bergarako Nau taldea (Maitane, Garazi, Olatz, Miren eta Markel) eta Sara Manzano bakarlaria Gipuzkoako kantu txapelketako finalean lehiatuko dira azaroaren 27an Donostiako Printzipal antzokian. Finala ikustera joateko autobusa antolatu du Musika

Eskolak. Autobusa 15:00etan irtengo da autobus geltokitik. Izen-ematea Musika Eskolako idazkaritzan egin daiteke azaroaren 22a baino lehen. Edozein argibidetarako 943 76 57 80 telefono zenbakira jo dezakezue.

LASAI-TOKIREN LUNCHA ERRETIRATUENDAKO

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Lasai-Toki elkarteak herriko erretiratuendako luncha iragarri du abenduaren 8rako. Lasai-Tokin izango da luncha, 12:00etatik 14:00etara.

PLAZA LIBREAK ESPERIENTZIA ESKOLAN

Mugabek eta Udalarekin elkar-lanean Bizikasik antolatutako Espe-

rientzia Eskolan plaza libre batzuk gelditzen dira oraindik eta izen-ematea martitzenera arte, hilaren 22ra arte, dago zabalik. Argibideak: 943 76 93 94 (Miren).

KEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, keinu hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendarrendako dira. Has-tapen eta sakontze mailak izango dira, urtariletik maiatzera. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira. Argibide gehiago Aransgi-ko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefonon.

'GAZTAÑATAN' EGITARAU OSINTXUN

Osintxuko *Gaztañatan* azaroa egitarauaren barruan, domekan, hilaren 20an, gaztetxoendako zinema emanaldia izango da ludotekan, 17:00etan. Azaroaren 21ean, berriz, Arimen Eguna ospatuko dute Osintxun eta gaztainak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da auzoko plazan, 19:00etan hasita.

1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 26AN

1939an jaioetako bergararrek bazkaria egingo dute azaroaren 26an Pertxan, 14:30ean. Aurretik Frontoian batuko dira, 13:00etan. Izen-ematea ondoko telefono zenbakietan egin daiteke: 943 76 24 79

(Eulali Elgarresta) edo 943 76 28 58 (Pello Garitano).

1966KOEN HITZORDUA AZAROAREN 26AN

1966an jaioetako bergararrek afaria egingo dute azaroaren 26an. Batzokian afalduko dute, 22:00etan. Hala ere, 19:30ean elkartuko dira Ariznoa tabernan. Izen-ematea Ariznoa tabernan, azaroaren 7tik 24ra. 10 euro ordaindu behar dira fidantza moduan.

1945EKOAK HILAREN 26AN BATUKO DIRA

1945ean jaioetakoek afaria iragarri dute azaroaren 26rako. Azpeitxi jatetxean afalduko dute. Izen-ematea Azpeitxin bertan, 25 euro aurreratuta.





Mariaren Lagundiko eraikin berria Gabonetan eraitsiko dute. | E.M.

Mariaren Lagundiko 'eraikin berria' botako dute

Gabonetako oporrak aprobetxatuta eraitsiko dute eraikina, 63 etxebizitza eraikitzeko

EDU MENDIBIL | BERGARA
Gabonetan botako dute Mariaren Lagundiko *eraikin berria*. Asmoa zen joan den abuztuan botatzea, baina lanak atzeratzen joan dira,

eta, azkenean, abenduko oporraldian egingo dituzte lanok. Arduradunen arabera, 15 bat egun beharko dituzte Erregetxo plaza aurreko eraikina botatzeko.

63 etxebizitza

Ez da garairik onena etxeak egiteko, baina, Ortubairko ordezkarien arabera, behin merkatu-ikerketa txiki bat egin ostean, udaberri aldera etxeak eraikitzen hasiko dira. Proiektuaren arabera, 12 etxebizitza babes ofizialekoak izango dira; beste 13 tasatuak; eta 38 etxebizitza libreak.

Ortuibarrek eta Jabier Arregiren Lotzen enpresek egingo dituzte etxebizitzok. Sustatzaileen arabera, dagoeneko hainbat jendek azaldu du interesa, batez ere eraikina botako zutela zabaldu denean herritarren artean. Izan ere, eraikinaren lekuan etxeak egiteko proiektua aspaldikoa da, eraikina erosi zutela 11 urte betetzear baitira.

Mariaren Lagundiko eraikina 1960ko hamarkadaren hasieran hasi ziren egiten eta ikasle asko eta asko igaro dira hango geletatik. 1990eko hamarkadaren bukaeran utzi zion Mariaren Lagundiak *eraikin berria* erabiltzeari. Eraikineko ikuskizun aretoak ere aspaldi jaitsi zuen *teloia*. Azken urteotan herriko hainbat elkartek lokalak izan dituzte han, Udalak utzita.

NIRE USTEZ

AITZIBER AZKONDO



Bideojokoen inguruko ikasketak

Aspaldian, teknologia berriei erlazioz arituko korrante berria da hizpide. Bideojokoen industria. Gertuko adibide, pasa den astean Bilbon ospaturiko Fun&Serious Game Festival. Hau guztiau errealitate bihurtzeko programazioan eta artean oinarrituriko ezagutza espezializatua behar da eta pasa den irailetik badugu heziketa mota hori jasotzeko aukera.

Hiru urtetan zehar lanean aritu ondoren, puntako ingeniarriz eta arte digitalean oinarritzen diren ikasketak eskaintzen dituen DigiPen Ins-

titutu Teknologikoaren egoitza inauguratu dugu. Europan izango duen egoitza bakarra da eta Euskal Herrian dago, Zierbenan. Bertatik aterako dira etorkizuneko ingeniari eta artistak, eta hauen artean debagoiendarrak daude, Oñati eta Aretxabaleta-koak.

Bideojokoetan oinarritutako teknologia ezagutu eta barneratuko dute, simulazioa, adimen artifiziala, errealitate birtuala, artea, animazioa hiru dimentsiotan... etorkizunean aplikatu beharreko puntako teknologia, alegia.

Sektore hau etorkizuneko sektore gisa izendatu dute hazkunde ekonomikoan izan dezakeen eragin handiagatik eta Debagoiena ordezkatzeko dituztenak dagoeneko lanean dabil-tza.

"Sektore hau etorkizuneko sektore izendatu dute"

Erreileno, tostoi eta txokolate dastatzea bihar Muniben, herriko gozogileen eskutik

E.M. | BERGARA
Mankomunitatearen eta Bergarako Turismo Bulegoaren eskutik, erreileno, tostoi eta txokolate dastatzea izango da bihar, zapatua, Munibe plazan, 19:00etan hasita. Hain zuzen ere, euro baten truke merienda gozoa hartu ahal izango da.

Bergarako produktu ezagunenaren promozioa egiteaz gain, biharko ekitaldiarekin antolatzailerik herriko gozogile tradizioaren lana aitortu nahi dute nolabait. Hain zuzen ere, Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozotegietako ordezkariak Muniben izango dira bihar, euren produktuak saltzen eta erreileno eta tostoiaren gaineko azalpenak ematen. Dastatzeak irauten duen bitartean Musika Eskolako ikasleek jarriko dute musika, giroa alaitzeko. Era berean, gozogileen lana erakusten duen bideoa ere erakutsiko dute Munibeko ekitaldian.



Juanje Amasorrain eta Justina Elexpuru zinegotziak, herriko gozogileekin. | UDALA

Abenduaren 11ra arte

Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako jardunaldi gastronomikoak IX. ekitaldira iritsi dira. Bada, parte hartzen dutenen artean bi pertsonarenda-

ko afaria zozketatuko dute; jardunaldien balorazio inkesta bete behar da zozketan parte hartzeko. Abenduaren 11n bukatuko dira jardunaldiak. Argibideak: www.turismodebagoiena.com.

Alai Taldeak kalejira egingo du martitzenean, Santa Zezilia musikarien eguna ospatzeko

Martitzenean, hilaren 22an, Santa Zezilia musikarien zaindarien eguna ospatuko da. Alai Taldeak aurten ere ez du hutsik egingo: kalejira –edo txikiteoa abestuta– egingo dutela iragarri dute Alai Taldea abesbatzako kideek. Bidekurutzetan, Guria taberna parean hasiko dute ibilbidea, 19:00etan. Ondoren, Barrenkalean, Irala kalean eta frontoian egingo dute kantuan.

Hurrengo asteburuko liburuen truke azokarako bilketa ari dira egiten Jardunen, kultura etxean

Jardunek euskarazko liburuen truke azoka antolatu du azaroaren 25erako eta 26rako San Martin plazan. Azokarako liburu bilketa hilaren 24ra arte egingo dute Jardunen, kultura etxean, aste barruan, 09:00etatik 13:00etara 15:00etatik 19:00ak arte. Eramandako liburu bakoitzeko txartel bat emango zaie partaideei. Ondoren, txartel bakoitza sailkapen bereko edozein libururengatik trukatu ahal izango da azokan. Argibideak Jardunen, 943 76 36 61 zenbakian.

Alfonso Romeraren margoak Nahikari tabernan eta Maite Azkargortaren erakusketa Raizabalen

Alfonso Romerak 21 margolan jarri ditu ikusgai Masterrekako Nahikari tabernan. Rikardo Azkargortaren ikaslea da Romera aspaldian. Bestalde, Arteakaleko Raizabal gozotegian ere erakusketak egiten hasi dira; Maite Azkargortaren margolanak izango dira ikusgai hurrengo astera arte. Ondoren, Pili Azkarateren erakusketa jarriko dute Arteakaleko dendan.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraiaeta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

CLINICA DENTAL BERGARA

Bidekurutzeta 36 behea
20570 **BERGARA**
Tel.: 943 76 05 77

ZERBITZU INTEGRALA
Behar duzun espezialitatearen araberrako lantalde profesionala.

- Odontologia orokorra
- Protesiak
- Inplanteak
- Endodontzia
- Hortz-estetika
- Ortodontzia (Doako azterketa)
- Periodontzia

ESTREINATU IRRIBARREA

Inplante tratamendua:

- Azterketa eta aurrekontua doan.
- Inplante unitario osoa, gehienezko prezioa 112 €/ hilabeteko*
- * Urte baterako finantzaketa

ASEGURUAK
DKV / Previaa • Aegon • Mapfre • Sanitas
Adeslas / IMQ / Iquimesa • Santa Lucia
Previsora Bilbaina • Ocaso

Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetza programara

Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!

RPS 99/94

Euskadi etorbideko autobus geltokia lekuz aldatzeko proposamena

Aita Lizarralde kalean ipintzeko eskaera egin dio Udalak Foru Aldundiari

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Euskadi etorbideko autobus geltokiak lekuz aldatzeko proposamena egin dio Udalak Aldundiari. Zergatik Aldundiari? Euskadi etorbideetik kentzen dituzten geltokiak Aita Lizarralde kalera eroan gura dituztelako eta errepide hori Aldundiarena delako. "Aldundiko Mugikortasun zuzendariarekin bildu ginenean esan zigun begi onez ikusten zuela aldaketa, baina errepidea euren ardura zenez Aldundiko teknikariek ikusi behar zutela guk proposatutako aldaketa posible zen edo ez", esan digu Zerbitzuak batzordeko buru Josu Lizarralde.

Udalak Aldundiari egindako proposamenean, autobus geltokiak Aita Lizarralde eta Kalegoiena kaleetan ipintzea eskatzen du. San Lorentzotik Arrasatera doazen

autobusak Kalegoieneko biribilgunean ipini duten zebra bidearen ondoan geratuko lirateke. Aldiz, Arrasatetik Oñatira datozenak Aita Lizarralde kalean, San Martinera joateko zubiaren ondoan. "Metro batzuetako distantzia egongo da batetik bestera, baina ez dugu parez pare ipintzeko aukerarik", dio Lizarralde.

Autobusak herrigunetik kanpo Herrigunetik autobusak ateratzeko asmoz erabaki du Udalak Euskadi etorbideko geltokia aldatzea. Portu kalean eta Santa Marinatik Euskadi etorbidera hartzeko bidegurutzean sortzen diren arazoak saihesteko. "Portu kalean, tabernaren parean, autoak gaizki aparkatuta badaude, autobusa ezin da pasatu. Bestalde, Euskadi etorbidean stop egiten duten autoek leku txikia uzten diote autobusari. Bi arrisku horiek ekiditeko hartu dugu erabakia", dio Lizarralde zinegotziak.

Pauso hori emanda, beste hainbat ditu esku artean Udalak autobusak herrigunetik kentzeko; besteak beste, ikastetxeetara ikasleak eroateko autobus handiak kendu eta txikiagoekin ikastetxe gutzietako ikasleak eroatea.



Aita Lizarralde kalean, San Martinera joateko zubiaren ondoan ipiniko dute autobus geltokia. | MIREIA BIKUÑA

Bilduko udal taldeak jasotako mehatxuen kontrako mozioa onartu zuten aho batez

M.B. | OÑATI

Bilduko udal taldeak eta bereziki Josu Lizarralde zinegotziak etxeko postontzian jasotako mehatxuak salatzeke mozioa aho batez onartu zuten martitzenean. Bilduko eta EAJko zinegotziek mozioa onartzearen alde bozkatu zuten.

Bilduko udal taldeak aurkeztutako mozioak lau puntu ditu: gatazkaren irtenbidea sustatzeko dagokion jarduera instituzionalean urratsak egiteko konpromisoa hartzea; kargu politikoen aurkako mehatxuak behin betikoz alde batera utz daitezen eskatzea eta zabaldu den garai berriari

jarri nahi zaizkion oztopoak amaitzea; elkartasuna adieraztea mehatxatuak izan diren udal hautetsi guztiei; eta udalbatzak bere gain hartzea horren ondoriozko balizko gastu judizialak.

Gainera, elkartasuna adierazi zioten Josu Lizarralderi eta azpimarratu zuten halako mehatxuek maiatzaren 22an hasitako bide berria "oztopatu" egin gura dutela: "Baina ez dute lortuko".

Lourdes Idoiagak EAJren izenean elkartasuna adierazi zion Lizarralderi, eta mozioari baiezkoea eman aurretik haxe esan zuen: "Kargu politikoen kontra-

ko mehatxuak behin betiko alde batera utz daitezen eskatzen dugu".

Eta Josu Lizarralde hartu zuen hitza azkenik. Osokoen aretoan bilduta herritarren txalo zaparrada jaso ondoren, emozio-natuta eskerrak eman zizkien alkateari, Bilduko gainerako zinegotziei eta Lourdes Idoiagari erakutsitako elkatasunarengatik; eta familiari emandako babesarengatik.

Udal langileen komitea

Bestalde, Udalaren webgunean eta etxean jasotako mehatxuak direla-eta, udal langileen komiteak oharra kaleratu du. "Gogor" salatzten dituzte Bilduko zinegotzien kontrako kanpaina eta mehatxuak, eta gaineratu dute mehatxuak "herritarrek aukeratutako ordezkarien" kontrakoak direla.

Argindar kablea lapurtu zuten zapatu gauean Azkoagainen

M.B. | OÑATI

Zapatu gauean lapurtu zuten Azkoagainen futbol zelaiko argindar kablea. 1.000 bat metro kable. "Kutxatilik jaso eta kabletik tira egin dute. Autoren baten laguntza behar izan dute tira gogor egiteko", esan digute Aloña-ko ordezkariak.

Taberna eta aldageletako kablea ez zuten ukitu. Azkoagainen dauden hiru argi-posteen kablea lapurtu zuten –poste bakoitzak sei foku ditu–. Astelehenean argi-poste bat konpondu zuten, eta taldeek argi gutxi-

rekin baina entrenamenduak egin zituzten. Udal langileek eta beste enpresa bateko langileek konpondu dute arazoa. Hori horrela, aste bukaerako partidua normal jokatu dute; tartean, domekako Aloña-Mondra derbia.

Beste futbol zelai batzuetan Lehen aldia da Azkoagainen argindar kablea lapurtzen dutena. Bada, Aretxabaletako eta Arrasateko futbol zelaietan ere kableak lapurtu dituzte orain dela gutxi.

Herriko jokalaria eta punta-puntako maisuak lehiatuko dira gaztelekuko xake txapelketan bihar

XVII. xake txapelketa jokatu dute bihar gaztelekuan, 09:00etan hasita. Herriko jokalariek eta punta-puntako maisuek suitzar era azkarrean jokatu dute, sei itzulitara. Bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte. Guztira, 1.035 euro banatuko dituzte saritan; besteak beste, 140 euro lehen oñatiarrarendako eta 105 euro gazte mailako lehen oñatiarrarendako.

Meza nagusia esango dute Uribarri auzoko ermitan domekan, San Andres jaien ospakizunak bukatzeko

San Andres jaiak ospatuko dituzte Uribarrin gaurtik domekara arte. Etxafuego jaurtiketarekin hasiko dituzte festak eta ondoren, 22:00etan, mus txapelketa jokatu dute. Bihar, haurrendako jolasak egingo dituzte, 16:00etan; eta 21:00etan, auzo afaria Sorluzen. Domekan, jaiak bukatzeko meza izango da, 12:00etan; eta ondoren, luncha egingo dute, bertsolari eta trikitilariekin.

Blues, funk eta rock doinuak gaur Antton tabernan Sumision City Blues taldearekin

Antton tabernan hitzordua dute gaur bluesa, funka eta rocka maite dutenek. Sumision City Blues gasteiztarrek zuzeneko egingo dute 20:00etan. Euren azken lana aurkeztuko dute. Eskorbuto, Cicatriz, Muddy Waters eta Gram Parsons taldeen ukituak dituen taldea da. Esperientzia handiko musikariak ditu: Sexty Sexers eta Los Padrinos taldeetan ibilitakoak dira, hain justu.

Ganbara Txikiko taldeek Santa Zeziliaren omenezko kontzertua egingo dute bihar Santa Anan

Tailerretako hiru taldeek, Ganbara Txikitxok, Ganbara Txikik eta Ganbara Gaztek egingo dute kontzertua bihar, 19:30ean, Santa Anan. Ikasturteko lehen emanaldia izango da, eta azken asteotan entseututako kantuak abestuko dituzte. Talde bakoitzak kantu sorta bat eskainiko du, bakarka, eta bukaeran elkarrekin abestuko dute guztiek.

Jostailuen gaineko erakusketa egingo dute Txaloka ludotekan hilaren 26an eta 27an

Oñatiko Udalak antolatuta eta AHK enpresak zuzenduta jostailuen gaineko erakusketa egingo dute hilaren 26an eta 27an Txaloka ludotekan (11:00-13:00 eta 17:00-20:00). Erakusketa baino askoz gehiago izango da: gurasoek informazioa eskatu ahal izango dute, kezkak argitu, jostailuak probatu, gomendioak eskatu eta jaso...

EAJko zinegotziek ez dute jaso 'Aurrekontuak Herrijorran' egitasmoaren zirriborririk

Aurreko asteko GOIENA paperean idatzi genuen *Aurrekontuak Herrijorran* egitasmoan parte hartu duten herritarrek eta EAJko zinegotziek esku artean zutela batzarretatik jasotako proposamenen zirriborroa. Bada, EAJko kideek esan digute oraindik ez dutela ezer jaso. "Hilaren 7rako agindu ziguten zirriborroa, eta oraindik ez daukagu ezer", esan digu Lourdes Idoiagak.

OSASUNA

ALBERTIA ETXEA:
adinekoen egoitzaren beste eredu bat

BULARREKO MINBIZIA:
prebentzioaren garrantzia

ERRETIROA:
bizitza berriaren hasiera

EDERSALUD:
osasuna, kanpotik eta barrutik

ERREMEDIOAK:
herriko jakintza herrikoendako

ETA GAUZA GEHAGO
BARRUKO
ORRIALDEETAN!



Zentzu komuna, Albertia Etxeko ardatz nagusia

Ireki berri duten Albertia Etxea zaharren egoitzen beste eredu baten adibide da; Miñeon dago (Araba) | TXOMIN MADINA

Berri usaina da nagusi duela gutxi ateak ireki dituen Albertia Etxea egoitzan. Berritasuna, baina, ez da lau solairuko eraikin modernora mugatzen. Egoitzaren planteamendua bera eta funtzionamendua ere berritzaile kontsidera daitezke.

Zugandik hurbil da Debagoienetik gertu, Arabako Miñeo herrian dagoen egoitzaren leloa, eta, arduradunen esanetan, ez da lelo soila, lan egiteko filosofia baten laburpena baizik. Arduradunen esanetan, zentzu komuna da egoitzaren antolaketa; pertsonak oinarri hartzen dituen anto-

laketa, ez programa zurrunetan eta gehiegizko teknifikazioan oinarritutakoa.

DENA ALDA DAITEKE

Izan ere, behin adin batera heldutakoan, askotarikoak izan daitezke zaharren egoitza batera joateko arrazoiak: bakarrik geratu diren adinekoak izan daitezke, baita euren kabuz moldatzeko gauza ez direnak ere. Eta beharrak, gainera, ez daude derrigorrez egoiliarren adinarekin lotuta; izan ere, egon daiteke 65 urteko pertsona bat alzheimer gaitza duena edo 85 urteko beste pertsona bat osasunez ondo dagoena.

Esan bezala, lau solairu ditu Albertia Etxeak, horietako bat mendekotasun handia duten egoiliarrendako izango dena. Baina egoitzaren ezaugarrietako bat da dena alda daitekeela; egoiliarren beharren arabera, momentu batean gauza bat dena handik gutxira beste gauza bat izan daitekeela. Ezer ez dago betiko finkatuta, eta horren adibide da telebista bera. Askotan, ohitura izaten da telebista beti leku berean egotea eta, azkenean, guztien arreta bereganatzen duen elementua izatea. Albertia Etxean, baina, telebista ere mugitu ahal izango den elementu bat izango da, batzuetan gelan egongo dena



Miñeon dago Albertia Etxea (Araba), naturaz inguratuta. | ALBERTIA ETXEA

eta beste batzuetan ez; betiere, programatuta dauden ekintzen arabera.

Aldaketaren filosofia, baina, logeletan ere antzeman daiteke; izan ere, logela hutsak dira,

dekorazio bakoak. Zergatik? Momentu horretan logela hori bizileku duen pertsonak bere erara antola eta apain dezan, esaterako, etxean zeuzkan koa-



Arrasateko Iturbide egoitza. | GOIENA

Debagoieneko zaharren egoitzak

Gipuzkoa osoan, Debagoienak dauzka nagusien erresidentzietan sartzeko itxoin-zerrenda txikiak. Hala, Gipuzkoako egoitzetan, batez beste, eskaera eginez geroztikako itxoinaldia 191 egun den neurrian, gure ibarrean 75 egunera jaisten da egun kopurua. Adineko pertsonendako egoitzetara sartzeko, Bergara aldean (Bergara, Antzuola eta Elgeta) hamar lagun zeuden zain eta Leintz ibarrean (Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Leintz Gatzaga), 49 (Gipuzkoa osoan, 843); eguneko zentroetan sartzeko, Bergara aldean lau eta Leintz ibarrean zortzi (Gipuzkoan, 205). Debagoienean 499 leku daude bost egoitzetan.

ITURBIDEN 104 leku daude, 78 mendekotasun handia dutenendako eta zazpina burujabe handi eta txikiendako.

MIZPIRUALDEN 110 leku, horietatik 104 hartuta: 57 mendekotasun handia dutenendako, 28 mendekotasun larria dutenendako, 11 mendekotasun moderatua dutenendako eta zortzi burujabeendako.

SAN MARTINEN 83 leku, horietatik 60 mendekoendako.

GSR DEBAGOIENEAN 170 leku: 97 hitzartuak, eta plaza gehienak mendekotasun handia dutenendako dira.

MESEDEETAKO AMAREN EGOITZAN 32 leku mendekotasun handia dutenendako.

PATXI DEL CAMPO | ALBERTIA ETXKO ALOR TEKNIKOAREN ZUZENDARIA

"Beti mugimenduan baina beti orekan egotea bilatzen dugu"

Albertia Etxean duen karguaz gain, MAP Institutuaren zuzendaria ere bada (Musika, Artea eta Prozesua). Zaharren egoitzen gainean planteamendu ezberdina egiten dute, eta planteamendu horren gakoez eta xehetasunez berba egin dugu harekin.

Albertia Etxea ez da egoteko leku bat bakarrik; zentzu zabalean, bizi izateko leku bat ere bada, ezta?

Etxean egingo genituzkeen ekintzak egitea da asmoa, betiere egoerara egokituta. Hala, norbaitek etxean otoitz egiteko ohitura badu, zergatik ez dugu sortuko otoi talde bat? Beste batzuei, akaso, paseatzea gustatuko zaie, eta lorategian egon daitezke; beste batzuei eztabaidatzea, eta hor eztabaida talde bat sortu...

Egoitza, gainera, ez da bertan daudenendako bakarrik; gauzak horrela, diseinatu dugu egoitza bat familia guztientzako izango dena, denekin egiten dugu lan. Egoitza askotan, oso programazio itxiak egoten dira, eta horrek familiarekin haustea ekar dezake. Gure asmoa da familiek egoitzan egiteko zerbait izatea, bisitatzea etortzea, baina antolatzen diren ekintzetan ere parte hartzea.

Eta hori nola lor daiteke?

Familia bizimoduarekin kontziliatu ahal izateko eta egoitzan sartzean munduarekin ez hausteko ere, programazio kultural zabala prestatzen ari gara. Hiritartasun aktiboa deitzen dena mantendu gura dugu. Hala, asmoa da helduen abesbatza batek hilean behin egoitzan bertan entseatzea; beste kolektibo batzuekin ere elkarlanean ari gara egoitza euren topaleku izan dadin. Ez dugu gura egoiliarrek komunitatearekin duten harremana etetea, ezta komunitateak adinekoekin haustea ere. Asmoa da ikasleen egoitza baten tankerakoa izatea, non eskaintza kultural handia dagoen.

"Egoitzak asko modernizatu arren, zentzu komuna galdu da"

Programa kultural horretan, gainera, ekimen asko familia osoarendako diseinatutakoak izango dira. Adibide bat jartzearen: egoitzan txotxongilo antzerki bat jartzen badugu, norbaitek esan dezake alzheimerra duen amama batek ez duela jarraituko, ez diola kasurik egingo. Baina amama hori ilobarekin badabil antzerkia ikusten, eta ilobak eskutik heltzen badio, akaso ez da konturatuko ikusten ari denaz, baina ilobaren maitasuna sentituko du. Baliteke iruditzea ekintza batzuk ez daudela adinekoendako diseinatuta, baina hori, nire ustez, akatsa da. Denendako, familia osoarendako ekintzak dira, eta horrek onurak ekarriko dizkio adinekoaren ongizate psikologikoari.

Bestalde, badakigu familiendako oso gogorra dela adineko bat egoitza batera eroatea, eta gu kontziente gara horretaz. Gauzak arintzeko, norbait familia bisitatzerakoan ez dugu gura bisita aurrez aurre eserita egotera mugatzea; hori ekitideko programazioak ari gara prestatzen. Egoitzan dagoen senidea zati aktibo bat da. Elkarbizitzarako ekintzak diseinatzeko ardura ez da bakarrik lantalde teknikoarena, familiarena eta egoiliarrena ere bada.

Esango zenuke esparru hori, alor hori ez dela behar beste landu?

Nik uste dut azken urteotan asko espezializatu izan direla zaharren egoitzak eta galdu egin dela zentzu komuna eta giza kalitatea, pertsonen arteko harremana. Horregatik, ez zaigu gustatzen esatea

talde tekniko, giza taldea baizik. Zergatik? Interneten sartu eta zaharren egoitzen bila hasiz gero, batzuetan igerilekuak ere aurki ditzakezu; egoitza beharrean, hotelak dirudite. Gure kasuan, azpimarratzea gustatzen zaiguna da egoiliarren eta haren familiaren inguruan lanean dabilen giza taldea garela.



LORATEGI SENTSORIALA

Baliabideei dagokienez, egoiliarren beharrei moldatutakoak izan dira. Hala, baliabide horiek funtzionalak eta erabilera askotakoak dira, antolatzen dituzten



Baratzeen altuera, egoiliarren beharretara egokituta dago. | ALBERTIA ETXEA

kultura eta aisialdiko ekitaldietara eta ekintza terapeutikoetara egoki daitezkeenak. Musika gelak daude, baita fisioterapia-rakoak ere.

Eraikina naturaz inguratuta dago, naturarekin harreman zuzenean, eta harreman hori estutzeko baliagarria da lorategi sentSORIALA. Bertan, askotarikoko elementuak daude: batetik, kolorez betetako landareak; baina baita baratzeak ere, makurtu ezin direnenedako edo gorpil-aulkian ibili behar dutenendako altuera egokian jarritakoak. Laku bat ere izango du lorategiak, baita txoriei jaten emateko guneak ere.

GIZA KAPITALA

Arduradunek lantaldearen garrantzia azpimarratu gura dute; haiek ere "dena alda daiteke" filosofiarekin bat egiten dutenak, eguneko momentuaren arabera funtzio bat edo beste bat izango dutenak. Laguntzaile batek, esaterako, bere interesen arabera, egoitzako bloga kudea dezake, edo lorategiko lanetan ibili. Langileek astetako lana izan dute trebatzeko orduan; horrez gain, ez dituzte aginduak bakarrik hartzen, eurek ere proposamenak egiten dituzte. MAP Institutuaren eta Cuidados Dignos Fundazioaren laguntza eta aholkua ere jasotzen dute.



Patxi del Campo. | ALBERTIA ETXEA

Momentu batzuetan, egin beharreko guztiak egoitzara datorren pertsona batek dituen beharretara egokitzea izango da guk egin beharrekoa. Guretzat erronka da, programazio gurutatuak ari gara egiten. Detalle moduan, esan dezakegu fisioterapeuta aldi berean piano-jotzailea ere badela, eta, ondorioz, fisioterapia musika-rekin eta mugimenduarekin lotuta egongo dela. Lantaldeko kideek norabide baten baino gehiagotan lan egin ahal dute. Horri esker, pertsona bat datorrenean ez dugu betiko lan bera egingo, pertsona horri egokitutakoa baizik: kontuan hartzen dugu nor den eta zer egin duen bizitza osoan. Teknikariak pertsona bakoitzaren arabera diseinatu behar dituzte jarraitu beharreko bideak. Baina interaktibitatea ere garrantzitsua da. Ez dugu nahi izatea guk agindu eta egoiliarrek bete.

Zein da, zure ustez, Albertia Etxearen ezaugarri nagusia?

Talde moduan bilatzen duguna da beti mugimenduan egotea, baina, era berean, beti orekan egotea. Zaharren egoitza bat ez da geldi dagoen zerbait. Denon esku dago, bai langileen eta baita egoiliarren esku ere, egoitzak kolore gehiago izatea, mugimendu handiagoa izatea, dinamikoagoa izatea eta oreka harmonikoagoa izatea. Hori denon artean lortu beharreko zerbait da; betiere. ardatza galdu gabe: zaintza fisikoa, psikologikoa eta espirituala. Azken hori, zaintza espirituala, zentzurik zabalenen hartu behar da. Ez da ahaztu behar zaharren egoitzara, azkenean, hiltzera goazela. Gogorra den arren, horrela da. Baina gauzak ondo egiten baditugu, azken momentu horretan era hurbilenean lagun diezaiokegu, norberak diseinatu gura duen moduan. Lantaldeak jaso duen formazioaren zati handi bat izan da hiltzen laguntzen ikastea. Une horretan gauzak ondo egiten baditugu, gogoratzeko orduan pisu handiagoa izango dute gauza positiboek gauza negatiboek baino.

MAP Institutuaren eta Cuidados Dignos Fundazioaren aholkua eta laguntza jasotzen duzue. Zer dira bi erakunde horiek eta zein esparrutan dira lagungarri?

Bi erakunde horiekin elkarlanean arituko gara. MAP Institutuaren aldetik, bertako talde tekniko osoa egoitzaren diseinu teknikoan buru-belarri lanean dabil: bai ekintzak antolatzeko, baita jendeari laguntza eman eta zaintzeko ere. 25 urtetik gora daramate musikoterapiaren espezializatutako master bat eskaintzen, eta dagoeneko badute pertsonengan zentratutako atentzioa nola garatu lantzen duen diseinua eginda. Hori erabiliko dugu Albertia Etxean. Cuidados Dignos Fundazioa da beste bazkide bat, gure asmoa da-eta loturarik gabeko egoitza izatea: jendea ez lotzea ohera, gauean mugitu egiten delako, edo medikamentu gogorrik ez erabiltzea ohetik ez jaikitzeke. Oso gogorra iruditu daiteke metodo hauek erabiltzea, baina erabiltzen dira. Gure alternatiba da, esaterako, ohe baxuak erabiltzea, alzheimerre duen gaixo bat jaikitzen bada ez erortzeko. Langileen formazioa ere eskatzen du, baita kontzientziazio handia ere.

"Interaktibitatea garrantzitsua da: ez dugu gura izatea guk agindu eta eurek bete"



albertia etxea

zugandik hurbil...

Pertsona nagusiendako eta egonaldi laburretarako egoitza

Albertia Etxea

- Zentro gerontologiko berria eta eroso, non eguneroko bizitza erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen den
- Bi eremu ditu, erabilera askotarikoa eta egokitutakoa; gainera, lorategi sentSORIALA dago naturarekin etengabeko kontaktuan egoteko
- Zentro honetan ekintza kultural komunak eta irekiak antolatzen dira, familiaren elkarbizitza eta parte-hartzea errazteko

Laguntzen duten guneak, laguntzen duten pertsonak

Garraio zerbitzu propioa

Miñao, 23
01510 Gasteiz- Araba
945 12 44 25 • info@albertiaetxea.com
www.albertiaetxea.com



Txomin Murgiondo | Doktorea

"Bularreko minbiziaren kontra, prebentzioa"

Bularreko minbiziaren gainean galdetuta, prebentzioak duen garrantziaz egin digu berba Txomin Murgiondo doktoreak; baita nork bere bularrak aztertzen jakiteak duen garrantziaz ere | XABIER URTZELAI

Txomin Murgiondo doktoreak 32 urte daramatza bularreko minbiziaren kontra lanean (Donostia, 1954) eta urte hauetan guztietan borroka horren alde egin diren aurrerapenak azpimarratu ditu. Hasteko, medikuek izan duten espezializazioan.

Minbiziaren aurrean, prebentzioa. Halaxe da. Emakumeek sexu-harremanak izaten hasten direnetik, edo 25 urte dituztenetik, euren burua zaindu behar dute bularreko minbizia prebenitzeko: medikuarengana joaten hasi behar dute esplorazio klinikoak egiteko; eta, beste alde batetik, nork bere bularrak aztertzeko ohitura hartu behar du.

Gaztetatik hasita.

Bai; izan ere, askotan, ematen du 50 eta 65 urte artean egon ezean ez dagoela ia arriskurik, eta hori ez da horrela. Egia da zenbat eta nagusiagoak izan orduan eta aukera handiagoak ditugula minbizia izateko, baina ez pentsa gazteek ez dutenik arriskurik. Kasu ezohikoak dira, baina 20 urteko neskek ere badituzte tratamenduan.

Emakumearendako noiz da bularrak aztertzeko momentu aproposa?

Nork bere bularrak esploratzeko momentu egokiena da hilerokoa izan eta 4-5 egunera, bularrak bigun daudelako. Hilean behin 10 bat minutu hartzea nahikoa da. Bestalde, ginekologoarengana urtero joan behar da, eta mamografia egiten hasi 35 urterekin.

Eta zelan egiten da azterketa?

Lehenengo, nork bere bularrak zelakoak diren jakin behar du; ez dira lauak, eta gune gogorak eta biguinak dituzte; horrez gain, denborarekin aldatzen doaz. Azterketa ondo egiteko komenigarria da ispilu aurrean egotea. Besoak altxatu eta buru atzean ipinita ikusiko dugu bularretan zerbaitek ezohiko itxura hartzen duen; adibidez, bularrak ez duela normalean moduan atzera egiten, titi-puntak ez direla hondoratzen... Gero, etzan egin behar da eta, besoak buru atzean ipinita, bularra osorik ukitu, eta ez zatika; titi-puntak estutu behar ditu, eta besapeak ere ukitu.

Gipuzkoan, urtero, bularreko minbizia duten 350 kasu diagnostikatu dira. Kopuru handia da.

Bai, baina, zorionez, diagnostiko kopurua jaitsi egin da azken urteotan, eta hilkortasuna oso txikia



Txomin Murgiondo doktorea, Arrasateko Consultorio Ginecologico zentroan. | XABIER URTZELAI

da; ospitaleetan tratatu dituzten gaixoen %90 bizirik daude minbizia izan eta 10 urtera.

Kontrara, lasaigarria da ikustea medikuntzarako horretan ze abantaila egin duen.

Emakumeek geroago eta prestakuntza handiagoa dute, eta bai, kontzientziazio maila ere handiagoa da. Gogoan dut lehenago emakumeak guregana etortzen zirenean, kasu askotan ez zegoela ezer egiterik, gaixotasuna oso hedatua zegoelako, tumore bilakatuta. Gaur egun, horrelako oso kasu gutxi ikusten ditugu, medikuarengana inoiz joaten ez diren emakume edadetuak izaten dira.

Bestetik, azken urteetan tratamenduak asko hobetu dira, lehenago ginekologoak arduratzen zirelako bularrak azterteaz. Ginekologiek, baina, gerritik beherakoak ezagutzen dituzte ondo, baina ez horrenbeste bularretako gaitzak, eta hor espezializazio handia egon da. Horrez gain, geroago eta botika hobeak daude eta geroago eta teknika hobeak; eta esan behar da mamografoak medikuon aliatu onena izaten jarraitzen duela, beste teknika batzuekin batera.

Badira mamografoak botatzen duen erradiazioaz arduratzen direnak.

Urte hauetan guztietan hainbatetan entzun dudana kontua da hori, eta garbi esan nahi dut mamografoak botatzen duen erradiazioa minimoa dela, huseria. Eta alderantziz, aipatu dudana moduan, gaur egun medikuok bularrak ondo aztertzeko dugun aliatu onena da. Alde horretatik, nik garbi dut mezua: mamografoa ez da etsaia, minbizia baizik.

Aurrekoan telebistan mediku batek azpimarratzen zuen berbek zelako eragin positibo edo negatiboa izan dezaketen pertsonengan. Ez dela gauza bera gaixo bati esatea minbizia duela edo esatea denon laguntzarekin erronka handi bati aurre egin behar diola.

Garbi dago kontuz ibili behar dugula, nahiz eta badiren min-

bizia duzula bat-batean esaten duten medikuak. Eta badira hori eskertu egiten duten pazienteak ere. *Minbizia* berba bat-batean botatzea nik ez dut atsegin, zakar geratzen da eta aurrean duzunari ez diozu batere laguntzen. Gauza bat dago argi, pazienteari ezin diozu inoiz gezurrik esan, baina gauzak esateko moduak daude. Nik, esaterako, beste termino batzuk erabiltzen ditut: "Bularrean irten zaizun koskor honekin kontuz ibili behar dugu, gertutik jarraitu behar dugu, ez dut atsegin, susmagarria dela iruditzen zait...". Pazientea ez da tontoa, eta ebakuntza-gelara sar-

tzen diren guztiek badakite zer duten.

32 urte hauetan ezustekoak ere handiak izango ziren.

Bai, eta horregatik ere kontuz ibili behar izaten dugu pazienteari ematen diogun mezuarekin. Gertatu izan zait pentsatzea pertsona batek gaitza gainditu duela eta handik bi urtera oso txarto ikusi. Eta kontrara, gaixotasuna oso hedatua zuen emakume bat kontsultan izan, haren alde gutxi zegoela egiteko pentsatu eta handik urteetara kalean ikusi, lasai.

Modan daude bularrak handitzeko edo txikitze operazioak. Operatu aurretik jendea etortzen da zuengana gomendio bila?

Galdera ona da hori. Gaur egun estetika operazio bat egin aurretik derrigorrezkoa da mamografia bat egitea eta dena ondo dagoela ikustea, eta, zorionez, medikuek ondo betetzen dute hori. Zergatik? Lehenago, halakorik egin barik operatzen zutelako eta sekulako ezustekoak hartzen zituztelako. **Internetek mesede edo kalte egiten dio bularreko minbiziaren gainean arduratuta dagoenari?**

Internet erreminta ikusgarria da, baina ondo erabili behar da, zabor asko dagoelako hor. Badira informatzeko webgune serioak, onak. Informazio onena, baina, medikuak emango dizu.

"Emakumeak bere bularrak zelakoak diren jakin behar du"

"Zorionez, hilkortasun tasa oso txikia da egun"

"Mamografoa da medikuon aliatu onena"

"Bularreko operazioaren aurretik, egin mamografia"

Edersalud zentroa: herritarren eskura

Consultorio Ginecologico lekuz aldatuko dute, eta izen berria jarri; zerbitzu osoagoa eskaintzea da helburua | **XABIER URTZELAI**

Antxon Galianak (Donostia, 1957) onartu digu Consultorio Ginecologico taldean lokal berriaren gaineko apustuak ilusio handia sorrarazi duela: "Ez bakarrik Arrasateko zentroan –lehenengo Consultorio Ginecologico–, baita Gipuzkoan ditugun gainerakoetan ere (Eibarren, Irunen eta Donostian), gure profesionalak hainbat zentrotan pasatzen dutelako kontsulta. Badakigu egungo egoeratik halako apustuak egiteko unea ez dela erraza, baina debagoiendarrei zerbitzu osoagoa eskainiko diegu; apustu ausarta da, lanerako gogoz gaude".

LOKAL BERRIA

Arrasaten Zerkaosteta kalean dagoen Consultorio Ginecologico lekuz aldatuko dute, Nafarroa etorbidera –Etxebideko etxeetara–, eta aurrerantzean izen berria izango du: Edersalud. Aldaketa, baina, ez da lokalera edo izenera murriztuko. Orain arte Consultorio Ginecologicon eskaini duten gertuko zerbitzuarekin

jarraituko dute –profesional talde berarekin–, baina zerbitzu osoagoa eskainita. Izan ere, Edersalud medikuntza zentroan nutrizioa, fisioterapia eta kirurgia orokorra ere eskainiko dituzte: "Edersalud izenak ez du edertasun fisikoarekin harremanik, eta bai ondo egotearekin, osasuntsu sentitzearekin. Izan ere, Edersalud zentroa ez dugu gaxorik egotearekin lotzen, eta bai osasuntsu mantentzen lagunduko digun erreminta modura. Izan ere, ginekologian lanean dabiltzanek adierazten digutenez, guregana etortzen diren emakumeen %85 erabat osasuntsu daude; beste barik, osasun azterketak egitera etortzen dira: ekografia bat egitera etortzen dira, bularren azterketa bat... erabat beharrezkoak diren azterketak, bestalde".

Azterketa horiek guztiak konfiantzazko medikuarekin egiten dituzte eta horrek medikuaren eta pazientearen artean harreman estua sortzen du: "Pentsa, gure zentroan familia osoaren jarraitpena egin izan dugu, amamak



Antxon Galiana, egoitza berriaren aurrean, Nafarroa etorbidean. | X.U.

ditugu, eta baita haien bilobak ere. Eta hori oso lagungarria da jarraipen hobe egiteko".

Edersalud taldeko gerentearen esanetan, egoitza berrian metro koadro gehiago izateak zerbitzu hobe ematea ahalbidetuko du:

"Orain dugun metro koadro kopuruaren ia bikoitza izango dugu Edersaludeko zentro berrian (300 metro koadro). Lokal zaharrean aldaketak egin izan ditugu, berrikuntzak egin izan dizkiogu... baina dagoeneko txiki geratu

Edersalud: 33 laguneko taldea

Edersalud-en 33 laguneko profesional lantaldea izango da pazienteen zerbitzura: "Hainbat espezialitatetako 12 mediku ditugu Edersalud zentroan, eta haiekin batera 19 mediku laguntzaile. Horrekin batera, *staff*-a osatzen duten beste bi laguntzaile ditugu. Berritasunen artean, Quiron klinikako fisioterapeuta Haritza Cristobalek kontsulta pasako du Arrasaten eta nutrizionista ere izango dute Nafarroa etorbidean egongo den egoitza berrian: Bea Zulueta.

zaigu eta egoitza berrian nahi duguna da zerbitzu hobe eskaintzearekin batera jendea erosoago egotea. Gela handiak izango ditu zentro berriak, eta horrek lagunduko du jendea kontsultan erosoago sentitzen. Ni ez naiz emakumea, baina badakit, esaterako, ginekologoarengana joatea ez dela oso atsegina. Aldi berean, baina, guregana lasai etortzen direla esaten digute, tratua ona izaten dutelako eta konfiantza ematen diegulako".

ETENGABEKO INBERTSIOA

Arlo pertsonalean konfiantzazko medikuak izatearekin batera, Edersalud zentroan puntako aparatuak erabiltzen dituzte, arlo guztietan: "Teknika aurreratuak erabiltzen ditugu, medikuntza etengabe aldatzen doalako, aurreratzen. Ekografian egiten diren aurrerapenak, mamografian... analisi klinikoak egingo ditugu... Horrek guztiak behartzen gaitu etengabeko inbertsioak egitera, bai tresnerian eta baita gure profesionalak prestatzen.

Zerbitzuak

Ginekologia
Mamografiak
Densitometria
Kirurgia orokorra
Análisi klinikoak
Fisioterapia
Nutrizioa

Consultorio Ginecológico
Miramón

Tokiz aldatu eta
EDERSALUD osasun
zentroan integratu gara.



Helbide berria:

Nafarroa etorbidea, 4 Arrasate
Tel.: 943 79 20 18

edersalud
CENTRO MÉDICO





Belen San Torcuato, Bergarako kultura etxe aurreko berdegunean. | MAIDER ARREGI

Erremedioen indarra gurean

Medikuntza tradizionala eta erremedioak lagunak dira | MAIDER ARREGI

Medikuntza tradizionalak itzal egin die betiko erremedioei. Baina berriro azalatzeko, erakusteko helburuaz jaso dituztela kontatu digu Belen San Torcuato bergararrak. "Gure

helburua izan da medikuntza tradizionala eta erremedioak bateragarriak direla azaltzea; batak ez du bestea kentzen. Horregatik, betiko erremedioak azalatu, batu ditugu". Gure kulturaren ondarea dira. "Hipokrates mediku greziarrak zioen zientziak

ez duela inoiz oharkabeen pasatzen utzi behar herriko jakintzari esker frogatu dena", esan digu.

Emakumeen papera ere nabarmendu gura izan digu: "Emakumeengandik jaso ditugu erremedioak. Haiek bideratu, irakatsi

eta belaunaldiz belaunaldi transmititu dituzte".

Jendeak medikuntza alternatiboaz gero eta gehiago jakin nahi duela esan digu San Torcuatok: "Kasu askotan interesa piztu da oso efektiboak direlako; bestetan, aldiz, etxean dauzkagulako osagai asko eskura. Horrek ez du esan nahi zerbait konkretua duzunean beste aldera jo behar ez denik". "Arrasateko Ospitalera jo genuenean laguntza eske, hango medikuak esan zigun gauean semeak eztula zuenean kipula jartzen ziola", dio.

TXIKITATIK IKASITAKOA

Etxean betidanik ikusi izan ditu Belen San Torcuatok erremedioak. Gerora, interesa piztu eta ikastaroak jaso ditu; erremedioen eta osagai naturalen gaineko liburuak irakurtzen dituela esan digu: "Anaje Narbaitzarekin proiektu hau abiatu nuenean, gauza asko, berriak ikasi nituen".

Bada, betiko erremedio baten gainean galdetuta, txikitan, heste-zizarendako berakatzak ditu gogoan. "Txikitan, berakatzak soka baten sartu eta lepoan jartzen genituen heste-zizareen aurka egiteko. Behatzeko ospelendako, aldiz, berakatzak igurzten genituen".

Zaurientzako ere badaude erremedio naturalak: "Ebagi-belarra edo iodo-belarra erabiltzen genuen. Merkrominaren efektu bera daukate".

ANIMALIENDAKO BAITA ERE

Ganaduari katarroa sendatzeko, oso ohikoa zen gatzeta eta ardoa nahastu, eta bizkaraldean igurtziak ematea; eta ondoren mantekin tapatu. Asun-ura ere ematen zitzairen. "Animaliak zaintzea pertsonak zaintzea bezala zen garai hartan. Garrantzi hori jaso gura izan dugu DVDan".

Katarroarendako erremedioak


BERBENA

Katarroarendako, berbenarekin egindako enplastuak. Zuringoarekin zartaginetik pasatu, tortilla moduan egin eta zapiarekin batuta eztarrian jar daiteke. Sinusitisa dutenek bekokian ere jar dezakete.



EZTIA, KIPULA ETA LIMOI-URA

Batek baino gehiagok azpimarratzen duen erremedioa da; eztiarekin eta kipula egosiarekin egindako xarabea. Limoi-ura eztarriarendako ere askotan aipatu eta erabili da. Limoiak dituen berezitasunei esker, aurrez prebenitzeko ere balio du. Baita gargarak egiteko ere, eta eztarria zaintzeko.



ABARKETA ZAHARRAK

Garai baten abarketa zaharrak jartzen zituzten bular aldean, labean bero-bero egin ostean. Buztin-enplastu beroak ere jarri izan dituzte. Kukurruku-eztularendako, berriz, hau da, eztul bortitzarendako, petrolio-tantak hartzen ziren lehen.



Mitarte 5 | ARETXABALETA
www.m5denda.com
Telf: 943.54.09.55



ATEAK ZABALIK DITUGU

%100 ADITUAK

○ sport moda



○ mendia eta eskalada



○ trail running

































Enplegutik erretirora: beste bizitza baten hasiera

Gorputz, buru eta animu aldetik bizimodu osasungarria egitea aukeratzen dute erretiratuek | LEIRE KORTABARRIA

Erretiratuak gero eta gazteagoak, osasuntsuagoak eta prestatuagoak dira. Bizitzako etapa berri horri zuku guztia ateratzeko mila aukera dituzte, eta haiek aprobetxatzeko gertu daude. Gorputz, buru eta animuarendako osasungarriak diren bizimoduak aukeratzen

dituzte gure erretiratuek: lehen egin ahal ez zituzten zaletasunei berriz eusten diete, etxebizitzari beste buelta bat ematen diote edo jendarteari norbere aportazioa egiteko lanean hasten dira.

Horren guztiaren adibide dira orri honetan aurkezten dizkizuegun hiru erretiratu debagoien-darrak.

PEDRO ETXEBARRIA | ERRETIRATU ARETXABALETARRA

"Nagusien duintasuna beste edozeinen parekoa da"

Pedro Etxebarriak 64 urte ditu, eta erretiratu zenetik, gaztetako bere grinari eutsi dio: "Mundu hobe egiten lagundu nahi dut".

Erretiratuen antolakuntzan oso aktiboa zara, ezta?

Bai; Basotxoko kultura batzordeko kidea naiz, Debagoieneko batzordean ere banago, eta Gipuzkoako federazioko idazkaria naiz. Basotxoko kultura eragile gisa, Elkarriketa Mahaiak antolatzen ditugu:

taldetan, gai baten inguruan berba egiten dugu. Bi helburu ditugu: gaia bera, batetik, eta jendeak elkarrekin berba egiten ikas dezan, bestetik: nagusien aberastasunetik eta esperientziatik asko irteten da; eta hitz egiteko ohitura ez dutenek konfiantza hardezakete. Arrazoitutako iritziak ematen dira, denok errespetatuz eta giro lasaian. Bestalde, Basotxoren abesbatzan nabil, eta dantza taldea sortu berri dugu.

"Basotxon nabil, federazioan, elizan... ez naiz aspertzen, ez!"

Elizan ere bazabiltza lanean...

Parrokian, hausnarketa eta elkarriketa talde bat daroat, nire adineko jendearengan fedea lantzeko; bestalde, urte asko daroat guraso talde bat koordinatzen, eta ezkontutako bikoteen talde batekin ere lan egiten dut. Aretxabaletako

batzorde pastoraleko kidea naiz.

Aspertzeko astirik ez duzula dirudi.

Hala da. 12 urte nituenean sortu zen nigan mundua hobetzeko grina, eta erretiroa hartu

nuenean denei esan nien horren alde lan egingo nuela. Baketik-en errekontziliazio ikastaro bat egin dut, eta uste dut oso beharrezkoa izango dela hori guztia hasi dugun une historiko honetan.

Denbora librean, zer egiten duzu?

Eguenak mendira joateko gordetzen ditut: 2 eta 5 ordu arteko ibilaldia egiten dut. Fisikoki ariketa bete-



LEIRE KORTABARRIA

garria da. Basotxokook ere irteerak egiten ditugu: aurrekoan, Nerbioiko eta Goiuriko ur-jauziak ikustera joan ginen, eta oso polita izan zen jende nagusia hain ilusio handiarekin eta hain gustura ikustea. Gura dugu nagusia izan dadila protagonista, bere duintasuna beste edozein pertsonaren berbera delako.

Bestalde, goizero-goizero, ordu erdi ematen dut prentsa irakurtzeko, eta arratsaldean ere irten egiten dut, emaztearekin.



LEIRE KORTABARRIA

MILA MARTINEZ DE ZUATZO | ERRETIRATU OÑATIARRA

"Erretiratuok aktibo jarraitu behar dugu, nork bere erara"

Mila Martinez de Zuatzok Pake Leku elkarteko euskara ikastaroan laguntzen du; euskal dantzak eta paseatzea ere gustatzen zaizkio.

Pake Leku elkarteko euskara ikastaroetan parte hartzen duzu. Zelan animatu zinen?

Berbalagun gisa etortzen naiz, euskara ikasten dabiltzanei berba egiten eta lotsa edo beldurra ken-

"Euskal dantzak ikasten hasi, eta iaz Aratusteetan irten ginen"

roak ere badaude. Baina neuk ere asko ikasten dut: nik etxean ikasitako euskara dakit, eskolan-eta dena gaztelaniaz egiten zen orduan, eta gehiago ikasteko gogoia neukan. Pili Irazabal irakasle ohiak ematen ditu eskolak astean bi egunetan, eta neu ere etortzen naiz. Ikastaroa bera Pake Lekuko kultura batzordekook antolatu genuen.

Eta zelan animatu zinen batzordean sartzera?

Bazkide egin eta lasterrera eskaini zidaten batzordekide izatea, eta azkenean animatu egin nintzen. Aurten ez nago dagoeneko batzordean. Esan behar dut eskaintza handia dagoela: udaberriari ongi-etorri jaia, erretiratuen astea, azaroan egiten dugun aste kulturala, abesbatza...

Euskara taldeaz gain, beste ikastaroren batean parte hartzen duzu?

Bai: euskal dantzak ikasten ditut. Oso politik iruditzen zitzaidikidan eta ikastaroan izena eman nuen. Zeretik hasi nintzen, baina iaz irten nintzen taldearekin batera, Aratuste-dantza egitera. Oñatz dantza taldearekin ikasten dugu. Bestalde, dantza suelta ikastaroak ere badaude. Margogintza ikastaroa ere egin nuen.

Beste ikastaro asko ere badaude Pake Lekun: orratz-lanak, gurutze-puntua, bitxigintza...

Ze beste zaletasun dituzu?

Betebehar gisa dauzkatz irakurtzea eta paseatzea; beestalde, astean bi egunean pilates gimnasia egiten dut. Interneten ere ibiltzen naiz batzuetan.

Zure iritziz, zein da erretiratuok eta nagusiek gizarteen izan behar duten papera?

Jendartean parte hartzea oso garrantzitsua da, eta hori egiten jarraitu behar dugula uste dut. Ez da bizitza aktiboa eten behar; norberak aukeratuko du zer egin: kartetan jokatu, bidaiatu... baina aktibo jarrai dezatela.



LEIRE KORTABARRIA

IÑAKI INDA | ERRETIRATU ARRASATEARRA

"Ortuan, lagunekin, bidaiatu, margotu... ez naiz geldirik egoten"

Iñaki Inda arrasatearrak 76 urte ditu. Zaletasun askoko gizona da eta denak egiteko modua du orain.

Zer moduz?

Oraintxe bukatu dugu etxean igo-gailua ipintzen. Azken bi urteotan horrekin buru-belarri ibili naiz, eta utzi egin behar izan diot egunero-ko ibilaldiari.

Askok ibiltzen zinen, ala?

Astelehenetik eguenera, egunero 16 kilometro egiten nituen Arrasateetik Aingeru Guardaraino, bai.

Baina zaletasun guztiak ez zenituen alde batera utziko...

Ez, ez: egunero prentsa irakurtzen hasten dut eguna; gero, batzuetan ortuan ibiltzen naiz; asko bidaiatzen dut; margotu ere egiten dut; argazkiak ateratzea asko gustatzen zait... Egun osoan ez naiz gelditu ere egiten!

Non daukazu ortua?

Etxe Txikietan; izan ere, ni hantxe

"Etxe Txikietan jaioa naiz eta hantxe dut oraindik ortua"

jaioa naiz, eta txikitan aitarekin ibiltzen nintzen hantxe. Hortaz, niretako betiko gauza bat da ortua. Denbora baten, ez zitzaidan gustatzen, baina orain berriz zaletu naiz. Baba beltzak, porruak, azak, ilarrak, zerbak... ateratzen ditut.

Zeuk prestatzen dituzu gero?

Ez, emazteak; baina Udalpen bazkide naiz eta han, lagunartean, afaria egiten dut batzuetan.

Noiztik margotzen duzu?

11 urte daroat margotzen. Amaia Bengoarekin nabil ikastaroan. Neuk egindako hainbat lan dauzkagu etxean zintzilikatuta. Argazkiak ateratzen ditut eta haietatik margotzen dut. Argazkiak diskoetan gordetzen ditut. Bidaiatzen dudanean kamera eramaten dut. Hara, oraintxe etorri gara Paristik...

Beste non izan zara, gogoan duzula?

Abaroako bidaietan eta gure kabuz antolatutakoetan joan izan naiz. Leku askotan izan gara; New Yorken, Txilen... leku askotan.

Erretiratu bizitza gustuko duzu...

Bai, oso gustura bizi naiz. Zerrajeran egin nuen lan 12 urtean, gero Fagorren, eta 13 urte daroat erretiratuta. Pozik nago.



Iñaki eta Nerea Lete, M5 dendan. | ASIER ALKORTA

Iñaki eta Nerea Lete | M5eko arduradunak

"Material teknikoaz gain, kalerako arropa ere saltzen dugu M5en"

Mendiko ekipamendua eta kaleko arropa daude salgai M5en | A. ALKORTA

Zer eskaintzen du M5 denda?

Mendiko ekipamendu osoa daukagu salgai dendan. Motxilak, sokak, kamisetak, txamarrak, oinetakoak... Denetarik daukagu. Horrez gain, kaleko arropa ere saltzen dugu. Gauza teknikoaz gain, bestelakoak ere badiugu. Eta bezeroak zer edo zer berezia nahi badu eta berton ez badaukagu, katalogo bidez eska dezakegu. Beraz, ikusten denaz gain, gauza gehiago ekartzeko zerbitzua ere eskaintzen duzue?

Bai, noski. Azken finean, guk markekin funtzionatzen dugu. Izan liteke marka bateko kamiseta bi bakarrik edukitzea dendan, baina, gero, eskaerak katalogo bidez egiteko aukera daukagu. Eskaladarako materiala ere badaukazue, ezta?

"Adin guztientzako arropak ditugu"

Bai. Inguruko herrietan ez dago salgai eskaladarako ekipamendurik, eta, denda handietan aurki badaiteke ere, askotan, eskalatzaileak nahiago izaten du ezagutzen duen eta eskalatzen ibiltzen den bati materiala erostea. Eskalatzailea eta mendizalea zara, beraz?

Bai. Sarri joaten naiz mendira eta eskalatzera. Beraz, bezeroari gomendioak eman ahal dizkiot, eta hori eskertu egiten dute.

Denda ireki berri duzue eta jende asko ari da sartzen. Hasiera ona ari da izaten? Egia esan, guk uste baino gehiago saldu genuen lehen egunean (azaroak 7). Jakin badakigu egun guztiak ez direla horrelakoak izaten, baina, oraingoz, pozik gaude herritarren erantzunarekin.

Zer edo zer berezirik baduzue?

Mendi lasterketetako materiala ere badaukagu. Hori bereziki ekarri nahi izan dugu; horren bila joan gara.

Zergatik erabaki zenuten denda zabaltzea?

Guri asko gustatzen zaigu mendia eta horrekin lotutako edozer. Orokorrean esateko, gure zaletasunari jarraitu diogu, eta, nola ez, berton ikusten genuen hutsuneari erantzuteko ere zabaldu dugu denda. Neska zein mutil, nagusi zein txiki, denentzako eskaintza daukazue?

Hori da. Hasi 4 urteko umeekin eta hortik aurrerako neska-mutilentzako arropa eta materiala daukagu.

Alberto Garai | Athlon-eko medikua

"Jendeari aholkuak ematen dizkiogu"

Athlonek nork bere egoera ezagutu eta hobetzeko lan egiten du | A.A.

Instalazio berrietan zaudete jada?

Bai. Ia 24 urte baino gehiago eman ditut kiroldegian. Erronka berria da guretako instalazio berrietan jendea aholkatzea eta gustura sentiaraztea.

Zuen zerbitzuak norendako dira?

Zerbitzua biztanle guztiei zabalik dago, haurretatik hasi eta hirugarren adine-

koetaraino. Azken finean, aholkularitza behar duen jendeari zuzenduta gaude. Oro har, bakoitzaren egoera ezagutu edota hobetu nahi duen edozein etor daiteke gurerara. Geroz eta jende gehiago etortzen da familia medikuak bidalita, kirola egiten hasteko laguntza eskatuz, hipertentsio, kolesterol arazoak dituzten pertsonak.



Alberto Garai. | ATHLON

Zergatik da garrantzitsua norberaren egoera ezagutztea?

Denok ditugu mugak, nahiz eta hori ikusi nahi ez. Horren adierazle dira gure zerbitzutik beste mediku espezialista batzuegana erartortzen ditugun kasuak. Batzuei kirola egitea debekatzen zaie, lehiaketetan. Ebakuntza izan dutenak ere badira.

Lorea Aranburu | Nutrizionista

Elikaduraren gaineko arazoaren kontsulta

Gaixoak sendatu eta aholkuak ematen ditu Aranburuk | A. A.

Elikaduraren alorrean hiru puntu azpimarratzea komeni dela dio Lorea Aranburu nutrizionistak: balorazio nutrizionala, dieta pertsonalizatu eta orekatuak, pilula edo substantzia kimiko barik, salbuespenak salbuespen, eta elikadura heziketa.

Trata daitezkeen gaixotasunen artean, loditasuna



Lorea Aranburu. | ASIER ALKORTA

eta gehiegizko pisua dutenen kasuak daude, alde batetik. Gehiegizko pisua duten umeen kasuak ere atal honetan sartzen dira.

Anorexia eta bulimia kasuak ere lantzen ditugu eta pisu txikia duten eta dieta orekatu baten bidez pisua irabazi nahi duten pertsonen ere irtenbidea ematen diegu. Digestio arazoak ere lantzen ditugu (haizeak edo flatulentziak, bihotzerreak...). Horiek dieta pertsonalizatu bidez konpontzen ditugu.

Hesteetako gaixotasunak, idorreria, haurdunaldiak, edoskitzeak eta menopausia ere trata ditzakegu kontsultan. Eta kirolariendako aholkularitza dietetikoak ere eskaintzen dugu.

LOREA ARANBURU doktorea

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna
Dietetikan eta Nutrizioan diplomaduna Bordeleko Unibertsitatean
Kirol Medikuntzan diplomaduna Bordeleko Unibertsitatean



Instituto Médico Palacio Mendia

Erdiko kalea 22, 1. ARRASATE
943 79 72 16 / 943 79 36 20

NUTRIZIOA ETA DIETETIKA

- Dieta pertsonalizatu eta orekatuak
- Heziketa nutrizionala
- Umeei, nerabeei, helduei, haurdunei eta kirolariei zuzendua
- Obesitatea • Gehiegizko pisua • Diabetesa • Kolesterolak
- Arteria-hipertentsioa • Azido urikoa • Pisu txikia • Anorexia
- Bulimia • Digestio arazoak • Idorreria • Menopausia...
- Kirolarientzako aholkularitza dietetikoak.

Tapiza

BIZIKLETA ERGONOMIKOA

Jarduera fisikoaren inguruko aholkuak

LAKTATOAK

TEST-AK PISTAN

Entrenamendu pertsonalizatuak

Laguntza

AHOLKULARITZA



ATHLON
KIROL MEDIKUNTZA

Loramendi 3
20500 ARRASATE
(Unibertsitate ondoan)

Tel.: 656 784 098
kirolmedikuntza@athlon.es
www.athlon.es

Berdintasunaren gainean hausnartzeko egunak

Antzezlan, hitzaldia eta eztabaida saioa asteon, azaroaren 25ari begira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna azaroaren 25ean da eta Berdintasun Sailak eta Gizarte Zerbitzuek hausnarketarako hitzorduak antolatu dituzte. Antzezlan, hitzaldia eta filma eztabaidarekin izango dira astelehenean hasi eta eguenera bitartean.

Nagore Laffageren gainekoa

*Emakumeenganako indarkeriari ez leloarekin antolatu dituzte ekimenok; izan ere, "emakumeen aurkako indarkeria munduan gehien gertatzen den giza esku-bideen bortxaketa nagusia da", diote antolatzaileek. Astelehenean, Las Torpedolevel eta Ireki teatroaren eskutik *Amores y desamores* antzezlan izango da Arku-*



Las Torpedolelevel eskainiko duen *Amores y desamores*. | KULTURA SAILA

pen (19:00); maitasunaren eta harremanen gaineko elkarrizketa eskainiko dute, umorea nagusi dela. Martitzenean, oster, hitzaldia egingo dute Gizonduz

elkarteko kideek (19:00): *Gizonak emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean*. Emakundek bultzatutako ekimena da Gizonduz eta haren helburua da emakumeen

eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak kontzientziatzea, horretan inplikatu eta parte har dezaten sustatzea.

Eta eguenean, hilak 24, *Nagore* filma eskainiko dute (19:30) eta ondoren eztabaida saioa egin Jaione Juaristi psikologoak gidatuta. 2008ko sanferminetan Iruñean eraildako Nagore Laffage gaztea berbagai hartuta, indarkeriaren gainean hausnartzea da asmoa. Hain zuzen, hori egingo dute eguerdi partean Kurtzebarri institutuko ikasleek ere.

Laguntza behar izanez gero

Berdintasun Sailak eta Gizarte Zerbitzuek, gainera, emakumeek eskura dituzten zerbitzuen berri eman gura diete herritarrei. Arriskuan egon eta babesa behar izanez gero: larrialdietako 112 telefono zenbakia; Arrasateko ospitaleko larrialdi zerbitzua; eta Bergarako komisaria.

Eta larritasunik ez dagoenean: 900 84 01 11 –egune ro 24 orduz; debaldekoa, isilpekoa, konfidentziala eta ez da fakturan agertzen–; eta Aretxabaleta Gizarte Zerbitzuak –943 71 18 62–, aholkularitza eta laguntzen gaineko argibideak.

Koadrilen arteko lehiaketa egingo dute bihar gauean gaztetxoek

M.A. | ARETXABALETA

Koadrilen arteko jokoak antolatu dituzte Loramendi elkarteak eta Gazteria Zerbitzuak, 14 eta 16 urte arteko gaztetxoendako (DBHko 3. eta 4. mailak). Gaueko aisialdi barruko ekimena da eta bihar, zapatua, 20:00etan hasi eta 23:30ak bitartean egingo dute lehiaketa hori.

Irabazleak sari bikaina

Sei lagunek taldeak osatu beharko dituzte parte-hartzaileek, eta neskekin eta mutulekin osatutako taldeek puntu gehiago jasoko dituzte. Hainbat proba izango ditu lehiaketak eta puntuak eskuratzen joango dira probak bukatu ahala. Antolatzailerak iragarri dute sari bikaina jasoko duela talde irabazleak.

Bada, ez dago aurrez izenik eman beharrik; bihar Kurtzebarri eskolako kantxan ager daitezela parte hartu gura duten

guztiak, izena eman eta lehiaketa hasteko (20:00).

Panpina ikastaroa abenduan

Bestalde, panpina ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak. Abenduaren 3an, zapatua, egingo dute udaletxe zaharrean eta aurrez eman behar da izena Loramendin –plaza mugatuak–. Prezioa: bazkideendako 50 euro eta gainerakoendako 55 euro.

Panpinak urte batetik hiru urte arteko umeendako modukoak izango dira: "Opari eder, berezi eta bakarra", diote antolatzaileek. Elorrioko Erreka Mari Panpina Tailerreko kideak etorriko dira ikastaroa eskaintzera eta egun osokoa izango da (09:00-14:00 eta 15:00-19:00).

Bestetik, abenduaren 18an (16:30) izango den Gipuzkoako bertsolari txapelketako finale-rako sarrerak salgai dituzte Loramendin (18 euro).



Oxel Vazquez, Hervas, Irusta eta Odei Vazquez trofeoekin. | ODILO VAZQUEZ

UDAKo karatekek sei trofeo eta domina lortu dituzte asteotan

M.A. | ARETXABALETA

Gipuzkoako txapelketa jokatu dute UDAko karatekek, eta sei trofeo lortu: Odei Vazquez bigarrena izan da kata modalitatean eta hirugarrena kumitean; Ekaitz Irusta, hirugarrena kumitean eta katan; Iker Hervas, hirugarrena kumitean; eta Oxel Vazquez, hirugarrena kumitean.

Euskadiko txapelketan ere izan dira Odei eta Oxel Vazquez anaiak eta Odei hirugarren geratu da kumite modalitatean (68 kiloz azpikoetan) lau kanporaketa gogor gaindituta.

Aste bukaeran, oster, adimen urritasunak dituzten kirolarien nazioarteko txapelketan hartuko du parte Alex Elortondok.

Bitxiak egiten ikasiko dute gaztelekuan

M.A. | ARETXABALETA

Atxagazte gaztelekuan hartu diote martxa ikasturteari, eta, eguen guztietan egiten duten sukaldaritza tailerraz gain, beste ikastaro batzuk ere egiten dabilta azaroan; joan den egubakoitzean, esaterako, kandelak egin zituzten.

Aste bukaera honetan, oster, bitxiak egiten ikasiko dute. Gabon egunei begirako ikastaroa da: "Opari guztiak erosi egin beharrean gu geu ere bitxi politak egiteko gai garela frogatzeko", jakinarazi dute antolatzaileek.

OHARRAK

'LA DEUDA' FILMA

Aste bukaerako filma *La deuda* da: gaur eta bihar (22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00). Umeek *Los pingüinos de Señor Poper* filma izango dute bihar eta etzi (17:00)

BAKARRIZKETA

Sustraiak han dituenak bazarriketa eskainiko du Goio Arrietak eguaztenean Arkupen (19:30). Sarrera 5 euro da.

1975EKO KINTOEN AFARIA

1975eko kintoak bihar, hilak 19, elkartuko dira urteurrena ospatzeko: Taberna Berrin txikiteoa hasi (20:00) eta Mendiolan afaria (21:00). Izen-ematea Orlyn (20 euro).

IRTEERA MURRUKIXOREKIN

Murrukixo MEk mendi irteera egingo du azaroaren 27an, domeka (08:00). Araba eta Errioxa aldera joko dute, eta upategi batean bazkaldu. Izena emateko Murrukixoren egoitzara jo martitzenetan (19:00-20:00); azken eguna azaroaren 22a da; autobusa 15 euro da.

BIDEOJOKOAK, HITZALDIA

Gazteak eta bideojokoek erabilera segurua hitzaldia egingo dute hilaren 29an (18:00) Arkupen, gazte eta gurasoendako. Izena aurrez eman behar da Arkupeko harreran.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jon Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Garbittu

Santakurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Bigarren eskuko azoka etzi egingo da, plazan

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Bigarren eskuko azokaren bigarren edizioa etzi, domekan, izango da, plazan. Azoka 11:30etik 14:00etara egongo da zabalik eta denetarik salduko da. Ekimenaren helburua da bere garaian erosi eta orain erabiltzen ez ditugun gauzak berrerabiltzea.

Udaberrian egin zen bigarren eskuko azoka estreina-koz, eta, ekimenak izandako arrakasta ikusita, orain berriro antolatzea pentsatu du Udalak.

Herritarrek eta herritar ez direnek parte hartu ahal izango dute azokan eta Udalak animatzeko dei egin die guztiei. "Interesa dutenek mahaia erreserba dezakete kultura etxera deituta (943 71 46 88) edo e-posta bidalita (kultura@eskoriatza.net).

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai daude

Zazpikoloroa ikuskizuna eskainiko dute pailazo ospetsuek azaroaren 26an, zapatuan, eta sarrerak gaur jarri dituzte salgai, goizeko zortzietan, kiroldegian. Sarrera bakoitzak 5 euro balio du eta pertsona bakoitzak gehienez ere lau sarrera erosi ahalko ditu. Ikuskizuna 17:30ean hasiko da.

1967an jaiotakoek afaria egingo dute abenduaren 5an

Izena emateko epea hilaren 23ra arte egongo da zabalik. Eta, hain zuzen, afarian parte hartu nahi dutenek Txalapartara joan beharko dute egun hori baino lehen. Izena ematerakoan 10 euro ordaindu beharko dira. Abenduaren 3ko hitzordua 20:00etarako jarri dute, Akeita tabernan.

Villar Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

'Eskohitza'-ren balorazio "bikaina" egin du Udalak

Kiroldegian 160 lagun elkartu ziren eta 500 ekarpen baino gehiago jaso dira

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Joan den zapatuan egin zen *Eskohitza* ekimenaren parte-hartze ekitaldi nagusia "bikain" joan zela esan du Udalak. Eta ekimenean parte hartu zutenak ere pozik daude. "Udalaren balorazioa erabat positiboa da, herritar asko batu zirelako eta etorritakoek oso jarrera positiboa agertu zutelako", esan dute Udaleko agintariek.

160 lagun elkartu ziren zapatuan kiroldegian. Ekimena Beñat Herce alkatearen hitzekin hasi zen. "Denok gara Udala eta denon ideiak, iradokizunak eta iritziak entzunda osatu nahi dugu 2012. urterako ekintza plana".

Lantaldetan banatuta egin zen ekimena. Guztira, bi orduko lana izan zela esan du Udalak,



Taldeetan banatuta, herrian zer hobetu aztertu zuten. | JOSETXO ARANTZABAL

baina zenbait taldetan denbora tartea labur geratu zela gaineratu du. "500 ekarpen baino gehiago egin ziren proposatutako hiru galderetan: zer mantendu behar

den herrian, zer hobetu eta zer sortu, hain zuzen".

Parte-hartzaileak ideia eta iradokizun askorekin joan zirela esan du Udalak.

Euriteek eragina izan dute bidegorrian

Joan den asteke euriteek eraginda lur-jausia gertatu zen Eskoriatzako bidegorrian. "Hasieran, bidea itxi egin genuen, baina orain, ingurua hesitu eta pasabidea utzi dugu", adierazi dute udaltzainek. Konponketa lanak laster egingo badira ere, lur-jausia gertatu zen eremuak oraingoz hesituta jarraituko duela iragarri du Udalak.



MIRARI ALTUBE

Film laburren 'Ti Tau' rallyak parte-hartze kopurua gainditu du

Eskoriatzan bihar egingo den film laburren II. *Ti Tau* rallyak parte-hartze kopurua gainditu du, eta, ondorioz, ezin da izenik eman. Beraz, bigarren edizio honek ere arrakasta izan du. Bihar izango da, zapatua, 09:30ean. Ordu horretan gaiaren banaketa egingo da eta ondoren grabazioak hasiko dira. Lanak 19:00etan aurkeztu behar dira eta ondoren luncha egongo da. Bada, bapo jan eta gero, lanen proiektzioa eta sari banaketa egingo da. Denaren gainetik, egun osoko ekintza izango da eta parte-hartzaileek ondo pasatzeko aukera izango dute.

Hamalau lagun batu ziren kontsumoari buruzko hitzaldian

Astelehenean izan zen hitzaldia, Ibarraundi museoa. *Gutxiago gastatu, gutxiago erosi gabe* izenburupean, hitzaldiak kontsumoari buruzko jarrerak aztertzea zuen helburu. Bide beretik, Gabonen atarian egonda, kontsumitzaileek dituzten ohiturak zeintzuk diren ere azaldu zuen Marta Cobok, Kontsumobide elkarteko kideak. Bada, hamalau herritar batu ziren, eta, museoko arduradunen esanetan, Cobok emandako azalpenak "nahiko azalekoak izan ziren".



GAZTELEKUA

Never Surrender gaztelekuan

Joan den domekan Never Surrender musika taldeak gaztelekua bisitatu zuen. Gazte asko batu ziren, taldeko kideekin hizketaldia izateko eta, bide batez, Txatxilipurdiko irrati mugikorraren bidez elkarrizketa egiteko. Taldeko kideek eurek eskainitako kontzertu batzuetako bideoak proiektatu zituzten.

Bide beretik, parte hartu zutenak egunerokotasunean oso desberdinak diren herritarrak zirela esan du. "Guztiak helburu bakarraren bueltan elkarrizketan lasai eta gustora aritu ziren". Hori bai, denek helburu bakarra zuten: "Eskoriatza hobetzea".

Esker ona adieraziz

Ekitaldia Musika Eskolako ikasleek emanaldi txiki batekin amaitu zen. "Polita izan zen".

Baina ekimena amaitutzat eman bada ere, orain, jasotako proposamenak esku artean hartuta, Udalaren webgunean ekitaldiak emandako lanaren emaitza argitaratuko dela iragarri dute. "Laster argitaratuko ditugu jasotako emaitzak". Dena dela, ekimenaren irudiak dagoeneko argitaratuta daude.

Eskerrak emateko ere Udalak bere tartea hartu du. "Eskerrak eman nahi dizkiegu ekintza hau antolatzen lagundu diguten guztiei. Bai moderatzaile lanetan, argazkilaritzan, muntaietan, musika ekitaldian... lan egin dutenei. Baita ere herritarrei, ekarpenak egiteaz gain, momentu oro, edo zertarako euren laguntza eskaini dutelako".

115 lagun bilduko dira frontoian bazkaltzeko

Duela 382 urte Antzuolak lortu zuen independentzia ospatuko dute gazteek

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
1629ko abenduaren 12an lortu zuen Antzuolak Bergararengandik independizatzea, orduko errege zen Felipe III.ari urrezko 5.000 dukat ordainduta. 1997an antolatu zuten lehen aldiz Independentzia Eguna eta 2004. urteaz geroztik Gazte Asanblada arduratzen da jaia antolatzeaz. Hainbat urtetan, baina, antolatu gabe egon da eta iaz ekin zioten berriz ere jaia ospatzeari, Gazte Asanbladaren eskutik.

Aurten ere egun osoko jaia antolatu dute eta berrikuntza ugari egongo dira. 11:00etatik 12:30era bitartean pintxo lehiaketa egingo dute: talde bakoitzak bi pintxo ezberdin egin beharko ditu eta arduradunek guztiei osagai batzuk emango dizkiete. Baina osagai horiez gain, bakoitzak nahi duen dena erabili ahal izango du. Pintxo lehiaketa bukatu ostean, *Trikimonopatin* poteoa egingo da herriko trikitilariekin. Poteo berezi horretarako monopatinarekin joan behar dela esan dute antolatzaileek, baina norbaitek ez badauka monopatinik,



Tortilla lehiaketa, iazko Independentzia Egunean. | GOIENA

patinete edo patinekin ere parte har dezake. Poteoaren ondoren bazkaria egingo da. Aurreko urteetan bezala, aurten ere herriko pilotalekuan egingo da Independentzia Eguneko bazkaria; 115 lagunek eman dute izena..

Kontzertuak gauean
Arratsaldean, bazkariaren ostean jarraituko du festak. Bazkalos-

terako jolasak antolatu ditu Gazte Asanbladak.

Gauean, 22:30ean, festa amaitzen joateko bi kontzertu antolatu dituzte gaztetxean. Enkore rock talde bilbotarra izango da lehenengo; Gaztea maketa lehiaketaren azken edizioako irabazleak dira. Bigarren kontzertuan Irrintzi taldeak folk eta ska doinuak ekarriko ditu.

Lapurretak eragozteko aholkuak eman dituzte

U.A. | ANTZUOLA
Aspaldion Antzuolan gertatu diren lapurretak direla eta, batzarra egin dute Udaleko ordezkariak eta Ertzaintzak. Lapurretak saihesteko zenbait aholku eman dituzte ertzainek eta herritarrei horien berri eman nahi die Udalak: etxeko ate nagusia beti giltzaz itxi bi buelta emanda; etxabeetan biziz gero gauetan pertsianak itxita laga; eta atea ez zabaldu txirrina jo duena zein den jakin barik. Horrez gain, inguruan jende ezezaguna edo auto susmagarriren bat ikusiz gero, matrikula-zenbakia hartu eta herriko aguzilari edo Ertzaintzara deitzeko aholkua eman dute. Hauek dira telefonoak: aguzilarena, 630 455 663; Bergarako ertzain-etxearena, 943 53 47 20.

Lapurreta asko izan dira aspaldian herrian. Azken lapurretetan, eskolatik 25 ordenagailu eraman dituzte, besteak beste; Mujika harategian dirua lapurtu dute; eta Untzarri baserritik, berriz, makineria eraman dute.

Ura baserrietara eramateko bigarren faseko lanak bukatuta

U.A. | ANTZUOLA
Iaz hasi ziren baserri-auzoetan ur saneamendu lanak eta lan horien bigarren fasea egin dute aurten. Lizarragan 200 metro kubikoko ur-depositua jarri zuten iaz eta, horrekin batera, ura Laskurain Handi baserri ingurura eramateko hoditeria ere sartu zuten. Horren ondoren, Laskurain Handi baserritik Irimo auzoraino ura eramateko lanak egin zituzten; trenbide zaharrean jarri zuten ur sarea.

Aurten, berriz, lanen bigarren faseari ekin diote. Hain zuzen ere, ura Laskurain Handitik Galartzaraino eramatea da Uda-

laren asmoa, eta, orain egin dituzten lanekin, Lizarriturirainoko ur sarea jarri dute. Laskurain Handitik Lizarriturirainoko hoditeriaren lanek 41.666 euroko kostua izan dute. Lanok egiteko 25.000 euroko dirulaguntza jaso zuen Udalak Debagaraia erakundetik.

Hurrengo fasea 2012an
Esan bezala, ura Galartza auzoraino eramatea da Antzuolako Udalaren asmoa. Hala, Inma Beristain alkateak adierazi digunez, hurrengo urterako aurrekontuan sartuko dute horretarako diru-partida bat.

Umeendako ipuin kontaketa domekan Torresoroan

Etzi, domeka, umeendako ipuin kontaketa egingo du Izaskun Muxikak. Torresoroan izango da emanaldia, 18:00etan. Izaskun Muxika antzezlea eta narratzailea da; Nafarroako Antzerki Eskolan egin zituen ikasketak. Antzerki talde askorekin aritzen da lanean eta, 2000. urtea ezkerro, adin guztietako umeendako ipuinak kontatzen ditu.

Mendiko federatu txartela egiteko epea zabalik dago

Arrola Mendizale Taldetik adierazi dutenez, federatu edo aldaketaren bat egin nahi izanez gero azaroaren 30era arte dago epea zabalik, Arrolaren lokalera joanda egun horretan 19:00etatik 20:00etara edo juntakoekin harremanetan jarrita. Aurten, Federazioak hala aginduta, derri-gorrezkoa da telefono zenbakia ematea.

Jon Aranguren lehen antzuolarra Behobia-Donostian

34 antzuolar iritsi ziren helmugara joan den domekan jokaturako 47. Behobia-Donostia lasterketan. Jon Aranguren izan zen antzuolarren artean lehena, 1:21:03 denborarekin. Hurrengoak izan ziren: Jon Arregi (01:22:26) eta Aritz Sai-di (01:23:22). Lehen emakumezkoa Idoia Aranguren izan zen (01:34:19).

OHARRAK

FUTBOLA

Nagusiek Eibartarrak hartuko dute Eztalan bihar, zapatua, 16:00etan. Kadeteek Elgoibar izango dute aurrean bihar, 11:00etan, Eztalan.

PILOTA

Larruzko paletan Olaldekoek Gaztelekuren kontra jokaturako dute gaur, 20:30ean, herriko pilotalekuan.

NIRE USTEZ

ANTONIO DEOGRACIAS



Ikasi zure burua maitatzen

Badaude pertsonak soinean edozein trapu jantzita ere ondo gertzen zaienak. Beste batzuek, aldiz, hain dira grisak, Armani jantzita ere ez dute distira egiterik lortzen.

Goizero esaten dut: "Gaur da zure bizitzako lehen eguna, ez iezaiozu ihes egiten utzi!". Jantzkeraren kontuarekin jarraituko dut, urrian egun zoragarriak izan baititugu. Domeka batean kalera jaitsi nintzen normalean baino ederrago, buruan kapela panamar bat nuela (lagun maite baten oparia). Tabernan nengoela norbaitek kapelaren hegala ukitu eta begien gainera erori zitzaidan. Zuhurtasunez buelta eman eta akzioa egin zuena ikusi nuen; lagun eza-gun eta estimatua. Nire zorrotasunarekin (batzuetan zitala) eta mintzeko inongo asmorik gabe esan nion: "Askok maite zaitut eta gustatzen zait dutxan *kruzetak* laztantzen dizkidazunean, baina badakizu kapela buruan dudanean nik bakarrik ukitzen dudala". Haren erantzun zorrotza: "Ez nekien nola deigarri izan zuretzako; denentzako zeunden, niretzat izan ezik. Ez dut berritoki egin, nahiago dut beste instrumentu batzuk laztantzea".

1975eko azaroaren 20a egun historikoa izan zen frankismoaren nostalgikoendako. Domekan bozkatzera joaten banaiz, espero dut ez nauzuela nahastuko duela 36 urte utzi gintuen Galiziako gizon haren zale batekin. Eder joatea ez da ez faxista, ezta burges izatearen sinonimo. Bestela, galde diezaiotela Marcelinori...

"Badakizu kapela buruan dudanean nik bakarrik ukitzen dudala"

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

Auzo guztietarako alkate berriak izendatu dituzte

Udalak alkateon eginbeharra arautzeko auzotarren iritzia jaso ditu; emaitzak aztertzen dabilta orain

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Joan den domekan Ibarra auzoko bi alkateak izendatzeko egindako bozketaren ostean, aukeratu dituzte 2011-2015 legealdirako Aramaio-ko auzo alkate berriak. Ibarra da Aramaio-ko auzorik jendetsuena eta auzotarrek orain arte egon direnak aukeratu zituzten domekan, bozketa bidez: Jose Carretero –Ibargoia, Aita Gabriel Juaristi, Iturrizuri eta Bizente Goikoetxea plaza– eta Fernando Perez –Nardeaga, Pedro Ignacio Barrutia eta Santakrutz Abadea plaza–. Beste auzoetako alkateak aste batzuk lehenago aukeratu ziren, elkarreetan bozketa eginda –gehienak– edo etxez etxe botoa jasoz. Auzo bakoitzak bere erara funtzionatzen duen arren, auzo alkate aukeratua izan denak badu aukera ezezkoa emateko.

Jose Carretero izango da Aramaio-ko auzo jendetsueneko alkatea, eta beste lau urtez jarraituko du lan horretan: "Bozketaren ostean aldaketa egiteko proposamena egin nuen, aldaketa beti datorrelako ondo".

Izan ere, Carreteroren arabera, ez da inor boluntario aurkeztu. Ibarra, Aramaio-ko beste auzo gehienetan moduan, hautagairik aurkeztu gabe auzotarrek alkatea aukeratzen dute.

Zaborra, aparkalekua eta kakak Aurreko legealdiko esperientzia ere kontatu digu Carreterok: "Udalaren eta auzotarren arteko bitartekari lanak egiten ditut batez ere. Jendeak kalean geratzen nau eta honakoa edo bestea aipatzen dit. Nire lana da horren berri Udalean ematea". Batzarrik ez dute egiten, ez dagoelako beharrik;



Jose Carretero da auzo jendetsuenaren alkatea; irudian, Ibargoian. | J.B.

ALKATE BERRIAK

AUZO	ALKATEA
Ibarra (Ibargoia, Iturrizuri...)	Jose Carretero
Ibarra (Nardeaga...)	Fernando Perez
Altzaga	Kontxi Kortabarria
Arexola	Beñat Ibarguen
Arraga	Juan Jose Peciña
Arriola	Jon Errasti
Azkoaga	Antonio Elejalde
Barajuen	Jon Arriaran
Eguzkieripa	Mikel Muñoz
Etxaguen	Etor Goikoetxea
Gantzaga	Miguel Inuntziaga
Matxain	Alaitz Elexpuru
Oleta	Agurtzane Ortiz de Landaluze
Untzila	Ekaitz Zubia
Uribarri	Angel Mari Lopez de Bergara
Zalgo	Kepa Lizarralde

bizilagunek kalean harrapatzen dute: "Auzoan bizi naizenez denek ezagutzen naute eta batzarrak eguazten gauean edo domeka goizean izaten dira. Hau da, ez dago ordutegirik, unean bertan egiten dira". Jendea ez da askorik kexatzen, Carreterok dioenez: "Zaborren, aparkalekuen eta txakurren kaken gainekoak dira kexa gehienak. Hori bai, zaborra edukiontzi gainean, autoa gaizki aparkatuta edo txakurren kakak jasotzen ez dituztenak berdinak izaten dira normalean eta horien aurka egiteak errespetua ematen du; hori da nire lanaren alderik negatiboa".

Udala, eginbeharra arautzera

Udalak alkateon eginbeharra arautu gura du. Horregatik joan den domekan hautestontzi bat jarri zuten auzotarren iritzia eta iradokizunak jasotzeko. Helburua da eginbeharrak zehaztea; orain emaitzak aztertzen dabilta.

Yolanda Arrieta | Idazlea

"Ahozko literatura landuko dugu haur eta gurasoekin, tailer erara"

J.B. | ARAMAIO

Galtzagorri elkartearen *Bularretik mintzora* ekimenaren barruan Yolanda Arrieta idazlea (Etxebarri, Bizkaia, 1963) Aramaio-ko liburutegian izan zen atzo. Beste bi saio ere gidatuko ditu datorren astean: hilaren 22a eta 24an, liburutegian, 17:00etatik 19:00etara. Zertara etorri den kontatu digu.

Zein da hiru saioen helburua?

Gurasoekin eta haurren inguruan dabilzan pertsona helduekin kontu kontari aritzera nator. Horiei guztiei gonbidapena egin gura diet nirekin eta haurrekin kontu kontari aritu daitezten.

Eta nola ulertzen duzu, bada, kontu kontari aritzea?

Gaur [atzo], adibidez, ahazko literatura landuko dugu eta horren barruan irakurketa ozena landuko dugu. Ozenki irakurtzearen garrantzia azpimarratuko dugu eta nola egiten den irakatsi.

Hori guztia adibide eta jolas praktikoekin egingo dugu, tailer erara.

Datorren astean ere beste bi saio gidatukodituzu. Zer landukoduzue saio horietan?

Martitzenean, haur poesia eza-gutzero emango dugu. Asko-erendako arraroa da gaia baina ikusiko dugu nola ez den horren



Yolanda Arrieta. | GOIENA

arraroa. Are gehiago, ezagutzen hasiz gero gehienek gustukoa izaten da. Beldurrak kentzen eta haur poesiararen ahazko baliabideak erabiltzen ikasiko dugu martitzeneko saioan.

Azaroaren 24an amaituko da tailerra. Istorioak bat-batean kontatzen ikasiko dugu. Garrantzi berezia emango diogu haur eta helduen artean emozioak, estetika eta irudimena osagai dituen komunikazioari.

Bi ordu izan arren saio eraman-garriak izango dira, beraz.

Badakit jende gehiena nekataria eta estresatuta dabilela. Tailerra izango da, eta saioetan lasai-lasai eta batez ere ondo pasatuz kontu kontari arituko gara. Gonbidatuta zaudete, zatozte!

Amilburuk lan ona estreinaldian; Igoak, berriz, gaur abestuko du

J.B. | ARAMAIO

Aurrera doa gazteendako Bertxoko sariketa. Hilaren 25ean Iturrieta sagardotegian jokatu-ko den finalaren aurretik azken kanporaketa jokatu da gaur Agurainen, eta Xabi Igoa aramaioarra han egongo da: "Ondo pasatzera noa, inongo presio barik abestu eta goatzera". Bigarren aldia da eta ezagutzen ditu Bertxokoren berezitasunak. Horien artean dago, esaterako, hasierako agurra puntuagarria dela eta abesti ezagun baten doinuaren oinarrituz osatu behar dela bertsoa. Paula Amilburuk, bestalde, ez zuen finalera sailkatzerik lortu joan den eguba-



Xabi Igoa eta Paula Amilburu. | J.B.

koitzean. Pozik zegoen, hala ere: "Saioa hasi eta asko lasaitu nintzen, goatzeko aukera izan nuen. Oso gustura nago nire helburua bete nuelako".

Jakinarazi dituzte San Martin egunean Triarikalejira taldeak antolatutako zozketaren irabazleak

Aramaio-ko Triarikalejira trikiti taldearen San Martin eguneko zozketaren irabazleak jakinarazi dituzte. San Martin egunean bertan, azaroak 11, egin zen zozketa udaletxeko arkupean, buzkantza, txorixo eta ardoa dastatzeko aukera eskaini ostean.

Hauexek dira hiru zenbaki sarituak: 970, 1.337 eta 2.120. Irabazleek trikiti taldera (945 44 54 05) edo udaletxera (945 44 50 16) jo dezakete saria jasotzera. Hainbat txokotara irteerak egiteko aukera izango dute irabazleek.



JOKIN BEREZIARTUA

Hegoaldeko emakumeen gaineko erakusketa

Amaru kultura elkartearen eskutik eta Udaleko Kultura Sailaren laguntzaz, astelehenetik erakusketa batez goatzeko aukera dago Sastiñan. *Hegoaldeko emakumeak. Aldaketaren ahotza* du izenburu erakusketak. Atzo, esaterako, Poison Fire izeneko bideoa jarri zuten. Hilaren 27ra arte egongo da zabalik: astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

ELGETA



Domingo Iturbe eraikineko frontoian jolasleku estalia egin nahi dute. | L.Z.

Domingo Iturbeko urbanizazio lanak martxan

Bi hilabeteotan lanak hesitutako gunera mugatuko dira; ez dute eragozpen larririk sortuko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bi urteko negozioazio luzeen ostean hasi dira Domingo Iturbeko lanak. Eskolako jolastokia hesituta dago eta Goitu enpresako beharginak hasita daude lursaila prestatzen. Lanok bi fasetan egingo dituztela jakinarazi dute Udaletik eta adierazi dute lehenengo bi hilabeteotan hiru direla egiteko nagusiak:

"23 autorenako aparkalekua, kantxa berria eta eskolako jolas-guneko ziburuak berritzea", esan du Oxel Erostarbe alkateak.

Aparkalekua gaur egun futbol zelaia dagoen tokian egingo dute, kantxa eskola zaharra zegoen orubean, eta ziburu berriak gaur egun apurtuta daudenen tokian ipiniko dituzte. Eskolako ortua

ere Domingo Iturbe patronatuaren eraikinaren atzeko aldera eroango dute.

Oraingoz, ez dute Domingo Iturbe eraikina botako eta obrak ez du kalea hartuko. Lanak hesituta dagoen gunera mugatuko dira.

Lan potoloenak urte hasieran

Lanen zati korapilatsuena urtarritetik aurrera egingo dutela esan zuten udal ordezkariak martitzenean auzotarrendako egindako batzar informatzailean. "Urtarritetik aurrera sortuko dira eragozpen handienak auzotarrendako", esan zuen alkateak. "Domingo Iturbe eta Maala kaleetan hoditeri berria sartu behar dugu eta kale biak zulatu behar direnez itxi egin beharko dira. Bizilagunak eta garajeetako jabeak garaiz abisatuko ditugu".

Domingo Iturbe eraikina

Eraikina urtarritetik aurrera hasiko den fasean botatzea aurreikusten dute udal ordezkariak. Hala, bitarte horretan zutik jarraituko du.

Eraikina egoera txarrean dago baina ez dute guztiz botako; asmoa da beheko solairuan dagoen frontoi zaharra zutik mantentzea eta zenbait egokitzapen lan egin ostean bertan aterpedun jolasleku bat egitea. "Adostutako dirulaguntzak jasotzen baditugu gunek irekia izango da; frontoiaren arkuak zabalik lagatzea da asmoa", esan du Erostarbek. Teilatua konpondu egin beharko da eta barruan dauden komun zaharrak kendu egingo dituztela jakinarazi dute. Baina hori guztia urte hasieratik aurrera izango da. Bitartean, lanak hesitutako gunera mugatuko dira. Eta denbora horretan eskolako umeek Maalako parkea erabili beharko dute jolastoki moduan.

Haur jolasak eta bertsolariak aste honetako pintxo-domekan

L.Z. | ELGETA

Azaroko hirugarren pintxo-domeka dugu aste bukaera honean, hauteskunde kutsua izango duen pintxo-domeka, hain justu ere.

Bertoak eta haur jolasak izango dira protagonista. Haur jolasak 12:00etatik 13:00etara egingo dituzte Herriko Plazan eta herriko neska-mutiko guztiak daude bertan parte hartzerako gonbidatuta.

Poteorako, berriz, bertsolariak iragarri dituzte Kultura eta Turismo batzordeetatik. Beñat Ugartetxea eta Aitor Urbieta ariko dira bertsoan 12:30ean hasita. Bada, gogoratu behar da ostalariek pintxo lehia-

ketara aurkeztutako pintxo onenak eskainiko dituztela euro baten truke.

Argazki rallya

Bestalde, hamar lagunek hartu zuten parte aurreko domekan egindako argazki rally lehiaketan. Antolatzaileek lau gai ipini zituzten –udazkena, pintxoak, alde zaharra eta zer erakutsiko zenioke kanpotar bati–. Bosgarren gaia librea izan zen. Parte-hartzaile bakoitzak bost argazki aurkeztu zituen. Bergarako argazkilariek egingo dituzte epaimahai lanak. Irabazlearen izena eta sari bana-keta ekitaldia hurrengo domekan egingo dira.

VIII. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMATZAK

Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	11-22
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	22-18
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi	10-22

BARIKUKO PARTIDUAK 19:30EAN

Iñaki Ugarteburu - J.M. Zubiaurre / Asier Morales - Koldo Goenaga
Pello Larrea - Mikel Elkoro / Angel Ibarluzea - Alberto Telleria
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua
Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Iker Irazabal - Diego Cantabrana
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe
Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola
Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua

DOMEKAKO PARTIDUAK 10:00ETAN

Satur Ramos - Mikel Arkarazo / Alex Arantzabal - Iñaki Izagurre
Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga
Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola

Maala guraso elkarteak gaztaina-erre jana egingo du gaur, barikua

Eskolako umeak, irakasleak eta gurasoak daude gonbidatuta Maala elkarteak gaur, barikua, egingo duen gaztaina-erre janean parte hartzera. Herriko Plazan izango da eta 15:00etan emango diote hasiera festari; umeek zenbait kantu eskainiko dituzte eta jarraian, gurasoek gertatutako gaztainak jango dituzte.

Euskadiko hiru txirlo txapelketa bihar, zapatua, Elgetan

Hirugarren eta azkenaurreko jardunaldia jokatu dute bihar, 17:00etan hasita, Elgetan. Antolatzaileek 80 bolari inguru espero dituzte, tartean elgetarrak. Lehia oso estu dago: uneotan hiru bolari daude berdinduta bederatzi txirlo jota; elgetarrek bost txirlo jo dituzte.

Ozkarbik loteriako egiaztagiria banatuko ditu

Ozkarbi elkarteak 21.528 zenbakia hartu du Gabonetako Loteriarako. Jokatutakoaren egiaztagiria nahi dutenek azaroaren 21ean, 22an eta 23an jaso dezakete elkartean bertan 18:00etatik 19:30era. Ipinitako egunetan jaso ezin duenak zuzendaritzako kideengana jo dezake.

'Nagore' dokumentala emango dute zineklubean

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna dela-eta *Nagore* dokumentala emango dute eguaztenean, hilaren 23an, 21:30ean. Nagore Laffage gaztearen hilketa-aren gainean egindako lana da. Udalak eta zineklubak antolatuta, aurkezpena eta eztabaida egongo dira.

Odol-ateratzeak egingo dituzte martitzenean, hilak 22

Urteko bigarren eta azken hitzordua dute martitzenean, hilak 22, Elgetako odol-emaeleek. Ohikoa den moduan, odol-ateratzeak udaletxeko beheko solairuan egingo dituzte. Sendagile eta erizain taldea odol-emaeleak hartzeko gertu egongo da 18:00etatik 20:00etara.

LEINTZ GATZAGA

Gatz museoa ezagutzera jende asko joan zen aurreko domekan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

San Milixan eguneko ospakizunak aprobetxatuta gatz museoren berri eman zuten Gatzagako Turismo Bulegoko ardura-dunek joan den domekan. Ate irekiak egin zituzten, eta inguruko herrietako jende asko joan zen museoa ezagutu eta gatz ekoizpenaren gainean galdetze-

ra. Sua piztu zuten, gainera, eta gatz zelan lortzen zuten sasoi baten ikusi.

Bestalde, diapositiben bitartez gatz iturburua ezagutzeko aukera ere eskaini zieten. "Ate irekiekin museoa gainetik ezagutzeko aukera eskaini genuen, eta pozik gaude, jende asko joan zela-k", esan du Aitziber Gorosabel

arduradunak. Orain, azalpen osatuagoak gura dituenak eta gatzaren gaineko kontuak eza-gutu, aste bukaera guztietan eskaintzen dituzte bisita gidatuak museoan.

Umeak, oster, herrian ibili ziren gatzeko plastilinarekin eskulanak egiten; baita ederto pasatu ere. Eta munduko hainbat gatzaren erakusketak –gatz beltza, laranja eta grisa– jakin-mina sortu zuen: "Jendea begira egon zen, galdezka; eta erosi ere egin zuten batzuek".

Dinamizatzailea izango da astelehenean KZgunean

Astelehen arratsaldean (16:00-20:00) zabalduko du KZgunea Aitor Madrid dinamizatzaileak. 16 urtetik gorako herri-tar guztien kezak argitzeko gertu etorriko da, eta ikastaro gogoia dutenendako eskaintza zabala ekarriko du: Interneten gaineko ikastaro orokorra, sare sozialak, Googlek eskaintzen dituen tresnak...

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



Aloña Mendiko presidente Jose Luis Campo eta Natra Oñatiko ordezkari Jesus Kortabarria elastiko berriaz. | ARATZ LOSADA

SASKIBALOIA

Txokolateak eta saskibaloiak bat egin dute Oñatin

Natra Oñati txokolate enpresak babestuko du Oñatiko saskibaloia taldea; asteen sinatu dute

XABIER URTZELAI | OÑATI

Azken urteotan jokalaria eta teknikoei kantxa barruan egindako lorpena bulegoetan berretsi dute Aloña Mendi saskibaloia taldeko arduradunek, bulegoetan egindako sukalde-lanari esker Natra Oñati etxearen babesa izango dutelako, oraingoz, urtebetez. Hala, saskibaloia eta txokolatea ederto bateratu daitezkeela erakutsi zuten atzo, eguena, egin zuten aurkezpenean.

Zalantza barik EBako proiektua goitik behera egonkortuko du hitzarmen honek, azken hilabete hauetan herritarrek bazkide kanpainaren aurrean bikain erantzun badute ere –ia 500 bazkide egin dituzte, eta zenbateko horretara iristea ametsa zen– halako

babesle indartsu bat izateak beste lasaitasun bat ematen du.

Halaxe azaldu zuen aurkezpenean Aloñako presidente Jose Luis Campok: "Dakizuen moduan azken urteotan kantxa barruan arrakasta galanta izan du talde honek, lorpenak historikoak izan dira. Zuzendaritza taldearen apustua EBArako salto egitea izan zen, eta horretarako rekursoak behar genituen bai kirol mailakoak eta baita ekonomikoak ere. Natra Oñati enpresak oso filosofia garbia du, Oñatirendako aberastasuna eta lanpostuak sortzea da helburua, eta gaur ofizial egiten dugun hitzarmenak xede bera du, Oñatiko herriari laguntzea, alegia. Hala, gaur egun bizi dugun egoera ekono-

mikoaren aurrean biziki eskertzen dugu Natra Oñatik hartutako erabakia". Babesle berriari eskerrak emateaz gainera, aurkezpenean presidenteak esker oneko berbak izan zituen Dor-

ESANAK

"Garai hauetan halako babesa jasotzea eskertzekoa da"

JOSE LUIS CAMPO | PRESIDENTEA

leta Urrutiarendako eta Gorka Judezendako zuzendaritzako kideak erurak ere: "Proiektu honetan aurkeztu nahi genuena bikain ulertu zutelako, eta ACB mailako marketing kanpaina bat abiarazi dutelako".

Babesle berriari ongietorria egiteaz batera, gainontzeko babesleak ez zituen Campok ahaztu, eta euren ere esker oneko berbak izan zituen.

Torrelavegakoak, berri

Bihar (18:00, Zubikoa) Natra Aloña Mendik berriro jokatuko du Torrelavegako talde baten kontra, baina ez da joan den aste talde bera izango, herri berean bi ordezkari dituztelako kategoria berean: Merkamueble eta SAB.

Oraingoan SAB Torrelavega taldekoak izango dituzte aurrean, sailkapenean hirugarren daudenak –Oñatikoak laugarren daude. Bi taldeen artean puntu bateko aldea dago, kantabiarrek partidua bakarra galdu dutelako. Etxetik kanpora jokatutako bi partidua irabazi dituzte, eta esaterako, joan den astean Cafes Aitonaren kantxan 5 puntuko aldeaz irabazi zuten (80-85).

Ointxe!-k Iturripera joateko deialdia

Lehen nazional mailan Mondragon Unibertsitateko ordezkariak jakitun dira partidua garrantzitsua dutela bihar, zapatua (20:00, Iturripen). Eta horren aurrean, Arrasateko zaleak animatu nahi dituzte etxeko jokalariei harmailatik bultzada ematera. Partidu berezia izango da Oncineda klub nafarraren kontrako, besteak beste, iaz MUko gazte mailako entrenatzaile (Euskal Ligan) izan zen Ander Aranburu talde nafarrean dagoelako jokatzen. Gainera, partidua irabazteak sekulako balioa du, talde hori, seguruenik, MUren kontrario zuzen izango delako kategoriarik eusteko lehian.

XAKEA

Alex Frankok ia erabakita utzi du Arrasate Hiria txapelketa

X.U. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Arrasate Hiria Xake Txapelketako seigarren eta azken jardunaldia, Arrasateko osoko bilkuren aretoan (19:00etan hasita).

Joan den astean torneoko faborito Alex Franco madrildarrak ia erabakita utzi zuen torneo; Josu Tornay arrasatearra poliki-poliki ito zuen, 27. jokaldian gainera zetorkion matea ikusita Tornayk amore eman zuen arte. Gaurko jardunaldian karanbola galantak egon beharko lirarteke Francok torneo ez irabazteko, baina bigarren eta hirugarren postuetatik sekulako lehia izango da, lehenengo sei mahaletan dauden jokalariek dituztelako aukerak. Orain arte moduan, zaleek partidak jarraitu ahal izango dituzte.

ERRUGBIA

Kanpanzar ART taldeak Bera Beraren bisita izango du domekan

Domeka eguerdian jokatuko dute Igor Iasiren mutilek Bera Bera taldearen kontra (12:30). Eta itxaropen bakarrak zelairatuko dira, joan den astean Irunen izandako traba guztiak alde batera uztea. Lesioak tarteko ARTko mutiak 15 jokalariz joan ziren Irunera, eta han beste bi jokalaria lesionatu zitzaizkien; hamahirukin amaitu zuten.

KARATEA

Josu Zalakain bergararra Euskadiko karate txapelidun

Gasteizen egin zuten Euskadiko Karate Txapelketan Shoto-kan taldeko Josu Zalakain lehenengo sailkatu zen kadete mailan (70 kilotik gora). Andoni Muxikak zilarra jantzi zuen 52 kiloz azpiko kategorian, eta Jon Barragan eta Mikel Gallastegi laugarren sailkatu ziren. Laugarren izan zen, baita ere, Irati Rodriguez.

MENDI LASTERKETAK

Zabalik dago datorren urteko Ehun Miliak probarako izen-ematea

Abian da hirugarren Ehun Miliak proba. Ultratrailen egutegian Gipuzkoako hitzordua sendotzea da helburu nagusia, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea (kirol-probak.com). Eta, aldi berean, zabalik dago batera antolatzen duten Goierriko Bi Haundiak probarako izen-ematea ere.

ATLETISMOA

Antxintxiketan taldea ilusioz ikasturte hasieran

Oñatiko Antxintxiketan atletismo taldeak denboraldi berrian izango duten taldea (24 atleta izango dituzte) aurkeztu du aste barruan, eta azken urteko balorazio baikorra ere egin zuten. Orain arteko probak antolatzen jarraituko dute: Arrasate-Oñati, Nazioarteko lasterketa, Torreazuko krosa eta San Silbestre.



JULIEN IRIONDO



Realeko emakumezkoak, gola ospatzen. | VALERIE QUIROGA

FUTBOLA

Mondraren urteurrena ospatzeko Real eta Prainsa Zaragoza Mojategin

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Emakumezkoen Mondra taldea 25. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil, eta bihar, zapatua (16:00), izango dute hitzordu handietako bat, maila gorenean jokatzen dabiltzan emakumezkoen Real eta Prainsa Zaragoza Mojategin izango direlako lagunartekoa jokatzeko gertu.

Realean, gainera, urtetan elastiko zuri-morea jantzi duen ordezkari bat dago, Sokoa Azkarate, taldeko atezaina. Azkaratek 12 urtez jokatu du Arrasateko taldean, 2008an Realak fitxatu zuen arte, eta seguru, harendako ere partidu berezia izango da, orain, baina elastiko txuri-urdinaz. Mondrako ordezkariak ez dute sarrerarik kobratuko par-

tidua ikustearren, baina errifak salduko dituzte partiduan zehar egingo duten zozketa baterako, eta diru horrek balioko du urteurren barruko gastuei aurre egiteko.

Euskal selekzioa, martitzenean
Datorren martitzenean, berriz, Mondrako neskek egingo dute Mojategiko berdegunera salto (18:00), gazte mailako Euskal Selekzioaren kontra lagunartekoa jokatzerako. "Ez dut uste emakumezkoen Euskal Selekzioaren kontra inoiz lagunartekorik jokatu dugunik, eta zapatuko partiduarekin batera, ilusio handia egiten digu partidu horrek ere", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Maitane Gallastegik.

ESKUBALOIA

Lider dagoen Ford Mugarrik Egiaren bisita izango du

Ford Mugarri Arrasatek lau garren postuan dagoen Egiaren bisita izango du zapatuan Iturripen (17:45), aurrean jarraitzeko beste hitzordu bat Ane Herreroren mutilendako.

Soraluce BKEk zailago izango du partidua irabaztea, bigarren dauden Elgoibarko mutilak izango direlako bihar Labegaraletan (17:00). Muniategiren taldeak azken hiru porrotak alde batera utzi nahi ditu, emaitza on bat eskuratuta.

FUTBOLA

Aloñak eta Mondrak derbia jokatu dute Azkoagainen

Puntu beharrean diren Aloña Mendi eta Mondra izango dira domeka arratsaldean aurrez aurre, Azkoagainen. Oñatikoek (8 puntu) arnasa hartu zuten joan den astean Urolaren kontrako garaipenean (0-1) eta horri esker oñatiarrak ez dira sailkapenean azkenak. Mondrak (10 puntu), berriz, hiru gol jaso zituen ligan bigarren dagoen Pasaiaen zelaian. Aretxabaletak eta Bergarak, azkenik, kanpoan jokatuko dute, Berioaren eta Rotetaren kontra.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHEN MAILA
Real-Espanyol
Domeka, 12:00. Anoeta.

EMAKUM. LAGUNARTEKOA
Real-Prainsa Zaragoza
Zapatua, 16:00. Mojategi.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Real Union
Zapatua, 15:45. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Roteta-Bergara
Zapatua, 17:30. Herrera.
Aloña Mendi-Mondra
Domeka, 16:30. Azkoagain.
Berio-Aretxabaleta
Zapatua, 17:30. Berio.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Aretxabaleta B-Intxurre
Domeka, 16:30. Ibarra.
Antzuola-Eibartarrak
Zapatua, 16:00. Estala.

LEHEN ERREGIONALA
Mondra B-Ikasberri
Zapatua, 18:00. Mojategi.
Aretxabaleta C-SBB Mutriku
Zapatua, 18:00. Ibarra.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA
Aloña Mendi-Euskalduna
Zapatua, 16:30. Azkoagain.
Bergara-Ikasberri
Zapatua, 17:30. Ipintza.
Mondra-Elgoibar
Domeka, 16:00. Mojategi.

EMAKUMEZKOEN LIGA
Urola-Arizmendi
Zapatua, 17:30. Argixao.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Berio Otxoa
Domeka, 11:00. Intxaurtueta.

BIGARREN MAILA
Aretxabaleta-Joxe Mari Tab.
Gaur, 20:45. Almen.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri Arrasate-Egia
Zapatua, 17:45. Iturripe.
Soraluce BKE-Elgoibar
Zapatua, 17:00. Labegaraleta.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.
Suministros-Izarraitz Aloña
Domeka, 12:00. Irun.

BIG. SENIOR GIZONEZK.
Donibane-Arrasate EB
Zapatua, 16:30. Pasaia.

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK
Talleres Chap.-Urola
Zapatua, 16:00. Iturripe.
Aloña Mendi-Amenabar
Domeka, 12:00. Zubikoa.
Bergara-Tekniker
Zapatua, 13:00. Labegaraleta.

SASKIBALOIA

EBA
Natra Oñati Aloña-SAAB Torr.
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-Estacion serv. Oncineta
Zapatua, 20:00. Iturripe.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.

Easo Zahar-MU
Zapatua, 20:00. Donostia.
Soraluce BKE-Astigaraga
Zapatua, 19:00. Labegaraleta.

BIG. SENIOR MAILA
Kostkas-Aloña Mendi
Domeka, 12:00. Donostia.

HIRUG. SENIOR MAILA
MU B-Gabi jatetxea
Domeka, 12:00. Donostia..

EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-Cafes Aitona
Zapatua, 18:00. Manuel Muñoz.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
ART Kanpanzar-Bera Bera
Domeka, 12:30. Mojategi.

BOLOAK

EUSKADIKO XXII. HIRU-TXIRLO BOLO TXAPELKETA
Zapatua, 17:00etan hasita, Elgetan.

XAKEA

ARRASATE HIRIA TXAP.
Gaur, 19:00etan Arrasateko udaletxean
OÑATIKO XVII. TXAPELKETA
Zapatua, 09:00etan hasita, Gaztelekuan.

ZIENTZIA ASTEA

AZAROAK 21, 22 eta 23

ETORKIZUNERAKO PREST?

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA

ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

theWeek
Astea 10
Semana 11

Etorriko zarela jakinarazi!

KONTAKTUA
bguerenu@mondragon.edu
943739629

Kontsultatu egitaraua:
www.mondragon.edu/eps



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Egunekeo menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Egunekeo menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.

*Jatetxe
Gida*



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Egunekeo menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeretan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa, ... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Unzueta sagardotegia

Zabola z/b / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataioak, jaunartze eta kintadak.

Egunero zabalik



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Egunekeo menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

KULTURA

Txulapoak Amaia antzokian

- Gaur estreinatuko dute 'La revoltosa' zarzuela Amaia antzokian, 20:00etan
- Bihar, zapatua, 19:30ean eta hilaren 26an eta 27an 19:30ean hurrengo emanaldiak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Dena gertu dute Izaskun Murgia elkarte lirikoko lagunek gaurko estreinaldirako. Eguaztenean egin zuten azken entsegua, Amaia antzokian, dekoratu, jantzi eta musikarekin. *La revoltosa* lana egingo dute aurten. Azken bi urteetan egin duten moduan, Madrilén girotuko dute ikuski-zuna.

Agertoki nagusia Madrilgo plazatxo bilakatu dute, eta Madrilén hain ohikoa den txurro usaina ere ez da faltako. Jantziak dotoreak eta koloretsuak izango dira. Tere Gonzalez zuzendaria urduri zegoen eguaztenean; izan ere, entsegu orokorretan "akats asko" ikusten direla esan zuen.

Madrilén girotutako lana

Lehenengo urteetan euskal giroko zarzuelak egiten zituzten, baina azkenaldian Madrilén girotutakoak egin dituzte: *El barbero de Lavapies* eta *La Gran Vía*, besteak beste. XIX. mende bukaeran kokatuta dago istorioa: "Motza da, maitasun istorioa da... *La taberna* lanaren antzerako trama dauka. Zarzuela alaia da", azaldu du Naroa Elortza elkarte lirikoko bozeramaileak.

Hain zuzen, oso zarzuela alaia zelako aukeratu zuen Tere Gonzalez zuzendariak obra hori. "Obra aukeratzerakoan begiratzen dut ea ze bakarlari izango titudan, eta ikusleek ondo pasatzea ere hartzen dut kontuan", azaldu du Gonzalezek. Oso motza denez, baina, sei emanaldi gehiago gehitu dizkio: *La verbena de la paloma*, *El año pasado por agua*, *La Calesera*, *El bateo*, *Agua*, *azucarillos y aguardiente* eta *Romanzado de los claveles*. Hala, bi ordu iraungo du lanak.



Eguaztenean egin zuten azken entsegua elkarte lirikoko eta orkestrako kideek. | A.E.

Mari Pepa eta Felipe izango dira protagonistak; protagonista horien paperak Susana Vazquez eta Enrique Altuna arrasatearrek beteko dituzte, hurrenez hurren.

Urte osoko lana

Elkarte lirikokoek martxo inguruan hasi zituzten entseguak, eta ekainean Arrasate Musika-leko orkestra gehitu zitzairen. Zarzuelaren inguruan, taula

gainean eta baita atzean ere, 100 bat lagun ibiliko dira. "10 bat joskin ibili dira eta 60 traje egin dituzte, madrildar trajeak. Dekorazio lana ere badago... gutxi gorabehera, 100 lagun", azaldu

du Elortzak. Arrasate Musika-leko orkestraren zuzendaria Iker Olazabal da eta eszena zuzendaria, Javier Burgos.

Harremanekin elkarlanean

Iaz egin zuten moduan, Harreman GKEk lau margolariren koadroak zozketatuko ditu. Emanaldia hasi aurretik errifak salduko dituzte eta atsedenaldira zozketa egingo dute: gaurko emanaldian Rafa Zubiagaren koadroa zozketatuko dute; bihar, zapatua, Kontxita Zarragoarena; hilaren 26an, Valentin Aranarena; eta hilaren, 27an Bingen de Pedrorena.

DATUA

12

OBRA

2000. urtean egin zuten lehenengo obra; aurtengoa 12.a izango da.

ESANAK

"Obra aukeratzerakoan kontuan izaten ditut ikusleak"

TERE GONZALEZ | ZUZENDARIA

"Maitasun istorioa da, zarzuela motza eta alaia"

NARO A ELORTZA | BOZERAMAILEA

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoen Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurhitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Patxi Irurtzunek Arrasaten aurkeztuko ditu idatzi dituen azken bi liburuak

Gaztetxean izango da aurkezpena, bihar, 17:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Patxi Irurtzun idazle nafarrak *Dios nunca reza* eta *¡Oh Janis mi dulce y sucia Janis!* eleberriak aurkeztuko ditu bihar, zapatua. Bi liburuak erabat ezberdinak dira: bat autobiografia da eta bestea, oster, fikzioa.

Gaztetxean, zergatik?

17:00etan izango da aurkezpena, gaztetxean. Irurtzunek dio liburuaren aurkezpenak "aspergarriak" izaten direla; horregatik, Irurtzunek berak egindako ajoarrieroa eta ardoa jarriko ditu dastatzeko aurkezpen ekitaldian. Josu Arteaga arrasatearraren bitartez ezagutzen du Irurtzunek gaztetxea. Han dagoen giroa gustuko du eta horregatik erabaki du aurkezpena gaztetxean egitea. Josu Arteagak gonbidatuta etorriko da, hortaz.

Edonork irakurtzeko liburuak

Bi eleberriak guztiz ezberdinak dira: *¡Oh Janis mi dulce y sucia Janis!* liburu "ausarta eta lizuna" dela azaldu du Irurtzunek: "Fikziozko liburu da, kale garbitzaila eta prostituta den pertsona bati buruzkoa", dio. Eleberri erotikoa dela dio, baina hori azala bakarrik dela: "Bidaia liburu, amodiozko istorioa, umorezkoa...



Patxi Irurtzun, liburuak aurkeztzen. | GOIENA

baita liburu anarkista ere", gaineratu du.

Dios nunca reza, oster, autobiografia liburu da: "Alabaren haurdunaldia, jaiotza, etxe aldaketa... kontatzen du". Serioagoa eta barrukoagoa dela dio eta sentimenduak irakurleekin partekatzeke idatzi zuela dio. "Irakurleek negar egin dutela esaten didatenean oso polita izaten da", azaldu du idazleak. 2008an idatzi zituen bi liburuak, baina orain arte ez dizkiote argitaratu. *Dios*

nunca reza Alberdaniak argitaratu du eta Durangoko Azokan egongo dela espero du Irurtzunek; bestea, oster, Madrilgo Eutelekia argitaletxeak kaleratu du.

Edonork irakurtzeko moduko liburuak dira: "*Diso nunca reza* gazteek eta helduek irakur dezakete; baita beste liburu ere, baina basatia da, eta eszena batzuk gogorak dira. Horregatik, norbait harritu egin daiteke", azaldu du. Biharko aurkezpenerako gonbita, beraz, eginda dago.



Bilboko taldea Split 77 lanaren promozio irudian. | SPLIT 77

Split 77 bilbotarren doinu elektronikoak egunean, hilak 24

A.E. | ARRASATE

Elektronikaren eta programazioaren arloan dihardu Bilboko Split 77 taldeak. Sei urte isilik egon ondoren, lan berria eskutian dutela etorriko dira Arrasateko gaztetxera hilaren 24an, 22:00etan.

Kooltur ostegunak ekimenaren barruan antolatutako saioa da. Orduete iraungo du eta sarrera 5 euro da.

apustua egin zuen talde bilbotarrak eta disko berrian ere elektronikak pisu handia dauka. Horrez gain, 80ko ukituak dituen pop rock britainiar kutsuko musikak leku nabarmena du.

Noizpop zigitupean jarri dute salgai lana. Lehenengo zuzeneko orain dela urtebete egin zuten, Bilboko Kafe Antzokian, azaroaren 26an.

Izen bereko diskoa

2002an *Antenna* diskoa kaleratu zuen taldeak eta 2004an, *Mentura*. Harrera ona izan zuten bi lanok. Hala, sei urteko isilunearen ondoren, 2010ean taldearen izen bereko diskoa argitaratu zuten: *Split 77*. Bada, *Mentura* lanean elektronikaren eta esperimentazioaren aldeko

Abenduko kontzertuak

Horren haritik, Kooltur Ekintza elkarteak datozen emanaldiei begira jarrita dago. Abenduan Zea Mays Bilboko rock taldea, NCC donostiarrak eta DJ Mala igoko dira gaztetxeko taula gainera. Duda barik, abenduko iluntzeak berotzeko aukera aparta izango da.

Txapa Irratiak denboraldi berria aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 19:30ean, Bergarako gaztetxean

Petti musikari nafarrak hasiko du Txapa Irratiaren 27. denboraldia. Kontzertua eskainiko du Pettik gaztetxean, baina hara joaterik ez duenak kontzertua zuzenean jarraitu ahal izango du irratiaren bidez, baita Internetez ere. Kontzertuaren aurretik, baina, 19:30ean, Txapa Irratiaren denboraldi berria aurkeztuko dute gaztetxean bertan. 27. ikasturtea hasiko du Bergarako irrati libreak FMko 97.20an. Beste komunikabide eredu bat posible dela diote, eta hori frogatuko dute beste behin.

Film laburren II. rallya egingo dute bihar, zapatua, Eskoriatzan: 'Ti Tau'

A.E. | ESKORIATZA

Rally horren helburua umore onean ondo pasatzea da, eta, bide batez, gazteen sormena lantzea. Eskoriatzako Einginke ekimenak antolatuta du, aurtengaztearen bigarren aldiz.

Izenematea itxita

Bihar, zapatua, 09:30ean elkartuko dira lehiakideak Ibarraundi museoa. Aurkezpena eta gaien banaketa egingo dute han. Izenemate garaia dagoeneko bukatu da. 14 taldek eman dute izena lehiaketan. Antolakuntza taldeak adierazi du Eskoriatzako eta debagoienekoen gain beste hainbat herrietakoak ere

animatu direla Eskoriatzako lehiaketan parte hartzera.

Gaia objektu bat izango da

Gaia objektu bat izango da, eta, horrez gain, herriko zortzi leku edo ezaugarri banatuko dira eta horietatik hiruk, gutxienez, agertu beharko dute filmean. Talde bakoitzak bere ekipoa eraman beharko du eta euskararen presentzia derrigorrezkoa izango da.

Lanak 19:00etan entregatu beharko dira. Ondoren, luncha eta lanen proiektzioa izango da (21:30) Toki Alai tabernan. 300 euroko sari bakarra egongo da irabazlearendako.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Etxebizitza salgai Sailuente plazan, Musakolan. Guztiz berritzua. Sotoarekin. Egoera paregabean. 143.000 euro. 666 53 95 39

Arrasate. Uriburu kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berogailua. Barrutik eta kanpotik berritua. Ikuspegi ederra. Unibertsitatetik gertu. 153.000 euro. 615 71 86 84 edo 646 00 89 97

Bergara. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Ederren. Terraza handia. Bi logela, egongela, bainugela handia eta komuna. Igogailua eta berokuntza zentrala. Seigarren solairuan. 191.000 euro. 670 55 87 41

Oñati. 72 metro koadroko etxebizitza salgai Kalebarrian. Sukaldea, egongela handia, bainugela eta bi logela. Dena guztiz jantzia. Patio erabilgarria eta trastelekua ere baditu. Garajea aukeran. Precio negoziagarria. 665 71 77 98

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza errentan eman edo saltzen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Bi logelakoa. Garaje eta ganbararekin. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 664 74 90 23 (Naiara) edo 679 45 57 62 (Ruben)

Arrasate. Musakolan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Precio interesgarria. 645 72 53 51

Bergara. Apartamentu bat, duplex bat eta etxebizitza bat ematen dira errentan. Berriak. Deitu 9etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. 943 76 11 21

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea errentan hartuko nuke. 663 28 75 10

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan erdigunean edo San Andresen. 610 82 02 17

Bergara. Bertako bikoteak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 675 62 30 03 edo 651 56 55 30

105. ETXEA OSATU

Antzuola. Baseri batean logela ematen da errentan, sukalde eta abarrak erabiltzeko aukerarekin. Errentaz gain ez da beste ezer ordaindu beharko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 679 34 00 45

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen. Erosoa eta handia. 617 98 78 67

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. Pertsona bakararentzat. Mutila bada, hobeto. 688 69 64 90

Erasmus ikasleentzat logelak. Otsailaren 1etik ekainaren 30era etorriko diren Erasmus ikasleentzat logelak behar dira Debagoienean. 600 04 76 38

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Lausittakalean aurkitzen den garajea salgai. 676 43 28 05

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Harane Erreka edo Bolu kaleetan garajea erretan hartuko nuke. Arratsdez deitu mesedez 943 76 59 94 telefono zerbakira

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da, goizean eta arratsaldean. Esperientzia izatea eskertzen da. 678 32 90 62

Haurra zaintzeko norbaiten beharra. Antzuolan urtariletik aurrera, goizetan haurra zainduko duen norbait behar dugu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 669 83 62 53 edo 635 70 76 79

402. ESKAERA

Arrasate edo Bergara. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. Interesatuak deitu zerbaki honetara: 659 37 41 95

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuak deitu zerbaki honetara: 672 88 01 01

Arrasate. 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako lanetarako, orduka. 699 54 17 27

Arrasate. Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketan, nagusiak zaintzen eta abar. Marta. 671 15 96 97

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 31 97 37

Bergara edo Eibar. Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko: etxeko lanak edin edo ume zein edadetuak zaintzen. 606 50 25 67

Bergara. Bergarako emakumea etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Interesatuak deitu zerbaki honetara: 696 84 19 51

Bergara. Neska gazte eta euskalduna asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bailerako edozein herritan ere egingo nuke lan. 649 19 81 15

Bergarako. neska gertu nagusi zein umeak zaintzen jarduteko Bergara, Arrasate, Eibar edo inguruan. Irene. 651 70 81 70

Debagoiena. Bergarako neska gertu orduka edo egun osoz lan egiteko: nagusiak zaintzen, garbiketak egiten, tabernan zein sukaldean arituko nintzateke. 671 18 50 83

Debagoiena. Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. 618 80 75 66

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrak garbitzeko, edo sukalde laguntzaie jarduteko. Gidabaimena dut. 600 81 99 34

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, umeak zaintzen, garbiketa edo dendarri lanak. Orduka edo egun osoz. Erreferentziaduna. 606 72 28 76

Debagoiena. Erizaintzako laguntzaile titulua duen neska prest edozein lanetarako. Jacqueline. 650 83 66 58

Debagoiena. Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Zaharren egoitzetan eta tabernak garbitzen lan egingdakoa. Interesatuak deitu zerbaki honetara: 680 77 06 46

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | saillkatuak@goiena.com | www.goiena.net/saillkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunak.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

